Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

1. *Gratien Adema.* Zaldubi
   Saindu batzuen biziaz. 2007

Euskaltzainak izeneko bilduma berrian euskaltzain izan direnen eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren egileetatik hainbaten lanak ere alboratu gabe.

ISSN 978-84-1420-52-4

Euskaltzaindia
Real academia de la lengua vasca
Académie de la langue basque

Laguntzaileak:

SENPEREKO HERRIKO ETXEA

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

EUSKALTZALEEN BILTZARRA

GRATIEN ADEMA
ZALDUBI

SAINDU BATZUEN BIZIAZ

1

GRATIEN ADEMA
ZALDUBI

SAINDU BATZUEN BIZIAZ

Argitalpenaren paratzailea: Henri Duhau

EUSKALTZAINAK BILDUMA
EUSKALTZAINDIA

HENRI DUHAU
Beskoitzen sortua 1942an. 22 urtetan, lur berri egiten Donapaleutik, teknikari gisa. 1968an Senpererat ezkondurik merkataritzan erretretarat heldu arte. Lehen artikulua euskaraz, 1961eko urtarrilean *Gaze* kazetan. Beti jarraitu du idazten: *Herria* astekarian, *Otoizlari, Dantzariak, Ekaina, Denak Argian,* eta bereziki *Enhatan.* Liburuak: lehena *Hasian-hasi* (1993, sorterriko euskara); *Euskal aditz batua* (1996); *Aupa batasuna!* (2000); *Hasian-hasi* (bigarrena, 2002); *Hortzak izerdi* (artikulu bilduma, 2005); *Dufau bi anaiak* (2006).

GRATIEN ADEMA JAUN KALONJEA
"ZALDUBI" (1828-1907)

PREDIKUAK
SAINDU BATZUEN BIZIAZ

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Aurreinprimatzea: Ikur, S.A.
Diseinua: Ikeder, S.L.
Inprimatzea: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-32-4
Lege-gordailua: BI-3795-07

GRATIEN ADEMA JAUN KALONJEA
"ZALDUBI" (1828-1907)

PREDIKUAK SAINDU BATZUEN BIZIAZ

Argitalpenaren paratzailea: Henri Duhau

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2007

AURKIBIDEA

(I)

Adituek zer dioten Gratien ADEMAz eta haren lanez

Andres Urrutia euskaltzainburuaren aurkezpena XIII

Jean Hiriart-Urruty (1859-1915)
1907. « Gratien Adéma apeza » 1

Jean Etchepare (1877-1935)
1910. « Zalduby Aldudan » 5

Piarres Lafitte (1901-1985)
1933. « Les compositeurs de cantiques basques » 9
« M. le Chanoine Adéma » 12

Piarres Charritton
1985. « Gratien Adéma Zalduby-ren bizia eta lanak » 31

Bildumagilearen bizpahiru oharpen 39

(II)

Gratien ADEMAren predikuak saindu batzuen biziaz

Jondoni Bixintxo 47

Jondoni Joanes Batista (Hazparnen) 79

Jondoni Petri (Senperen) 109

Jondoni Juliano (Ortzaizen) 139

Andredena Mariaren zeruratzea 153

Jondoni Zipriano (Lekornen) 185

Jondoni Martine 213

« Que soy era Immaculada Counceptiou » 239

Santa Luzia (Atharratzen) 255

Jondoni Eztebe 269

Gratien ADEMA Jaun Kalonje senpertarra

(1828 – 1907)

Eskerrak laguntzaile eta aholkulariei :

Pierrette Dourisboure, artxiboen begiralea ;
Arnaud Dourisboure,
Jean Dourisboure,
Bernadette Mazet Dourisboure,
laurak Gratien Ademaren ilobaren arra-haurrak.

Eta :
Andres Urrutia, Euskaltzainburua ;
Beñat Oihartzabal, Euskaltzainburuordea ;
Jean Haritschelhar, Euskaltzaina ;
Piarres Charritton, Euskaltzaina ;
Piarres Andiazabal, Kalonjea ;
Piarres Aintziart, Euskaltzaleen Biltzarreko elkarteburua ;
Elena Touyarou-Phagaburu, euskara irakaslea ;
Ales Bengoetxea, 1990ean egin zuen lanarentzat ;
Peio Jorajuria, Herria astekarikoa ;
Senpereko Erretora.
Senpereko Auzapeza.

Diruztatzaileak ahantzi gabe :
Euskaltzaleen Biltzarra ;
Euskararen Erakunde Publikoa ;
Euskaltzaindia.

Jarririk eskuinetarik : Gratien ADEMA Jaun Kalonjea.
Xutik ezkerretarik haren iloba : Blaise ADEMA Jaun Apeza

AURKEZPENA

Zaharrak berri esango du, ezbairik gabe, irakurle ohartuak, Zaldubi zenaren liburu hau esku artean hartzen duenean. Merezi al zuen?, gehituko dio beste norbaitek, adi-adi, aspaldikoaren sunda orrialde horietan atzematen duenean.

Egia esan, bata eta bestea aintzat hartu beharko ditugu, Gratien Adema kalonjearen lana berriro argitaratzen den honetan. Izan ere, aspaldikotasunaren doinuak ez dakartza, nahitaez, zahartasunaren ajeak eta ahuleziak. Bestela esanik, aspaldiko horrek, Zaldubiren kasuan, klasikotasuna jartzen digu agerian.

Modernotasuna! Horra hor askoren aldarria egunotan. Modernotasuna, hala ere, modu askotara uler daiteke. Ez maltzurrena, esan gabe doa, sustraiak eta erroak sendo ezarri eta gibelera behatu gabe, aitzina doanarena.

Halakoetan datorkigu Zaldubi senpertarra. Hain zuzen ere, beste behin erakustera belaunaldi baten maisutasuna, euskara dela eta. Nork baztertuko ote ditu euskal letretatik, egun ere, Jean Etxepare eta Hiriart-Urruty? Nork utziko du aldamenean Zaldubiren egina, euskarak ordurik beharrenak ditue-

nean, euskarak berak diskurtso bilbatzaile eta duin baten jabe izan behar duenean?

Horra hor galdera. Erantzuna, aldiz, aspalditik eman zigun 1909. urteko Almanaka berriak, Zaldubi hilberriaz ari zela: *Ikhusgarri da zein ongi zakien Jaun Aphez horrek, Fedezko gauza ukigarrienen bertsu ederrenetan ematen, eta hori hain garbiki eta hain choragarriki, non fededunek adit baitzetzaketen eta atchik ere den gutieneko nekherik eta uzkurtasunik gabe.*

Bertso eta kantikak nagusi, zergatik orain *Saindu batzuen bizitzaz* jardutea, hau da, eliz hitzaldiak abiaburu hartzea, gure egungo euskaldunei ostera ere Zaldubiren lana eskaintzean? Bi-bitakoa izan daiteke arrazoia, bi norabide gurutzatzen baitira haren eginahaletan: lehena, pulpitutik edo jendaurrean hitz egiteko molde eta manera euskalduna; bigarrena, idazteko orduan eliza--erretorika prosa egiten duena, prosa horretan euskaldunaren ispilu argia datorkigula.

Egia esan, erlijioaren egiek ez dute egun Zaldubiren garaikoan zuten hots eta arrabotsik. Hizkuntza eta esamoldeak, aldiz, bete-betean datozkigu, horien premian baikaude euskaldunok. Prosa-molde indartsuak osatu behar ditugu, euskara izan dadin, erlijioaren eramaile ez ezik, literatura, zientzia, lege, ekonomia... hots, giza bizitzari dagokion ororen eramaile. Horretan lagungarri eta erakusgarri da Zaldubiren egitekoa, horretan ere ohargarri gaurko euskaldunentzat.

Aspaldikoa izateak berarekin dakar, bestalde, egunotako irakurketa--ohituretara alderatu beharra. Hala egin du, artez eta trebe, ohi duenez, Henri Duhau senpertarrak Zaldubi herrikidearen lanekin. Adi egon bekio irakurlea berak esandakoari eta adierazitakoari. Horregatik, Duhauren bidelagun izan gara, ibilbide horretan, Euskaltzaindia eta Euskaltzaleen Biltzarra, uste baitugu Euskal Herri euskaldun honetan, idazle klasikoak euskal kultura beregain baten zimentarri irmoak direla. Izan dadila, beraz, oraingo hau geroko batean elkarrekin egin daitekeen lanaren seinale, Euskaltzaindiak behar duelako Euskal Herriaren lurralde bakoitzari berea ematea.

Hitzño bat ere gorde dezadan esateko, liburu hau Zaldubiren azkena ez dela izango Euskaltzaindiaren argitalpenetan behinik behin, segida ederra izan dezakeelako honek gerogarrenean etor daitezkeen beste batzuen aldetik. Hainbatez, *Euskaltzainak* izeneko bildumak, liburu honekin hasiera duenak, bere baitara bideratuko ditu Akademiaren historiaren barruan jokabide esanguratsua eta pisuzkoa izan duten kideen obrak nahiz ikerke-

tak, eta, orobat, eurei buruzko azterketak, hizkuntzaren historia ere alboratu gabe.

Gratien Adema senpertarrak euskal lanaren aitzindaritza eraman zuen, eta halaxe jokatzen erakutsi zigun. Geurea da orain txanda. *Atxik dezagun eskuara!*

Andres Urrutia
euskaltzainburua
2007.urteko abendua

Jarririk Gratien ADEMA.
Xutik ezkerretarik : Blaise ADEMA Gratien-en iloba.

GRATIEN ADÉMA APEZA

Eskualdun bat hil da. Balinbazen eta izan bada egundaino egiazko eskualdunik, hura zen. Eztut erran nahi eskualdunaren on-gaitz guziak oro bazituela ; bainan haren gogoa, bihotza, lana, hots, haren izaite guzia, solas eta urrats, Eskual Herriari, eskualduntasunari zatxikizkola, ba.

Eskuararen eta eskualdunen aipamena, zoin eder, zoin handi, zoin zahar, leihorrez leihor, menderen mende, hel ahala urrun oro zauzkala, loria zen haren aditzea.

Etzitzaioken beti jarraik, ez baitzuen gizagaixoak hasiz geroz baratzerik. Bainan hain zen solas-egile maitagarria, haur ona : bere zaharrean ere haur bat bere aita amez espantuka bezala mintzo beti Eskual Herriaz, eskuaraz, Eskualdunez, non onerat baizik ez baitzitazken har haren ateraldiak.

Koplaria zen lehenetarik ; bainan egun zortzi mintzatuko gira hemen *Adéma* zenaren kopla ederrez.

Egun bakarrik Eskualdunaz gira mintzo, eta apezaz. Apeztasuna eta Eskualduntasuna, biak elgarrekin, zerbeit badira. Hitz dautzuet bazazkola zerbeit *Adéma* zenari.

Eliza gizona zen : predikaria, kantaria ; gostu handia zuen elizaren apaintzen, ba eta hortako jakitatea ere. Egon den herrietan bada harek eginikako asko lan ; bera langile.

Bikari egon zen sei urte Hazparnen ; erretor Bidarrain hamar urte ; gero Atharratzen hemezortzi. Azkenik Baionan kalonje. Han hil da eta Senperen ehortzi, elizako ohoreak Baionako katedralean izanik.

Ehorzte horrek orhoit-arazten gitu Hazparnen bikari zelarik, 1858-an izan baitzen izigarriko eritasun bat, sukar ustela, etxe bakarretik hiru, lau jendetaraino ereman zituena (ez kolera denboran ; hura lau urtez lehenago zen); orhoitzen gira entzunik batzuen eta bertzen ahotik, eriz eri zabilalarik, kuraia handia erakutsi zuela.

Omen zion : sekulan egitekotz, orduan zitakela behar pilota partida eder bat egin, jenden gogoaren arintzeko. Hura behar zen izan, uraren gainean

pilotariei beha egonen zena, uste izaiteko *Kaskoina* deitu pilotari handiaren eta haren lagunen pilotan ari ikusteak haizatuko zuela gaitza.

Omen zion eritasunak baino jende gehiago zeremala beldurrak, izialdurak, edo bederen askori eritasuna izialdurak lotarazten ziotela.

Hain xuxen, bertze anitz bezala, orduan hil zen, sukarra bildurik, *Kaskoin* pilotari famatu hura. Nolazpeit beti pilota partida handi bat segurik egin zen. Ezen hiltzerako bezperan, *Kaskoinak* ohera ekarrarazten omen zituen, berak galdaturik, partidaren berriak, ponduz pondu, ari zirelarik pilotariak plazan.

Ordu berean sukar usteletik hil zen Hazparne Hazketan neskato gazte bat ; izialdurarekin oro ihes ; hilketariek ere ez nahi kutxan sartu hila, *Adéma* apeza hilaren beha han. Ikusiz auzoen beldur-ikara, bi hitz erran zazkoten ez behin ahanztekoak ; hartu berak hila besoetan eta sartu kutxan.

Orhoitzapen lazgarri hortaz bertzerik izanen dugu aipatzeko, Eskualdun apezaren ondotik mintzatuko girelarik egun zortzi koplariaz.

Adéma Senpertar kalonje zena, orai duela berrogoi-ta hamar bat urte, Hazparnerat bikari joan berria zen. Beti ere guti edo aski, bainan guziz denbora hetan, baziren Hazparnen koplari eta ditxolari, gizon bitxi jostakin anitz ; batzu jaun, bertzeak deus gabe, baina omore onez eta irri eginarazteko ateraldiz oro bardin aberats.

Adéma zenak lehen ezkontza benedikatu zuelarik Hazparneko herrian, jaun *Gose,* eta andere *Egarri* zituen elgarretaratu.

Hainbertzenarekin eliza aitzinean gaindi zoan, jaun-anderen berri zakien gizon bat, nahiz ez duen batek ez bertzeak egundaino nehor hil Hazparnen. Moltsa bezen arin zuen gogoa erran den gizonak. Izena, *Manex Tturla.* Eskuak sakelan eleketa zauden batzuek hor galdatzen diote : zer den berri. « Orizue, zera : bikari berri bat dugula gaitza predikaria.»

—Ba ote ?

—Ba, ba ; leher egin dezadala baietz.

—Eta nondik dakizu hori, zuk, Manex ?

—Eztuta nihaurek aditu ?

—Noiz ? Non ?

—Oixtian, elizan. Ala eztakizue nor zen espos egun ?

—To, eta halere !... Eta zer erran deie ?

—Etsorta bat erran zeiek, gizona, itsuski ederra.

—Baia, Manex ?

—Ba, poxi bat ba ! Labur nahi baduzue, bainan sarkor eta zinez !

—Ikasi duka ?

—Zer bada ?

—Hitzez hitz.

—Eta ikus ?

—Huna : « Jaun andere espos maiteak, egun hemen enekin duzue egitekoa. Bihar goizetik harat, ukanen duzue eiherazainarekin ! »

Batek irri, bertzeak irri. Ez gutienik Jaun bikarioak, jakin zuenean Manexen ateraldia. Hortarik has, holako zer nahi bazuen Hazparnen entzunik batzuetarik eta bertzetarik *Adéma* zenak. Xahartu ondoan ere, pesta zitzaion hetaz orhoitzea. Holako bitxi guziekilakoa bazaukan, are gehiago koplariekilakoa, bera ere ditxolaria baitzen. Artzen ziren koplan, batek bota, bertzeak errefera. Bazuen segurki nori ihardok bikarioak, Hazparnen. Bainan handik lekora ere, beti orotan, Bidarrain, Atharratzen, Baionan, bere jitea jarraiki zaio. Xoilki, hastean josteta, gero zinez, arta handirekin apainduz, leunduz, hunki eta hunki, bere kopla ederrak, ari izan da beti ontsa baino hobeki nahiz eskubilaturik utzi gazte denboratik zahartzerainoko lanak : koplari lanak. Ez gire hemen mintzo apezarenez. Kopla hetarik ezagutuenak dira : hemezortzi, ala eztakit hogoi *alegia* (fables !). Bertzalde hogoita hamar bat kopla andana, hau eta hura solas. Hoik ez erlisioneaz batere. Zer nahitaz. *Alegia* hetarik luzeena, ederrena da : *Abereak izurritearekin* (les animaux durant la peste). *Alegiez* bertzalde direnetan, nork ez ditu ezagutzen *Xuriko, Pilotariak, Betirisants ?* kopla hoik oro kasik pollitak dira biziki.

Erlisioneari doazkon koplak ez dira gutiago ederrak : badire zazpi, katiximako irakaspenei datxikotela : *Jainkoa, Kreazionea, Inkarnazionea, Aingeruak* eta holako. Hamabortz, hogoi arte hori kopla andana, Andredena Mariaz eta bertze saindu batzuez mintzo. Azken hauk ez dira oraino agertuak, bertze guziak ba. Orotako ederrena da : *« Uholde baten pare ».* Orhoitzen niz *Adéma* zena bera ikusirik nihaurek, eta entzunik, orai duela hogoita zortzi edo bederatzi urte, hantxet, *Lurden,* Eskualdun beilari andana batekin aldizkatuz emaiten kantika eder hori. Zoin gogotik eta zer karrarekin !...

Kantaria ere zen biziki gaztean. Zahartzeari, boza galduz geroz, ezin aditua zen, eta halere beti azken egunetaraino kantatzen zuen *gizagaixoak...* alegia !

Aurtengo gure Almanakan irakurtu dituzketzuen koplaldietarik bat (ala ez ote biga ?) bat segurik ba, harena zen *« Okerrak okertzaileari ».* Agertzen zituen koplen azpian ez zuen bere izena emaiten, bainan alegiazko izen bat, beti bera : *Zalduby.* Ez baitago izen hori behin eta behin ahantzirik Eskualherrian.

Jean Hiriart-Urruty
Eskualdun Ona 1907-XII-20

ZALDUBY ALDUDAN

Gutiak dira, orobat, dakitenak gure Harpeko urari eskerrik gehiena eman dakotenetarik bat izan dela Zalduby koblakaria[1].

Ahuskin ibili ondoan zenbeit urtez, ohartua zen handik jaustearekin berarekin galtzen zuela, aldi bakotx, hango ur hautek egina zakoten ongia. Mendi gora hartarik mando bizkarrez beheiti jiteak akiturik bazagon aste bat osoa, gerruntzeak minberaturik, gogor juntak, gogoa hits.

Azkenekotz arrunt jarria zen Aldudarat igaiteari. Bizi izan den ondar bortzpasei urtetarik bat ez du huts egin hunat bere ager aldiñoa egin gabe. Ur mota berak izanez geroztik han eta hemen –hala direla aitor dute zerbeit dakiten guziek– nolaz ez zuken gutartean laketago, harat-hunat ibiltzeko errextasun guziak bai eta egoitza goxoagoa eskupean emaiten ginaizkon ordutik ? Laster maitatu ere, harek, Alduda. Etzuen aspaldi bazabilala eskualde hotan, Harpeko uraz izkiriatu zuelarik orok ezagutua den liburu ttipi pollita, zointan ez bakarrik delako iturria, bainan oraino hemengo azinda beltzak berak hain amultsuki goresten baititu.

Guti dugu ikusi adin hartako xahar hain lirain xut gorarik, ile xuri nasai batzuek bere behitarte arrai xuhaila eztiagotzen zakotelarik oraino eta iduri gaztetzen. Jauntzitik hiritar emaiten zuen, edo bederen etxeko seme handi. Ibilgunean[2] bazuen Eskualdun menditarrek bakarrik daukaten halako zalu arinkeriarik gabeko zerbeit. Eskuak hain eder eta gurbil zauzkan non berehala ezagun baitzen zer tresna zerabilaten eta nola. Azken bizpahiru urtetarat bizkitartean adinak hurritua[3] zakon urratsa, burua lurrerat ukurtu gabe hargatik. Gaitz zerbeit zintzurrari loturik, erlastua ere zen, haren entzutea orozbat goxo eta bitxi baitzitzeien orori. Udako goizetan bederatziak artino hozpil[4] baitago oraino, gauaz bezala, gain hotako airea, Harperat bazoan bizpahiru adixkiderekin, plazako gazte andana bat ondotik jarraikitzen zitzaizkola.

Ezagutzen zituen hok denak ; denentzat bazuen ele on edo behako ezti bat. Lañoa zelakotz eta xehea ezin gehiago, maite zuten orok.

Harpeko ur hotx mehe garbitik edan eta, jartzen ohi zen erregebidearen bazterrean dagon kotor ttipi baten gainean. Inguratzen ginuen. Orduan

bazuten haren ezpainek zerbeit, zerbeit erraiteko ! Batzuetan ezin atertua, xaharra baitzen eta xaharra baino gehiago... koblakaria. Zer nahi bazakien Eskual Herriaz, Eskual Herriko ohitzez, sinesteez, jaidurez, Eskual Herriko xokoetan aditzen diren hizkuntza bereziez. Ez dut uste nehork maitatu duen Eskual Herria bihotz kartsuago batekin eta ukan fede gehiago gure etorkizunean.

Arratsaldetan haren atseginik handiena Aldudako plazan batzu eta bertzeekin eleketa artzea. Hemengo jendea argitua zaukan, ikusia, idekia, ohartua izpirituko gauzer. Gogotik entzuten ere zuten orok, ez baita deus jakintsun batentzat goxoagorik.

Artetan bazoan plazatik urruntxago. Begiak behar zituen ase hemengo mendiek erakusten dituzten itxura pollitez, beharriak ibaiaren xurrungaz, bularrak aire garbiz. Bazterraren ederrak osagarria emaiten zakon bai eta liburuek hain ardura kentzen duten bihotzeko bakea.

Zer erranen dugu harek utzi koblez ? Eskualdunak bat bertzearen ondotik ezartzera doatza, eskerrak baitiozkagu. Ja ezagun da zer ofiziale fina zen, xuhurra, garbia. Orratza bezain xuxen lerrokatzen dauzkitzu behar diren hitzak, iraziz, izartuz. Badaki zer erran, zer ez. Gogoeta bakotxari bere lekua eratxikitzen dako, lumatik erortzera utzi baino lehen. Labur aireño bat ote duenez bizkitartean ? Haria mehetto ? Idorxko ez ote duen orhatzen ? Aitortu behar dugu beharria ez daukula hain gozoki hatzemaiten nola Elissanburuk edo Dibarrartek.

Etzen norbeit kantuz adiaraztekoa itsasoaren ur uriak, zeruen eder handi izigarria, lur gainaren itxura aldakorrak, gizonaren bihotzean ihalozkatzen diren azturen orroa. Baditeke ere gure eskuara zaharrak hoinbertzeren erraitea ez dezaken jasan, ez duelakotz hortako aski hitz, aski itzulika. Baditeke eskualdun koblek ez dezaketen ukan, hurbilik ere, gauzek manatzen lioketen hedadura edo indarra ; xume eta pollit baizik ez diren izanen beti, Eskual Herriko bazterrak bezala...

Zenbeitek miretsi dukete, bertzalde, Zalduby ixur zadien, izkiriatzen zuen aldi bakotx, erlisioneko gauzetarat. Bainan etzuken hortako behar apez. Edozoin aipa dezan, apeza bere hartarat laster lerratzen ohi da. Onets dezagun hargatik elizako zerez mintzatu denean dituela apaindu bere koblarik hoberenak, zoin nahi izan dadien erlisioneaz bezenbatean gutarik bakotxak bere barnean daukan sinestea. Irakurtzekoa da eta elizetan kantatzekoa, bertze hanitzen artean, aldareko ostia sakratuak atera dakon bertsu andana.

Aldudan zabilaneko utzixea zuen bizkitartean hitz neurtzeak galdegiten duen eta doi-doia aipatu dugun lan nekea. Jarraikitzen zen bakarrik egunean eguneko ikusi edo aditu zituen larrienen paperean ezartzerat. Berrogoi urtez holaxet izkiriatu ukan ditu arrats guziez, bat hutsegin gabe, bere berriak,

izkirio xehe doi-doia ikus ditaken batez. Erraiteko baizik ez da, bainan gogoa azkar bezain bixta xorrotx zuen oraino lauretan hogoi urtetan.

Eta bakanago gertatzen dena, hauxe : bere bizi guziko gora-behera ttipienez oroit baitzen, ordu berekoez bezala, Crespoeneko etxe ederrean, harat biltzen baitzen, badauzka hogoita bortz xoraturik hortaz, eta orobat harriturik !

Eskualdunek, guziz Aldudan, ez dezakete ahantz Zalduby.

Jean Etchepare
« Buruxkak » Elkar 1980, 149-152.

---

[1] koplakaria : bertsolaria
[2] ibilgune : démarche, façon de marcher
[3] hurri : lent.
[4] hozpil : frais.

LES COMPOSITEURS DE CANTIQUES BASQUES

« Les Basques sont un petit peuple qui chante et qui danse aux pieds des Pyrénées » a dit Voltaire. On serait tenté de retourner cette définition pittoresque et de dire : « Un petit peuple qui danse et qui chante aux pieds de l'Eternel ». Et l'on évoquerait les celtibères de Strabon, nos ancêtres présumés, esquissant en robe blanche, au clair de lune, des pas guerriers accompagnés de cantiques éclatants en l'honneur de leur Dieu unique. Il y aurait dans cette vision comme une figure lointaine des danses religieuses d'Oñate ou de Tolosa, un schème préhistorique des chœurs puissants dont retentissent toutes nos églises euskariennes...

Quoi qu'il en soit de ce rapprochement, nous devons constater que notre peuple aime à chanter sa prière ou à clamer sa foi dans la belle langue de ses aïeux et un rapide coup d'œil jeté sur la littérature basque montre la grande place qu'y a tenu le cantique. À cette lumière, MM. Adéma et Barbier n'apparaissent plus comme des isolés, mais comme deux chefs d'orchestre remarquables parmi beaucoup d'autres.

L'ouvrage basque le plus ancien que nous connaissions est de 1545. Il est intitulé *Linguæ Vasconum. Primitiæ.* On y trouve des poèmes religieux, parmi lesquels certains ont pu être chantés.

Signalons entre autres une pièce curieuse sur le « Jugement dernier », où l'Ange de la résurrection s'écrie comme Jacques Péricart : Debout, les morts !...

Après Bernard Dechepare, nous pouvons citer les quatre chantres eucharistiques Ezcurra, Aldaz, Eliçalde et Portal, qui, en 1609 et 1610, furent lauréats au concours organisé par Mgr Antonio Venegas de Figueroa, archevêque de Pampelune.

Le XVIIe siècle nous donne encore Joanes Etcheberri, auteur de plusieurs ouvrages en vers et d'une quantité considérable de cantiques publiés sous le titre de *Noelac* (1631); Pierre d'Argaignaratz, qui a écrit les siens dans *Devoten Brevarioa* (1665); l'illustre historien et avocat mauléonais Arnaud Oihénart (1657); Harizmendi, dans son *Ama Birjinaren ofizioa* ;

Gazteluçar, père de la Compagnie de Jésus, l'un des plus habiles poètes basques de tous les temps, dont il faudra bien rééditer un jour les sublimes *Eguia Catholicac* (1686).

Au XVIIIe siècle, on a publié plus de vingt éditions de *Cantico izpiritualac,* recueil de cantiques continuellement remanié ; mais les auteurs gardent généralement l'anonymat. Cependant, citons une poétesse qui, en 1762, publia *Gabon-sariac*. Elle s'appelait Sœur Louise de la Miséricorde. Elle avoue dans la préface qu'elle a été aidée par un certain Martin Beltz et que la musique est des maîtres Melon et Dancharia. Vers la même époque Bernard Larreguy, curé de Bassussarry et traducteur de Royaumont, écrivit des cantiques fort goûtés. On peut en dire autant du Père jésuite Cardaveraz, que l'on verra peut-être un jour sur les autels.

Chevauchant le XVIIIe et le XIXe siècle nous saluons les abbés Robin et Monho ; leurs œuvres sont en grande partie inédites. Nous avons retrouvé les poésies et les cantiques de Salvat Monho ; nous nous ferons un devoir de les publier sous peu avec quelques commentaires : la satire des mœurs politiques d'Ascain et des suffragettes de Bardos présentera, peut-être, quelque intérêt.

Enfin, le XIXe siècle a produit une floraison encore plus belle de poètes religieux. On peut citer Hiribarren, curé de Bardos, le fabuliste Goyetche, le gracieux Lerchundi, Mgr Diharassarry, le douanier Otxalde, Soroa, Manterola, Becas, Larroulet, Elgart, Bidegain, Bidart et probablement beaucoup d'autres. D'ailleurs les muses n'ont pas fui notre pays et nous pourrions dresser une belle liste de prêtres ou de séminaristes *koblakaris* en pleine forme.

Mais il n'est pas sage de parler des vivants.

C'est même pour cela que j'appréhende de parler ce soir de deux hommes, morts sans doute pour nous qui ne les avons guère connus qu'à travers leurs œuvres ou leurs légendes, mais bien vivants pour ceux qui ont vécu dans leur entourage, voire dans leur affection. Les amis et les admirateurs des deux poètes voudront me pardonner si je n'arrive pas à les peindre tels qu'ils les revoient dans leurs cœurs fidèles. M. le chanoine Adéma surtout et M. l'abbé Barbier excuseront les maladresses d'une main un peu novice dans le maniement des vieux papiers. Qu'ils reçoivent tous deux ici l'expression de ma vive reconnaissance pour la générosité avec laquelle ils ont complété ma documentation.

NDLR. Dans ces pages, nous reproduisons un extrait de la conférence donnée au grand séminaire de Bayonne le 2 mars 1933, par Monsieur l'Abbé Pierre Lafitte, sous la présidence de Monseigneur Lasserre, protonotaire apostolique, vicaire général du diocèse de Bayonne

Le préambule ci-dessus concernait les compositeurs de cantiques basques en général dont MM. Adéma et Barbier sont des représentants éminents. (Tout les deux, soit dit en passant, ont un lien particulier avec le village de Saint-Pée-sur-Nivelle : le premier y était né et le second en a été le curé que beaucoup de senpertar ont encore en mémoire.)

Mais le présent ouvrage ne concernant que M. le Chanoine Adéma, ce qui est reproduit ci-après ne concernera donc que celui-ci. H.D.

M. LE CHANOINE ADÉMA

Sa vie

Beaucoup d'auteurs basques portent des noms étrangers au pays. C'était le cas de M. Adéma, dont le père vint de la Haute-Garonne à St-Pée-sur-Nivelle à la chute du Premier Empire. Gratien naquit dans ce charmant village le 14 avril 1828. Il apprit le basque avec sa mère et fit ses études secondaires à Larressore.

Il eut comme condisciple Elissamburu, le futur Piarres Adame, avec qui il s'amusait en récréation à imiter les improvisateurs ; un jour, les deux jeunes gens décidèrent de raconter en vers burlesques la vie au collège. Le poème commençait ainsi :

Zoin dohatsu gu hemen, jeunesse fortunée !
Bortz orenak artean la grasse matinée.
Jaiki orduko, lana, plus tard le déjeuner...
Hobeki ditakeia commencer la journée ?...

De cette collaboration sortit également la fameuse chanson *Boltijurrak :* on y raconte la triste aventure de deux faux malades que la faim délogea de l'infirmerie.

Plus tard, dit-on, Elissamburu se permit dans ses vers des licences que l'autorité ne trouva pas assez poétiques : il ne put suivre son ami au Grand Séminaire. L'abbé Adéma fit à Bayonne d'excellentes études, sans négliger d'ailleurs les muses basques : *Martin eta Katalin* date de 1851.

Ordonné prêtre le 17 décembre 1853, il débuta aussitôt comme professeur au Petit Séminaire de Larressore, où l'on remarqua son goût pour le travail ordonné et méthodique. Il prit part au concours de poésie, organisé pour la première fois à Urrugne par Antoine d'Abbadie (1854). *Ameriketarako bidean,* du « Zalduby, artzain beltcha » — c'était son pseudonyme — ne fut pas primé.

Après un an de professorat, le jeune prêtre fut nommé vicaire à Hasparren. La paroisse n'était pas pour lui déplaire : on y aimait alors comme aujourd'hui les improvisations, les sobriquets, les plaisanteries et les jeux de mots.

Le premier mariage que bénit le nouveau vicaire avait joint pour l'éternité M. Gose et Mme Egarri, un homme surnommé Famine et une femme surnommée La soif. Un certain Manech Tturla, qui connaissait bien ce couple — rien de rare ! — revenait de l'église. On l'arrêta en chemin :

— Qu'y a-t-il de neuf, Manech ?

— Tenez, répond-il, on peut dire au moins qu'on nous a envoyé comme vicaire un fameux prédicateur !

— Vous croyez ?

— Je vous jure !

— D'où le savez-vous, Manech ?

— Ne l'ai-je pas entendu moi-même ?

— Où ? Quand ?

— Tout à l'heure, à l'église. Vous ne savez donc pas qui se marie aujourd'hui ?

— Ah ! c'est vrai ! Et alors ?...

— Eh ! bien, il leur a fait un discours superbe, ...un peu court, mais bien senti.

— Ah ! Et qu'est-ce qu'il leur a dit ?

— Voici, je le sais mot à mot :

« Jaun andere espos maiteak, egun hemen enekin duzue egitekoa. Bihar goizetik harat, ukanen duzue eiherazainarekin.»

(Chers époux, aujourd'hui c'est à moi que vous avez affaire. À partir de demain matin, il faudra vous arranger avec le meunier.)

La plaisanterie de Manech fit le tour de la paroisse et le vicaire ne fut pas le dernier à en rire. Il adorait ce genre. Il se plaisait parmi les koblakari et ditcholari, avec qui il n'hésitait pas à se mesurer. Il trouvait, dit-on, dans le peuple et même la bourgeoisie de spirituels adversaires. Ces joutes semi-poétiques ont certainement assoupli l'art du versificateur. C'est à cette époque que remontent certaines chansons comme *Hitzuntzi* ou encore *Pilotariak* (1857)[1].

En 1858 la fièvre typhoïde[2] se déclara à Hasparren-Elle fut terrible : certaines familles perdirent jusqu'à trois ou quatre de leurs membres. L'abbé Adéma fit preuve d'un très grand courage durant l'épidémie, courant d'un malade à l'autre, consolant les grandes douleurs, essayant de remonter le moral de la population. Il préconisait même un remède assez inattendu. À son avis, la peur faisait plus de victimes que le mal et si quelques personnes mouraient de la fièvre, c'est que la peur la leur avait donnée. Aussi demandait-il qu'on organisât de belles parties de pelote : ce serait rendre au public joie et santé. *Mens sana in corpore sano.* De fait on en joua au moins une. En effet, *Gascoïna* mourut durant ces jours pénibles et l'on raconte que le vieux joueur,

mourant, se faisait rendre compte point par point du match qui se déroulait sur la place pendant son agonie...

À cette époque, une jeune fille de Hasquette succomba aussi au typhus ; épouvantés, tous les proches prirent la fuite ; le jour des obsèques les porteurs eux-mêmes ne voulaient pas toucher le cadavre pour le mettre en bière. L'abbé Adéma arrive pour la levée du corps. Voyant le désarroi qui règne autour de lui, il adresse aux assistants une exhortation pathétique, prend la morte dans ses bras et la couche pieusement dans le cercueil.

Ce fait et bien d'autres rendirent le jeune prêtre tout à fait populaire, sinon légendaire.

Le 26 mai 1860, Mgr Lacroix le nommait curé de Bidarray. Bidarray est un village pittoresque, joyeusement posé sur le roc sauvage dans un encadrement de hautes montagnes toutes proches. À l'étage supérieur du rocher de base, place, auberge et presbytères voisinent ; plus bas, comme enfoncée dans une dépression du sol graniteux, l'église se dresse solitaire. Sur la pente, une armée irrégulière de maisons blanches semble monter à l'assaut du vieux clocher. *« S'il y avait eu en Grèce, voici deux mille ans, un pareil site, écrit M. le Dr Etchepare, on y aurait élevé, en marbre, un temple de la Poésie. Feu Zalduby se contenta d'y faire une maison curiale, de restaurer l'antique église, et, habile menuisier, de la doter de beaux meubles. Mais qui sait si ce n'est pas là que la Poésie fit naître dans son cœur les étincelles d'or qui devaient plus tard jaillir de ses vers ?»*[3]

Nous savons en tout cas qu'il y connut l'improvisateur *Otchalde,* avec qui il composa, en 1867, la truculente chanson *Churiko,* histoire lamentable d'un pauvre chien qui vécut de misère et mourut pour avoir une seule fois bien mangé. Mais il serait assez invraisemblable de faire du vieux douanier le maître de Zalduby ou bien il faudrait affirmer que le disciple était hardiment au-dessus du maître.

En 1872, M. Adéma fut nommé curé-doyen de Tardets. La nouvelle église venait d'être construite. Restait à la décorer ; il le fit avec le meilleur goût. Son sens artistique se déploya largement dans le choix ou même la confection du mobilier, de la lingerie et du vestiaire liturgique, ainsi que dans l'organisation des cérémonies religieuses qu'il voulait émouvantes et solennelles.

Parmi les Souletins, race joyeuse, souple et ardente, Zalduby se sentait fort à l'aise : la musique sautillante de leur dialecte dérouta peut-être au début une oreille habituée à la lente majesté de la syntaxe labourdine ; mais il est probable que cela ne dura guère et qu'il fut heureux d'entendre la pensée basque modulée dans cette langue de rossignol.

Chanoine honoraire depuis 1875, M. Adéma fut nommé, le 10 juillet 1890, chanoine titulaire de la Cathédrale. Bien des Bayonnais se souviennent encore du beau vieillard, à la tête argentée, toujours svelte, toujours souriant,

armé de sa fine ombrelle, prêt à former autour de lui un cercle d'auditeurs et à raconter mille anecdotes se rapportant à sa petite patrie. D'autres l'imaginent aussi en délicate mission chez un jeune homme ou une demoiselle : car il aimait beaucoup s'occuper de mariages. Enfin, les séminaristes de cette époque n'ont pas oublié ses antiennes au chœur : en général le bon chanoine, dont la voix, jadis excellente, s'était étrangement voilée, n'en chantait pas ; mais de temps à autre, sentant sa gorge un peu moins prise, il tentait de donner la réplique au chapier sous les espèces d'un petit cri enroué quasi imperceptible. Il se tournait alors vers son voisin pour lui dire : *« Ce n'est pas trop mal !»* et l'office continuait. On sait encore son goût pour le cirque et les marionnettes, et les chanoines ses confrères ne comprenaient pas tous qu'il osât compromettre la dignité du chapitre en assistant à des séances aussi populaires. Mais cela lui était égal.

M. Adéma ne quittait guère la ville que pour aller faire sa saison aux Aldudes Il avait une très haute idée des vertus curatives des eaux de ce charmant village. Il écrivit une brochure en leur honneur. Le cher poète y voit tout en rose, à la manière de Richepin. Voici comment il raconte[4] son arrivée à l'hôtel *Bailia : « Cinq jeunes jolis cochons très propres et à pelage rosé, sortant de la rivière, marchaient de front lentement devant moi, et semblaient saluer ma venue par le frétillement de leurs jolies queues recoquillées en tire-bouchon : enfin, ils s'écartèrent pour me laisser passer...»* Mais si M. Adéma tenait en grande estime l'eau de *Harpea,* il disait surtout beaucoup de bien des Aldudars, dont il aimait le caractère chrétien, indépendant, travailleur et enjoué. Ceux-ci le lui rendaient : il suffit de lire les belles pages[5] que M. le Dr Etchepare lui a consacrées pour s'en rendre compte.

Aussi le bon chanoine revenait-il des Aldudes tout ragaillardi pour retrouver sa stalle canoniale.

Mais le 10 décembre 1907 le Seigneur le rappela à Lui. Son corps repose au cimetière de Saint-Pée-sur-Nivelle, dans cette terre basque qu'il aima tant, et qu'il aime certainement encore du haut du Ciel.

L'œuvre

La caractéristique du bon chanoine, c'était en effet un amour infini de tout ce qui est basque et, comme la bouche parle de l'abondance du cœur, il eût passé des heures entières à célébrer son pays, avec la candide assurance d'un enfant qui vante son père ou sa maison.

Rien d'étonnant, dès lors, qu'il ait voulu confier au papier — *scripta manent* — le meilleur de ses pensées et de ses souvenirs.

M. Adéma a laissé un manuscrit extrêmement curieux intitulé *Livre de raison.* M. le chanoine Daranatz en parle en ces termes dans un article remarquable paru en février 1908 à la *Revue internationale*[6]: *« Il le tenait à jour depuis plus de trente ans avec le soin le plus scrupuleux. Il y notait la température, la direction du vent, l'état général de l'atmosphère. Il y consignait, non sans une pointe d'originalité, les visites qu'il avait faites ou reçues, les événements auxquels il avait été mêlé, les faits saillants de la journée. Il y a là nombre d'anecdotes, d'incidents curieux, de descriptions pittoresques, d'observations originales que l'on ne pourra sans doute publier qu'avec une sage réserve.»* De fait le *Livre de raison* n'a pas été publié.

Espérons qu'un jour les historiens pourront le consulter pour y étudier l'époque si difficile qui va de 1875 à 1907.

Un autre travail manuscrit de 26 pages, écrites en lettres minuscules, presque illisibles, est intitulé *Gauden gu Eskualdun,* Restons basques[7]. C'est une étude sur les origines basques, où les hardiesses d'un étymologiste ingénieux remplacent les documents historiques. Mais ne jetons pas trop vite la pierre : l'auteur suivait dans son exposé la thèse japhétique traditionnelle, admise il y a cinquante ans par des esprits hors ligne, comme le chanoine Inchauspé. Qui sait si les constructions prétendues scientifiques actuelles ne prêteront pas à sourire avant vingt-cinq ans ?

Histoire et tradition ont entre elles les liens les plus étroits. M. le chanoine Adéma était le chantre et l'apôtre des traditions euskariennes : on possède le magnifique discours qu'il prononça en leur faveur en 1887 au collège de Mauléon : il y dénonce le servilisme, l'abjecte platitude et le modernisme, qui font les renégats de la petite patrie. *« Descendants des Cantabres indomptés,* conclut-il, *regardons qui nous sommes, et relevons la tête...»* Parmi les trésors légués par les ancêtres, il compte la langue basque, *« vie et palladium de notre nationalité »,* Aussi l'a-t-il étudiée de près. Il a même publié dans la *Semaine de Bayonne* un travail curieux où il a relevé les ressemblances phonétiques du Basque et du Japonais. Il ne proclame pas la parenté des deux langages et cela est plus que prudent[8].

Les jeux aussi font partie de nos traditions. Notre auteur en a disserté en basque dans son *Eskual-Herriko Eliza-bestak*[9]. Il s'y montre un ardent de la pelote. Il a d'autre part écrit en vers euskariens l'histoire des « pilotaris » de

Perkain à Ottarre, suivie d'une description poétique du jeu de rebot. En français, il a composé une plaquette sur le même sujet. La technique y est très clairement analysée et les pages éloquentes n'y manquent pas. Que l'on nous permette une citation :

« Parfois l'étendue de la Place et la foule qui bruit ou clame comme la mer, rendent nécessaires deux crieurs, qui se renvoient au loin le même mot. Il y a des moments cependant, où cette foule devient muette et haletante d'attention et d'admiration.

C'est quand un quinze se trouve longuement disputé, c'est pendant les nombreux va-et-vient d'une balle qui vole d'une extrémité de la place à l'autre, tantôt en superbes paraboles, tantôt sifflant en ligne droite et basse, comme un boulet, alors surtout qu'après un coup fourré qui l'a fait bondir par terre et qu'elle semble ne pouvoir plus être relevée, on la revoit dans les airs roulant avec une force renouvelée. Quand un pareil quinze enfin est terminé, c'est dans toute la foule des hourras, des applaudissements, un délire d'enthousiasme dont il est difficile de se faire une idée.

Mais voici que du haut du clocher paroissial sonne l'Angélus de midi. Le jeu est immédiatement interrompu : joueurs, juges, spectateurs ne font qu'un cœur et qu'une âme pour prier la Mère de Dieu, et manifester publiquement leur foi. Nous avons vu des dissidents, émus d'un pareil spectacle, se lever, tête découverte et rester ainsi respectueux et immobiles jusqu'à la fin de la prière...

Le cardinal Lavigerie qui a tant illustré notre pays, aimait naguère à honorer, à encourager par sa présence sur le jeu de paume de Cambo notre grand jeu national et cet intermède de la prière d'un peuple vaillant et fort, au milieu d'un si beau spectacle, l'émouvait toujours profondément[10].

II y aurait beaucoup à dire sur le rôle qu'a joué M. Adéma dans la restauration du jeu de pelote. Mais il est peut-être temps de parler du poète.

Zalduby avait une technique du vers dont il a exposé les principes dans *Eskualduna*[11]. Sa prosodie est fondée sur cette idée que le vers est fait pour être chanté ; le texte est la base intellectuelle de la musique ; il doit s'inspirer de la mélodie, il peut même l'inspirer, mais une fois constituée, celle-ci doit être respectée scrupuleusement. Point de ces élisions forcées imitées du latin, qui brisent le rythme et gênent le chanteur. Point de bouleversements syntaxiques dans le genre des auteurs du XVIIe siècle :

« Bisita zatzu hotzak
Otoi gure bihotzak...»

Par contre, recherche de la rime rare et plénitude de la pensée avec le minimum d'inversion... Certes de telles règles mènent à une puissante simplicité, mais qui coûte infiniment d'efforts. L'art de faire difficilement des vers faciles paraît dans les manuscrits de M. Adéma : il ne cessait de refaire ses poèmes, au point que certains se présentent sous trois ou même quatre rédactions différentes.

Son œuvre profane comprend d'abord 18 fables imitées de La Fontaine. Il les publia dans la *Revue des Basses-Pyrénées et des Landes* à partir de 1884. D'autre part on ne saurait trop admirer 14 pièces qui furent la plupart présentées aux concours avec des fortunes diverses. Deux d'entre elles parurent trop révolutionnaires et furent mises sous le boisseau : *Bettirisants* en 1875 et l'année suivante *Biba Errepublika !* Voici ce qu'on pouvait lire dans le *Courrier de Bayonne* le 13 septembre 1876 :

« Il s'est produit cette année dans le concours de poésie basque un incident que nous croyons devoir signaler. Une dizaine de concurrents seulement ont pris part à ce concours. Le jury chargé de distribuer les prix ne trouvait qu'une pièce digne d'être couronnée. Elle portait pour titre Biba Errepublika !

Grand était l'embarras des membres du jury ; les mérites de l'œuvre étaient d'une supériorité incontestable (sic), et la palme allait lui être décernée à l'unanimité. Mais une difficulté se présenta : la chanson était une satyre (sic) vive et mordante du gouvernement républicain. Le cas devenait difficile. Le jury s'en remit à la décision des fondateurs des prix, qui, juges souverains, déclarèrent qu'il n'y avait pas à lui décerner de récompense. Voilà pourquoi il n'y aura pas de lauréat dans le concours de poésie basque de cette année.»

Cette histoire ne peut que rappeler le couplet suivant de la chanson incriminée :

Biba, biba « *Liberté* » *erran eta gero*
Hoien nahirik baizen guk deusik ez libro ![12].

À côté de ces satires politiques il se trouve des pièces d'un lyrisme discret et plein de fraîcheur. Telle son *Amaxo* (1879) dont vous allez entendre la musique inédite[13].

Amaxo

1. Emakume xahar bat buruko xuritan,
   Altzorat alabaren haurra harturikan,
   Opularda beltx eta zai ile gorritan,
   Neguko egun batez zagon iguzkitan.

2. Aña ttikiak dio bere amaxori :
   Nolaz duzu, amaxo, ilea hoin xuri ?
   — Ikusazu mendian, haurra, elur hori :
   Ene adinak ere negua dirudi.

3. — Aurpegi pollit hori zertako, amaxo,
   Ez duzu amak bezen legun eta goxo ?
   — Haurra, urak maldari errekaz doatzo.
   Nigarrek naute egin ni ere hoin atxo.

4. — Zertako egin nigar, amaxo maitea ?
   Zure kontsolatzeko ez niza zurea ?
   — Bertze asko neureez, ai, ene umea,
   Ikusi dut denboraz etxe hau betea.

5. — Amaxo, zein baraxe zu zaren ibiltzen ?
   Zalukiago naiz ni ttikitik higitzen
   — Haurra, ni ere lehen, zu bezala nintzen...
   Urte soberek naute orai dorpegitzen.

6. — Bizitzen balin banaiz zu bezenbat urte,
Amaxo, zu bezala, izanen naiz ote ?
— Haurra, zenbat munduan luzez bizi uste,
Menturazko agintza baizik ez baitute...

7. — Jainko maiteak beti, amaxo, zertako
Ez gaitu elgarrekin biziaraziko ?
— Bizi huntaz bertzerik, haurra, guretako,
Badagoka hoberik, eta sekulako.

8. — Ai, amaxo, biak gu bagine zeruan !
Ai... zer du nik ? Eri naiz... Ai min dut buruan !
— Haurra, goazen barnera ; hobeko dugu han :
Xakurra pleinuz dago gure inguruan

9. Handik bi aste gabe bi gorputz elizan
Etxe hartarik ziren ekarrririk izan
Eta bien arimak zeruan zabiltzan
Lurreko gaitzetarik betikotz gerizan.

Grand'mère

1. Une vieille femme à mouchoir de tête blanc,
Casaque noire et robe de laine rouge,
Un soir d'hiver se tenait au soleil,
Ayant sur ses genoux l'enfant de sa fille.

2. La petite Anna dit à sa grand'mère :
Pourquoi, grand'mère, vos cheveux sont-ils si blancs ?
— Enfant, voyez la neige dans la montagne :
Mon âge aussi ressemble à l'hiver.

3. — Et ce joli visage, pourquoi, grand'mère,
Est-il moins lisse et moins doux que celui de maman ?
— Enfant, l'eau qui descend ravine les pentes.
Les larmes aussi ont fait de moi une vieille.

4. — Pourquoi pleurer, grand'mère chérie ?
Pour vous consoler, ne suis-je pas toute à vous ?
— Ah ! ma petite, j'ai vu autrefois
Cette maison pleine de gens qui étaient miens.

5. — Grand'mère, comme vous marchez lentement !
Moi, si petite, je suis beaucoup plus leste.
— Enfant, moi aussi j'étais comme vous autrefois.
C'est le nombre des ans qui maintenant me pèse.

6. — Si je vis autant d'années que vous,
Grand'mère, serai-je donc comme vous ?
— Enfant, combien ici-bas se promettent longue vie,
Mais ne se bercent que d'une vaine espérance.

7. — Pourquoi, grand'mère, le bon Dieu
Ne nous ferait-il pas vivre toujours ensemble ?
— Enfant, hors de cette triste vie,
Il nous en réserve une meilleure à jamais.

8. — Ah ! grand'mère, si nous étions toutes deux au Ciel
Mais, qu'ai-je donc ? Je souffre de la tête...
— Enfant, rentrons ; nous serons mieux dedans.
Le chien gémit à nos côtés.

9. Deux semaines plus tard deux corps
Furent portés de cette maison à l'église...
Leurs deux âmes volaient dans le ciel
À l'abri pour toujours des maux de cette terre...

Les chansons patriotiques de M. Adéma ont certainement moins de grâce, mais plus de majesté. Le morceau intitulé *Eskualdunak*[14] devrait être dans toutes les mémoires. Il commence ainsi :

« Basques, n'oublions jamais qui nous sommes et ce que nous sommes. Nous descendons des plus vieux peuples d'Orient. C'est en Ibérie que nous avons commencé à vivre de notre indépendance, et parmi les Ibères les Basques se sont fait une place à part. Ils ont vécu dans ce pays sous leurs propres lois sans admettre de joug étranger.»

Mais voici l'*hymne national*[15] qu'il composa en 1893 pour les réunions générales où basques continentaux et péninsulaires se rencontrent fraternellement. Messieurs les séminaristes vont vous le chanter.

Gauden gu Euskaldun

ERREPIKA.
Zazpi Eskual-herriek bat egin dezagun
Guziak beti, beti, gauden gu Eskualdun

1. Agur eta ohore Eskual Herriari :
Lapurdi, Basa Nabar, Zibero gainari ;
Bizkai, Nabar, Gipuzko eta Alabari.
Zazpiak, bat besarka lot beitetz elgarri.

2. Haritz eder bat bada gure mendietan,
Zazpi adarrez dena zabaltzen airetan.
Frantzian, Espainian, bi alderdietan :
Hemen hiru'ta han lau bat da zazpietan.

3. Ekalde-Iberrian noiz ote sortua ?
Lau mila urte huntan hunat aldatua ;
Hain handi eta azkar lehen izatua,
Orai gure haritza zein den murriztua !

4. Gure haritz hau azken mende hautaraino
Zaharturik ere zen eder bezain sano.
Bere lur hoin garbian oso zagoeno
Gainetik zoakona behar zen arrano.

5. Hi haiz, Eskual Herria, haritz hori bera,
Arrotza nausiturik moztua sobera.
Oi ! gure arbasoak, ez otoi begira
Zein goratik, garen gu jautsiak, behera.

6. Gureak ziren lehen bazter hauk guziak,
Arbasoek utziak hek irabaziak.
Guri esker Frantziak eta Espainiak
Dauzkatela dituzten eremu handiak.

7. Mairu beltza zelarik Espainian nausi,
Nabasen Eskualdunek egin zuten jauzi.
Hek ekarri gateak han gintuen hautsi
Eta hilez bertzeak igorri ihesi.

8. Orduan gure alde oihuz zauden oro ;
« Bere lurretan nausi Eskualduna bego,
Frantziak, Espainiak, bai orai, bai gero,
Deus kendu gabe dute gerizatu gogo.»

9. Gureez gure lehen hain libro ginenak,
Ezin ahantziz gaude orduko zuzenak.
Zer ametsak ditugun, zer orhoitzapenak !
Jaungoikoak bakarrik badakizka denak.

10. Ez bahaiz, Eskualduna, lehen bezain handi,
Apaldu gabe xutik bederen egoadi[1],
Odolez eta fedez beti berdin garbi,
Beti tink atxikia hire Eskuarari.

11. Zuri gaude otoitzez, Jaungoiko maitea,
Lagun zazu zerutik Eskualdun jendea.
Begira dezan beti lehengo fedea,
Zor zaizkun zuzenekin ardiets bakea.

[1] egon hadi

Restons Basques

REFRAIN

Que les sept Provinces s'unissent !
Restons tous Basques pour toujours.

1. Salut et gloire au Pays Basque !
Salut, Labourd, Basse-Navarre, Soule,
Biscaye, Navarre, Guipuzcoa et Alava !
Que les sept provinces s'embrassent.

2. Il y a un beau chêne dans nos montagnes,
Il pousse sept branches dans le Ciel,
Les unes vers la France, les autres vers l'Espagne
Ici trois, là-bas quatre: mais les sept ne font qu'un.

3. Qui sait quand il naquit en Orient ?
Il y a quatre mille ans qu'on l'a transplanté ici,
Lui qui jadis a été grand et fort,
Comme le voici rabougri, notre chêne !

4. Oui, jusqu'à ces tout derniers siècles,
Quoique vieux, il était beau, il était sain.
Tant qu'il vécut maître de sa terre si pure,
Pour le survoler, il fallait être un aigle.

5. C'est toi, Pays Basque, qui es cet arbre !
L'étranger survenant a coupé trop de tes branches !
Fiers aïeux, ne regardez pas, je vous prie,
Comme de si haut nous sommes descendus bas !

6. Héritage de nos pères, qui l'avaient conquise,
Jadis toute la région nous appartenait,

C'est à nous que la France et l'Espagne
Doivent leurs immenses domaines.

7. Quand le Maure était maître en Espagne,
Ce furent les Basques qui l'attaquèrent à Navas ;
C'est nous qui avons brisé ses chaînes,
Nous qui l'avons condamné à fuir ou à mourir.

8. Alors tout le monde était pour nous :
« Laissons le Basque maître chez lui,
Criait-on, la France et l'Espagne
Respecteront à jamais tous ses droits.»

9. Nous qui jadis avions une si grande indépendance,
Nous ne pouvons pas oublier nos vieux droits.
Quels rêves ! quels souvenirs que les nôtres !
Dieu seul est capable de les deviner !

10. Basque, si tu n'es pas aussi grand qu'autrefois,
Du moins reste debout, ne baisse pas la tête !
Garde ton sang et ta foi dans leur antique pureté.
Attache-toi étroitement à ton eskuara.

11. Seigneur, nous vous en supplions
Secourez du haut ciel le peuple basque !
Qu'il garde toujours son antique foi
Et recouvre la paix avec ses droits.

C'est sur des rythmes à la fois puissants et populaires de ce genre que Zalduby composa ses cantiques. On peut les classer en trois catégories :

1°) Les cantiques en l'honneur des Saints. Il chanta ainsi Saint Pierre, patron de sa paroisse natale ; Sainte Lucie, patronne de Tardets ; Sainte Engrace, si célèbre en Soule, Saint Joseph, Saint Jean-Baptiste de la Salle, Saint François d'Assise, Saint Bernard[16]. On sait d'ailleurs que le poète avait le goût de l'hagiographie : il avait commencé une *Vie des Saints* qu'il abandonna quand il sut les projets du P. Basile Joannateguy. Il avait déjà rédigé en basque les vies de Sainte Elisabeth de Hongrie, de Sainte Marie-Madeleine, de Sainte Françoise Romaine et de Saint Erasme. Il préparait une étude sur les origines basques de Saint Vincent et de Saint Laurent. Mais revenons aux cantiques.

2°) La seconde catégorie comprendrait ceux qui ont paru à la fin de son Guide du pèlerin basque *(Æskualdun pelegrinaren bidaltzailea,* 1877). C'est un manuel où l'on étudie les pèlerinages à N.-D. del Pilar, Saint-Jacques de Compostelle, la Palestine, Rome, Bétharram, Buglose, La Salette et Lourdes. Les cantiques de ce livre sont presque tous consacrés à la Sainte Vierge. C'est là que se trouve *Uholde baten pare.*

3°) La troisième catégorie englobe le reste : ce sont surtout des poèmes didactiques, à la fois chargés de doctrine très exacte et de profonde piété ; ils devaient constituer une somme harmonieuse, où aurait été coulée en vers amis de la mémoire toute la substance du catéchisme. La mort surprit l'ouvrier en plein travail. Son explication du *Credo* s'arrête à la Passion du Christ. Le cantique du Jeudi Saint est le fameux *Adora dezagun* que la foule chante si volontiers en l'honneur de l'Eucharistie. L'hymne *Oi Gurutzea*[17] aurait probablement conclu le poème du Vendredi Saint : il me paraît caractéristique de la manière à la fois simple, condensée et pieuse de Zalduby. Vous allez l'entendre, et vous admirerez son art musical, si habile à épouser les moindres nuances des sentiments exprimés par les paroles.

Gurutze Sainduari

Zure besotan, Oi Gurutzea,
Hil zaiku Jesus maitea :
Haren gurutzefikatzailea
Ni naiz ni bekatorea

Jesukristoren odolak zaitu
Galbarioan gorritu :
Deusek geroztik munduan ez du
Zuk bezenbat dirdiratu...

Bertz'orduz hemen etsai gaixtoa
Zutaz izan zen ehoa :
Zure indarra da Jainkozkoa,
Deusek ezin hautsizkoa.

Etsaiarekin beti guduan
Hemen gabiltza munduan :
Paratzen bazaizkigu buruan,
Oi gu nork bentzu orduan !

Jesukristori zurekin baizen
Ez da nihor jarraikitzen :
Zure bidetik da beti zuzen
Kristaua zerurat heltzen.

La Croix

Dans vos bras, ô sainte Croix,
Jésus est mort pour nous.
Mais celui qui l'a crucifié,
C'est moi, moi pauvre pécheur.

Le sang de Jésus-Christ
Vous a rougie sur le Calvaire :
Depuis rien dans le monde
N'a connu votre éclat.

Un jour l'ennemi pervers
Fut écrasé par vous :
Votre puissance est divine.
Rien ne peut la briser.

Notre ennemi nous fait la guerre
Continuellement ici-bas :
Mais si vous êtes à notre tête,
Qui donc pourra nous vaincre ?

Ce n'est qu'avec vous
Que l'on peut suivre Jésus-Christ.
En prenant votre chemin
Le chrétien est sûr d'arriver au Ciel.

Messieurs, voilà achevé l'inventaire[18] un peu froid de l'immense labeur accompli par M. le Chanoine Adéma. Il nous été donné d'apercevoir à travers la poussière des documents un magnifique vieillard : sa belle stature, son port noble, son geste aristocratique, son regard loyal et perçant, son sourire distingué lui valaient parmi ses contemporains une notoriété incomparable. Mais ce n'était là que l'écorce d'une grande âme. Son esprit curieux, servi par une mémoire impeccable, aimait à tout simplifier, afin d'y voir plus clair. La rançon de cette simplicité, c'était d'une part une amusante candeur et une extrême facilité d'affirmation ; c'était d'autre part une sorte de brièveté dans son souffle poétique : brièveté abondante et copieuse, d'où la longueur n'était pas toujours absente ; brièveté proche de la concision, qu'elle n'atteignait pas tout à fait, faute d'imagination créatrice. Car notre poète n'était pas un imaginatif, ni un artiste audacieux : ces seules audaces furent politiques. Par contre, quel goût de la mesure, de l'ordre, du fini ! Ses cahiers sont des chefs-d'œuvre de calligraphie, d'ornementation et de reliure. Et ce soin ne reste pas extérieur : il pénètre dans ses vers où les termes sont pesés, mesurés, polis avant de prendre place ; il pénètre dans sa prose qui est l'une des plus savantes du siècle dernier. Mais c'est le cœur qui animait cet art méticuleux : cœur large, qui savait les petits sentiers de la délicatesse aussi bien que les voies royales du dévouement ; cœur capable de comprendre une âme d'enfant à peine éclose aussi bien que la vieille âme indépendante de tout un peuple ; cœur sensible à la beauté d'une complainte naïve comme à la grandeur de nos paysages pyrénéens ; cœur profond et sacerdotal, qui voyait caché derrière tout ce qu'il aimait un plus digne objet de son amour, le bon Dieu, principe et terme de la nature, des hommes et des événements.

Piarres Lafitte

[1] *Pilotariak* a été retouché : la dernière rédaction est de 1890.

[2] Il ne faut pas confondre cette épidémie avec le choléra, qui sévit quatre ans plus tôt (Cf. *Eskualduna,* 20 déc. 1907, 10 janv. 1908).

[3] Jean Etchepare, *Beribilez, p.* 9, Bayonne 1931.

[4] Gratien Adéma. *Aux Aldudes,* p. 5, Bayonne 1904.

[5] Jean Etchepare, *Buruxkak,* p. 156 Bayonne 1910.

[6] Voir aussi *Eskualduna* 14-2-1908.

[7] Manuscrit *Zalduby artzain beltxaren neurtitzak,* p. 163. C'est en réalité un commentaire historique de la chanson qui porte le même titre.

[8] Le bon chanoine avait recueilli les articles : il les colla soigneusement sur des feuillets qui, reliés, présentent un joli volume de 40 pages, intitué : « Curiosités de synonymie basque-japonaise ». *Synonyme* veut dire ici *« homonyme ».*

[9] *Revue internationale des Etudes Basques.* 1908, p. 83. Voir aussi *Eskuaduna N°1107 -1109.*

[10] « Notice sur le jeu de Paume au Rebot », Bayonne 1894, p. 12.

[11] Nous n'avons pas retrouvé cette étude, mais nous avons essayé de la reconstituer par induction.

[12] Vive la Liberté, disent-ils mais ensuite ils ne nous laissent libres que de faire leur volonté.

[13] Manuscrit « Zalduby artzain beltxaren neurtitzak » p. 21.

[14] Ms. p. 143. Cet hymne fut chanté pour la première fois le 21 août 1882 aux fêtes basques de Saint-Jean-de-Luz.

[15] Ms. p. 154.

[16] *Misionestako» eta erretretako* Kantikak, « La Presse », Bayonne 1932, consacre ses dernières pages aux cantiques de Zalduby (p. 145 à 182).

[17] *Eskualdun pelegrinaren,* p. 164.

[18] L'œuvre poétique de M. le chanoine Gratien Adéma a presque toute paru dans Eskualduna (1908-1909), à savoir dans les numéros : 1085, 1091, 1092, 1094, 1096, 1098, 1105, 1107, 1114, 1119, 1112, 1125, 1130, 1133, 1135, 1137, 1147, 1159, 1164, 1175, 1177, 1178.

Voir également la Revue internationale des Etudes Basques (1908-1909) Quelques dates qui n'ont pu trouver place dans notre étude pourraient intéresser certains chercheurs. Nous les avons prises dans le manuscrit intitulé « Zalduby artzain Beltxaren neurtitzak ». Les voici :

—Astoa errelekiekin (1864)
—Aita biltzaileari seme barraiari (1865)
—Bildotxa eta otsoa (1873)
—Hartz bat eta bi ihizlari (1876)
—Burdina eta Baxera (1879)
—Pattin dirudun ez fededun (1880)
—Mende jende mendre (1882)
—Hartz pereka latz (1882)
—Beharraren indarra (1882)
—Erleak ela lixtorrak (1887)
—Otsoa eta amiamokoa (1887)
—Elhez ez, nahiz biz (1888)
—Pello ikazkina (1889).

Argazkia : Lucien Laurencena.

« Zuharreta », Jean-Blaise GOYENECHE famatuaren etxea (1778-1842) ; haren arreba Gratien ADEMAren ama zen. Aspaldian bertze familia baten eskuetan da eta, 1988 inguruan, berrantolaketa handiak egin zitzaizkion eta beraz argazki hau gelditzen da lehen izan zenaren lekuko bikaina.

Senpereko etxe historikoa ! Josepe Bonaparte, Napoleon 1.aren anaia zaharrenak, Espainiako erregetza utzi behar ukan zuelarik, 1813an, etxe horretan izan zuen aterbe eta eskerronez bere azpiko zaldia utzi omen zion Goyeneche-ri. Ikus : *« P. Haristoy, Recherches historiques sur le Pays Basque, II, 273-282.»*

Egundainokotan, 1839an, Don Carlos errege gaiari hortik iragan beharra gertatu zitzaion eta hark ere, eskerronez, bi pistolet eder utzi omen zizkion etxeko nagusiari. Ikus : *« P. Haristoy, Recherches historiques sur le Pays Basque, II, 292.»*

GRATIEN ADÉMA ZALDUBY-REN BIZIA ETA LANAK (1828-1907)

1907ko abenduaren 10ean hil zen Baionan Gratien Adéma katedraleko kalonjea, Utsalegi, Hergarai, Artzain Beltxa eta beste izengoiti batzuen artetik, « *Zalduby* » bere Senpereko landa baten izena Euskaldunen artean ezagutarazi zuena[1].

1828ko apirilaren 14ean sortua zen Senperen Gratien Adéma. Haute-Garonne-tik etorri Bertrand Adéma delako bat zuen aita. Catherine Goyeneche, Zuharretako alaba berriz ama. Aitaren aldetik gaskoina bazen beraz gure haurra, amaren aldetik osoki euskalduna genuen eta ere Euskal Herri guzian ordu haietan ezaguna zen familiakoa : Jean Blaise Goyeneche (1778-1842), Catherine horren anaia sartzen digu alabainan P. Haristoy historialariak XIX. mendeko Euskaldun ospetsuenen lerroan. Aintzindari kementsu agertu ondoan Napoléon-en gerletan, bere etxen aterbe eskaini zion Josepe Bonaparte errege ondoari Espainiatik ihesi Senperera etorri zelarik 1814eko ekainean.

Eta berriz berdin aterbe eman zion 1839ko karlistada bururatzean Don Carlos errege beharrari. Josepek, eskerronez, bere zaldia utzi omen zuen Zuharretan eta Carlos-ek berriz bi pistolet eder[2]. Dena dela, amaren euskaraz eta Senpereko eskolako frantsesaz jabetu ondoan, Larresoroko seminariorat joan zen Gratien Adéma handitzearekin. Geroago apezteko gogoa zukeen haurrak, nahiz apezgai ez ziren ikasleak ere hartzen zituen egundainotik Larresoroko ikastegi famatuak. Dakiguna da adiskide onak egin zituela Adémak Larresoron bere gazte denboran. Hauetarik zen Jean Baptiste Elissamburu Saratarra (1828-1891), Lapurdiko idazle hoberenetarik izan beharra. Elgarrekin hasi ziren euskarazko pertsu ederren ontzen. Batean La Fontaine-ren frantses alegiak zituzten zeinek hobeki euskarara itzultzen, hala nola « *Kuia eta ezkurra* » Adémak, « *Otsoa eta bildotxa* » Elissamburuk. Bestean bakoitzak bere hoberenetik emaiten zuen, Adémak « *Primadera* » kantatzen

zuela eta Elissamburuk *« Infirmeria »*; hau soldagogoko ixtorio balitz bezala « Boltixurrak» gaizki izendatua. Gertatzen zitzaien ere bi lagunei biek batean lan egitea. Horrela egin zuten beharbada *« Zumalakarregi »*-ri kantua eta dudarik gabe biek elgarrekin sinatu zuten 1846eko « Betiri Sants », honela bururatzen dena, 24. pertsuarekin :

« Pertsutan hasi gare aurten bi koplari,
Ezagutarazteko mundu guziari
Zer plantetakoa den Santse de Betiri,
Huntan finitzen dugu zuen zerbitzari ».

Artetik erraiteko « Betiri Sants » pertsuek aipu duten 1846eko gosetea zinez ikaragarria izan zela jakin behar da. Menturaz Mendebalean ezagutu izan diren gosete ziklikoetarik azkena izan zen. Hasteko gure eskualdetan oihartzunik izan zuen bestalde ere, hala nola Hazparnen, Garat herritar apez sainduaren prediku samin bati esker bihiaren prezioa apalarazi baitzen[3] eta Maulen, Jondoni Joani-ko merkatuan bihiaren prezioa goititzearekin herria asaldatu eta jazarri baitzen[4].

Bainan Larresoroko beste oroitzapenik bazuen bere bizian Gratien Adéma ikasle ohiak : 50 bat urteren buruan kondatzen zuen nola jai egun batez Haramboure orduko buruzagiak deitu zuen, ikastetxean kantuz artzera, Yparraguirre euskaldun kantari ospetsua, Baiona aldean gerlaren ondorioz ihesliar zegoena. *« Ikusten dut oraino,* zioen adixkide bati, *urratsa erne, aurpegia argi, gapelua buruan, gitarra eskuan, begia sutan, bizarra apain, gerriko gorria tinko eta espartin arinak oinetan teatroko taulagainera igaiten. Haren botz ozen ikara entzuten dut, gitarrak lagundurik xarmantki ari : « Gitarra zartxo bat det...»*[5]

Larresorotik Baionako seminario nagusira iragan zen gero senpertar apezgaia, eta aitzineko euskal urratsei jarraiki zitzaien gure iduriko, ezen etxekoek oraino begiratzen dituzten haren paperetan aurkitzen dugu lekukotasun adierazgarri bat : *« Ene loreak »*, berak idatzi eskuizkribua. Ikustekoa da liburuxka hori : izkirioak berak —orai aurki ez genezaken bezalako kaligrafia baita— olerkien aurkezpen txukunak eta inguruan dauzkaten marrazki apain margodunek erakusten dute zinezko langile fin eta trebea izan dela horien egilea.

Biltzen diren testuen azterketa azaleko batek adierazten digu berriz zein ziren Ademak gogoko zauzkan eta eredu bezala hartzen zituen pertsuak. Hor daude eta Camousarri-ren olerki gehienak ; « Virgilio » latinezko olerkariaren itzulpen bat, Zumalakarregi-ri olerkia, *« Eri baten gogoetak », « Eri baten liraren aubenak », « Hiltzeko menean den gizon gazte baten gogoetak »* eta holako beste ezezagun batzuen kantu bi. Liburuxka berean aurkitzen ditugu azkenekotz Adema-ren beraren lehen pertsu lanak, batzu jadanik aipatu ditugunak :

—*« Primadera »*, —*« Zumalakarregi-ri »*, —*« Betiri Sants ».*

Edo lehen zazpi alegiak :

—*« Belea eta Axeria »,* —*« Kuia eta Ezkurra »,*
—*« Akerra eta Axeria »,* —*« Abreak izurritearekin »,*
—*« Otsoa eta Bildotsa »,* —*« Axeria, Otsoa eta Zaldia »,*
—*« Tupina eta Eltzea ».*

Besteak aipatu gabeak :

—*« Denboraz Moro Sarrasinaren eta Euskaldunaren artean gertaturiko gudu baten gainean ».*

Berrogei pertsu Nafarroako harmarriaz eta koroaz argiturik :

—*« Eskualdunaren omore oneko kanta »,*
—*« Euskaldunen omore txarreko kanta »*
—*« Andredena Mariari » bi kantika.*

Orotara Adema gaztearen 15 bat olerki, egileak berak 1850 irian bildu zituenak. Sail berari jarraiki zitzaion Senpertar pertsularia 1851an ontzen zituela *« Martin eta Kattalin »* izeneko pertsuak eta 1854ean berriz Abbadia-ren Euskal Festetara bidaltzen zituela *« Ameriketarako bidean »* deituak.

Anartean 1853ko abenduaren 17an Baionan apezturik, Larresororat ira-kasle zetorren Gratien Adema apez gaztea. Ondoko urtean berean ordea, 1854ean Hazparneko apezlagun izendatu beharra zen.

Iparraldeko Hiri Nausia bezala zen ordu haietan Hazparne herria. Bazen hor gaindi orai bezenbat bizilagun, hots bost milako bat, nekazari, ilagin, ehule, larru-apaintzale, zapatain, hargin, zurgin eta beste arotz. Horien guzien artetik ditxolari, pertsulari ala pilotari asko, ororekin gogotik kurutzatzen baitzen bikario berria. Adema Hazparnen zelarik, han sortua baitzen Manex Hiriart-Urruty idazle aipatua (1859-1915), entzun omen zuen haurrean kondatzen nola Ademak Hazparnen benedikatu zuen lehen ezkontza, jaun *« Gose »* eta andere *« Egarri »*-rena izan zela eta Manex Tturla delako baten arabera, ezkont-gaiei egin zien etsorta labur eta sarkorra honela izan omen zen : *« Jaun andere espos maiteak, egun hemen enekin duzue egitekoa. Bihar goizetik harat ukanen duzue eiherazainarekin !»*[6]

Tturla iduriko beste gizon edo emazte mihi luze xorrotx zenbaiti zien nik uste bikariak bota bere gisako errefera, *« Hitzuntziak »* izeneko kopla atera zielarik, *« Ikazketako mandoaren »* airean :

« Gure herri xumetan zenbat hitzuntzi !
Zinez edo jostetan oro erasi,
Trebes, nahasi.
Beha daude zertan hobendun kausi,
Nori pitz auzi,
Deus ez nahiz bertzetan onik ikusi ». (berriz)

Hazpandar pertsulariak asko hilak edo herritik urrunduak ziren Hazparnerat etorri zelarik senpertar apez gaztea, hala nola Katxo-Etcheto edo Larralde-Bordaxuri-tarrak, beste batzu ez oraino hasiak edo ez sortuak, hala nola José Mendiague (1845), Xuberri Durruty (1848) edo Aña Etchegaray Debrusa (1877). Hor gaindi zabilan bizkitartean ordukotz Joanes Iribarnegaray, Xetre famatua (1831). Ademarekin adintsu baitziren badukete zenbait pertsu elgarrekin onturik.

Bainan baziren orduan oroz gainetik Hazpandar pilotariak eta 1857an bikariak osatu zituen pertsuei esker aurkitzen ditugu hiruzpalau ezezagun genituenak :

« Franchisteguy, Rumeba, botari biziak,
Puttiko, Onddore, pik-lari hobiak... »

Beste bat ere bazen ordea Hazparne herrian eta herritik urrun, bazter orotan aspaldian, eta bereziki 1847 an Irunen irabazi partidaz geroz, guziz aipatua :

« Hoien ondotik laster Gaskoina horra hor,
Hogoi urtez nehori ez dik eman amor ;
Kaskoz, begiz bereziz ez zuan ez nihor
Hark bezala pilota zezakenik igor... ».

Zorigaitzez ondoko urtean, 1858ko sukar ustel izurrite ikaragarri batek ereman behar zuen, bikariak lagundurik azkeneraino, gure pilotari famatua.

Izurrite horrek erakutsi zien orduan hazpandarrei beren bikari gaztea ez zela bakarrik pilotako edo misionetako kantuak[7] egiten bazakien gizona, bainan bai buru argi bezain bihotz handiko gizona. Ez ote zuen berak bere eskuz hil kutsudun baten gorpua kutxan ezarri, auzo guziak kutsa beldurrez ihes zihoazelarik...

Zilegi izan bekit oraino erraitea Piarres Broussain (1859-1920) Hazparneko auzapez eta Euskaltzaindiaren sortzailetarik izan beharra zen bataio papera bilatzen nuelarik Gratien Adema apez bataiatzailearen sinadura dutala aurkitu Hazparneko elizan.

Ondoko urtean, 1860an Mgr Lacroix Baionako apezpikuak izendatzen zuen Hazparneko bikari gaztea, bere 32 urteekin, Bidarraiko erretor. Hamabi urte hor egoitekoa zen.

70 urte geroago Bidarraiko errekan iraganen delarik Jean Etchepare medikuari gogoratuko zaizkio Adema erretor zenak gain hartan egin lanak : *« Ertor etxea, eliza pareta bat eta zurgin jeinua baitzuen, muble batzu ez nola nahikoak »*[8]. Horrelako lanen artetik badirudi menturaz epeldu zitzaiola jaun erretorari pertsutarako karra. Ez dugu bederen haren paperetan aurkitu saio berri handirik. Egilearen liburuxka batean heldu zaizkigu halere *« Xuriko »* xakur famatuaren koplak, honelako ohar honekin :

« Xuriko »-ren kantu hauk 1867an neurtitz-gudukotzat paratuak izan ziren, Otxalde Bidarraitarrak lehenik murruskaturik eta Zalduby Senpertarrak berregindurik. Ez zuten garait-saririk irabazi. Geroztik oraino Artzain Beltxak eman diote zenbait eskukaldi[9]*».*

Ohar interesgarri honi esker ikusten dugu alde batetik Adema apezak aski izpiritu idekia zuela Otxalde bezalako parropiant bihurriekin harreman onetan gelditzeko —oroit beste Bidarraiko erretor batek ez zuela elizan sartzera utzi Otxalde hilaren gorpua— eta bestaldetik Senpertar pertsularia jarraikitzen zitzaiola beti bere pertsulari lanari eta lan-moldeari[10].

1872an, 44 urtetan, Atharratzeko erretor-nausi izendatu zuen apezpikuak Gratien Adema Bidarraiko erretora. Bazuen hor ere zer egin erretor berriak bere parropia lanaz bestalde, eliza berri-berria oraino mublez eta apainduraz ere beztitzekoa baitzen. Ahal bezain ongi egin zuen Ademak, bainan iduri luke bestalde Basaburuko haizeak hats berri bat emaiten diola « Manex »-etik etorri pertsulariari.

Alde batetik kantika berriak argitaratzen ditu Atharratzeko apezak, Lurde-ko, Betharram-eko edo Sarrance-ko beilarientzat paratu liburuxka batzuetan, hala nola 1875ean :

—*« Jubilau urte sainduan Lourdes eta Betharram-en Eskual Herritik pelegrin zirenen orhoitzapena », Baiona, 1875.*

—*« Eskualdun pelegrina-ren bidaltzailea », Baiona, 1877.*

Geroxago agertuko dira *« San Josepe »*-ri, *« Santa Luzia »*-ri, *« Santa Grazia »*-ri kantikak eta Beloke-ko komentu estrenatzeko edo Aita Sainduaren jubilaueko —hau *« Gernikako Arbola »*-ren airean (sic)— egin zituenak eta zenbat holako ! Gaurko egunean oraino gure elizetan kantatzen diren kantu ezagunenetarik dira Adémaren *« Adora dezagun »*, Sakramendu sainduari eskainia, « *Uholde baten pare »*, Ama Birjina-ri buruzkoa eta *« Oi Gurutzea !»*. Bestalde Abbadia-ren lore jokoetara agertzen zaigu berriz Senpertar pertsularia, Hergarai izenordearekin aurkezten dituela bi alegia : *« Bildotxa eta Otsoa »*, *« Belea eta Axeria »*, lehen saria 1873an irabaziko dutenak. Alegia horiek eta beste asko agertuko dira *« Revue des Basses-Pyrénées et des Landes »* deitu aldizkarian 1883tik 1887rako tartean.

1875ean aldiz, Utsalegi izenpeturik, Betiri Sants izeneko pertsu saio bortitza aurkezten du Ademak eta lehen saria irabazten, nahiz gero, berak dioen bezala *« gobernamenduaren eta framazonen beldurrez »* ez dioten saria emaiten (eskuizkribuan Adema-ren paperetan). Bazakien egileak, lehen aspaldi, *« Betiri Sants »*-en ohoretan pertsuak eman zituela, Larresoron, Elissamburu ikaskidearekin. Bazekikeen ere bera eta adixkidea politika-bide desberdinetan zebiltzala geroztik. Dena dela bere saioaren izenburuan hitz hauek jarri zituen Ademak : *« Betiri Sants, Lehen miseria, Orai beltzeria »*. Ukan zuen erantzuna, Elissamburuk emanik : *« Lehen eta Orai »* izenburuko olerkiarekin hain zuzen[11].

Horrengatik ondoko urtean, 1876an, zuzenean oldartzen zitzaion Adema Errepublikari, honela zioela :

« Errege, Enperadore et'Errepublika,
Xuxen, makur, nahaste, zenbat itzulika !
Ai, ai, ai mutilak ! zenbat itzulika ! »

Garaile atera zen berriz ere gure Zalduby, bainan ez ziren menturatu oraikoan ere sariaren agertzera. Handik hara ez da gehiago Zalduby hurbiltzen pertsu primaketetara eta bestalde frantses « xurien » eta « gorrien » arteko gudukari pertsu bat edo beste eskaintzen badio ere oraino —hala nola 1891eko urriaren 13an Euskal Herriko jauneria « xuri » guzia bildu zelarik Hazparneko Barrandegian— gazteago batzuei, Diharassarry eta Hiriart-Urruty apezei, Innocentius Elissamburu anaiari eta bestei uzten die sail hori. Bere hiruretan hogeita bi urteak betetzearekin Gratien Adéma apezak kalonje alkia ukaiten du Baionako katedralean, 1890eko uztailaren 10ean.

Kalonje berria Baionara etorri-eta ondoko urtean, hil-zorian gertatzen da, bere Sarako sorterrian, Jean Baptiste Elissamburu, euskaldun olerkari eta frantses errepublikazale famatua.

Berehala badoakio laguntzera Gratien apeza bere adiskide xaharra. Eta bagaude gure buruari galdeka ez ote den aspaldiko kalonje erregezalea karia horretara Elissambururen lagun errepublika-zalekin haurrindu edo berdin adiskidetu. Orduz geroz alabaina maiz ikusten dugu Zalduby-ren izena Martin Guilbeau Donibaneko mediku errepublika-zalearenarekin non nahi agertzen. Zer nahi den badirudi Euskal Herriaren aldeko politika dela hemendik hara Zalduby-ren politika bakarra. 1892an Donibane Lohitzuneko euskal-festen kariara Antonio Abbadia, *« Frantziako jakilegoaren aintzindari, euskararen iroslari (sic), sosten eta Zubernoa Abadiako jaunari »*, goreskaintzen (sic) dio *« Eskualdunak »* izeneko kantu berria. Eta ondoko urtean berriz « euskaldun besta eta biltzarretako » ontzen digu *« Gauden gu Eskualdun »* himno famatua :

« Zazpi Euskal Herriek bat egin dezagun !
Guziak beti beti gauden gu Euskaldun ! »

Bere lanarteetan Gratien Adéma kalonjeak bere eskuz biltzen ditu liburuxka ttipi apain ikusgarri batean *« Zalduby artzain beltxaren neurtitzak »,* beren apaindura eta musika propiarekin argitaratu nahi zituen bere obra profanoak. 1894an amets zeukan xede hori, 1896an oraino amets dago, zorigaitzez.

Eta gelditukо ere autorea bera hil arte : orduan agertuko dira obra gehienak, bai profanoak, bai elizakoak, ala R.I.E.B.-en ala « ESKUALDUNA » astekarian bainan musikarik gabe. Zehaztasun horiek biltzen ditugu autoreak Azkue-ri idatzitako gutunetan[12].

Azkue-ri aipatutako azken gutunak salatzen digu ere Zalduby-ren beste amets garrantzitsu bat oraino : hau da Euskal Akademia baten ametsa. Usteko

ere zuen Anton Abadiak hil aintzin utziko zuela horretarako behar zen dirua. Bainan jakitearekin Zubernoako jaunak zituen guziez ondoko egin zuela Frantziako Akademia edo Instituta, *« gure etsaia »* (sic) Baionako kalonjeak etsitu zuen alde horretatik delako Akademia euskara izatea[13]. Horra beraz nola zitezken Adéma eta Guilbeau, XX. mende honetara heltzearekin, bide berri bati lotu, euskal ortografia bakar baten xedea betetzeari. 1901eko irailaren 16an Hendaiako Herriko-Etxean bildu ziren asmu horrekin Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaltzale eta euskal idazle ezagunenak. Zorigaitzez laster hasi ziren sekulako gataskak eta ondoko urtean Hondarribiako herriko etxean, irailaren llan Zalduby eta Guilbeau-rekin gelditzen ziren lagun bakarrek sortu bazuten ere gure aspaldiko « Euskaltzaleen Biltzarra » zenbait hamarkada urte igurikatu behar zuten oraino bai euskal ortografiaren batasunak, bai euskal akademiak.

Hamar urte geroago Jean Etchepare medikuak eman zizkigun Hondarribiako bilkura famatuaren oroitzapenak eta erakutsi nola *« Mahaipurua, Zalduby xahar oboragarria, arrunt erlastua, eritua, beti bere xilintxa eskuan, hura ezin aski inarrosiz »* ari izan zen debaldetan[14].

1902ko bilkuratik landa, adixkideak oro urrundu zitzaizkola ohartzearekin Euskaltzaleen Biltzarraren buruzagigoa utzi zion Zalduby-k Arturo Campion Nafartarrari eta bera Baionako katedraleko kalostrazpietara itzuli.

Azken urtetan bazihoan halere urtero Aldudeko herrira uretara eta han dirudienez ordu luzeak eramaiten zituen solasean herriko jendearekin eta bereziki herriko mediku gaztearekin. Hau baitzen hain zuzen, 1905ez geroz, Jean Etchepare euskal idazle bikaina. Honen lekukotasunari esker Adéma xaharraren itxura badaukagu *« Buruxkak »* liburuan[15]. Daranatz historialariak eskaini digun argazki pausatuak ez digu hobeki ezagutarazten Etcheparen lumak baino[16] honela baitio :

« Guti dugu ikusi adin hartako xahar hain lirain xut gorarik, ile xuri nasai batzuek bere begitarte arrai xuhaila eztiagotzen zakotelarik oraino eta iduri gaztetzen. Jauntzitik hiritar emaiten zuen edo bederen etxeko seme handi. Ibilgunean bazuen menditarrek bakarrik daukaten halako zalu arinkeriarik gabeko zerbait. Eskuak hain eder eta gurbil zauzkan non berehala ezagun baitzen zer tresna zerabilaten eta nola. Azken bizpahiru urtetara bizkitartean adinak hurritua zakon urratsa, burua lurrerat ukurtu gabe haatik. Gaitz zerbait zintzurrari loturik erlastua ere zen, haren entzutea orozbat goxo eta bitxi baitzitzeien orori... ».

« Zer nahi bazakien —dio oraino Etcheparek— *Euskal Herriaz, Euskal Herriko ohitzez, sinesteez, jaidurez. Euskal Herriko xokoetan aditzen diren hizkuntza bereziez. Ez dut uste nehork maitatu duen Euskal Herria bihotz kartsuago batekin eta ukan fede gehiago gure etorkizunean...*[17] »

Hastetik erran dugun bezala Gratien Adema jaun kalonjea hil zelarik 1907ko abenduaren 10ean, Baionako katedralean egin zituzten elizkizunak

eta gero bere Senpereko hilerrian ehortzi zuten. Ondotik Jean Baptiste Daranatz apezpikutegiko idazkari euskaltzaleak *« Revue Internationale des Etudes Basques »* delako aldizkarian argitaratu zuen gure autorearen euskal obrari aintzin solas bezala frantsesezko artikulu bat bibliografiazko xehetasun beharrenekin. Ohartzen gara frantsesez ere bazuela Ademak zerbaitxka idatzirik eta argitaraturik, hala nola *« Erreboteko jokoaz »* eta *« Aldudeko herriaz »* bi liburuxka. Bainan oroz gainetik bazuen egunkari bat hogoita hamar urtez bederen bere eskuz idatzia zuena eta etxekoek eskutan daukatena. Ez dirudi zorigaitzez eskuzkribu hori argitaratzeko menturarik badugun behin bederen.

Beste guziak hor dauzkagu ordea eta, gure ustez, berrargitalpen bat hartze lukete beren osotasunean, erran nahi dugu beren bertsio desberdinekin eta beren musikarekin ere, ezen nehork baino hobeki Zalduby ezagutu zuen Manex Hiriart-Urruty bezalako behari argi batek, haren alde hoberenak eta ere ahultxagoak aipatu ondoan, adiarazi zigun zer langile mota izana zen gure gizona : *« Hastean josteta, gero zinez, arta handirekin apainduz, legunduz, hunki eta hunki, bere kopla ederrak, ari izan da beti, ontsa baino hobeki nahiz eskubilaturik utzi, gazte denboratik zahartzerainoko lanak »*[18]

Agian noizbait norbaitek ezarriko ditu lan horiek oro gure ikerle gazteen menean ! Hiriart-Urruty-k, Etchepare-k eta Lafitte-k lehen bezala mirets ditzagun gaur ere.

Piarres Charritton Euskaltzaina
Baionan 1985-04-10 (Mundaiz separata N°29 zb)

---

[1] Euskera, Bilbao, 1957, 338.
[2] P. Haristoy, « Recherches Historiques sur le Pays Basque », II, 273-282.
[3] P. Haristoy, op. cit. 292.
[4] Ariel, Bayonne, 10-8-1945.
[5] Ch. Bernadou, « Azpeitia », « Les Fêtes Basques de 1893 », Bayonne, 1894, 72-73.
[6] J.Hiriart-Urruty, « Mintzaira, Aurpegia, Gizon », Jakin Oñati, 1971, 163.
[7] J. Hiriart-Urruty, « Euskaltzain sartzeko mintzaldia », Euskera, 1977-2, 340.
[8] J. Etchepare « Beribilez », Baiona, 1931, 9.
[9] « Zalduby Artzain Beltxaren neurtitzak », eskuizkribua, 3.
[10] G. Lacombe-k horretaz egiten duen komentarioa : « Vasconiana, Quelques variantes du Xuriko de G. Adéma », Eskualduna, n.° 1147 & 1172, 2-IV-1909 & 24-IX-1909.
[11] A. M. Labayen, « Elizanburu, bere bizitza ta lanak », Auñamendi, Donostia, 1978, 215.
[12] Euskera, 1957, Azkue-ren gutundegian 78. gutuna, 1-IV-1894 eta 79., 22-VIII-1896 ; R.I.E.B. eta Eskualduna, 1908-1909.
[13] Euskera 1957, 336-337.
[14] P. Charritton « Jean Etchepare medikuaren idazlanak » I, Elkar Donostia, 1984, 33.
[15] J. Etchepare, « Buruxkak », 3. argitalpena, Elkar, 1980, 149-152.
[16] J.-B. Daranatz « Curiosités du Pays Basque » I, Bayonne, 1927, 168-172.
[17] op. cit. 150.
[18] J. Hiriart-Urruty, op. cit., 164.

BILDUMAGILEAREN BIZPAHIRU OHARPEN

Bai, kasik ezin sinetsia da : 2006ko udan, atsegin ezin erranezkoa izan genuen, Dominique Dufau Senpereko notario ohiaren idazkietan kontratu harrigarri batzuk aurkitzearekin : alabaina, notario lan ofizialak frantsesez eta euskaraz paratuak zituen, bi hizkuntzeri emanik toki eta garrantzia ber-bera ! Dokumentu horiek, adituek historikotzat dauzkate...

Eta hona non, urte bereko udazkenean, doi-doia gure notarioaren lan baliosak inprimeriarat igorriak genituela, Gratien Adema Zaldubiren eskuizkribuak altzorat erortzen zaizkigun Pierrette Dourisboure adiskidearen eskutik ! Ez baitira lan hauek bertze harenak baino gutiagokoak ! Alabaina, 19. mendeko idazle eta kantugile hoberenetarik izana da gure kalonje senpertarra !

« G. Adema » izenpetzen ditu elizako kantikak ; bertze gisakoak aldiz gehienki « Zaldubi » berak hautatu izenordeaz. Haren kantu herrikoietan hor dugu, bertzeak bertze, hain ezaguna den **Zazpi Euskal-herriek bat egin dezagun.** Elizakoetan berriz, **Oi Gurutzea, Amodio Ohore, Adora dezagun**, oraino ere elizkizunetan ematen ditugunak...

Senpertar handienarentzat daukagun honen bizia eta obra larrienak aipatzen dizkigute adituek liburuaren lehen orrialdeetan. Hemen publikatzen ditugun prediku hauek ordea, ez dira nehoiz jendarterat zabalduak izan eta beraz Ademaren mintzaldietarako jeinua ezagutzeko parada bikaina dukezu, irakurle, **« Saindu batzuen bizia »** eskuartean duzun liburu honekin.

Zer gehitu jadanik idatzien gainerat ? Deus guti : errepikatu bakarrik !

Predikari handia, boz ederra, musika ezagutzen, hots, fede eta kultura handiko apeza zela eta hortik abiatzen dela haren obra guzia. Haren (eta Elizaren orduko) irizpide batzuk aldatu dira, eiki, geroztik, bertze edozein alorretan gertatu den bezalaxe. Dena den, guziek miresten ahal ditugu Ademaren izkirionea eta kaligrafia. Baina ikusten ahal bazenituzte eskuizkribu haiek hain ederki berak josiak : prediku bezainbat liburuxka !

Miatu ditugu haren **mila orrialdez goiti** eta denak berdin onak ! Zinez, holako euskarazko eskuizkriburik ez da maiz aurkitzen : hainbertze orrialde

eta denak hain garbiki ezarriak ! Euskarazko lan horiei eman artak erakusten digu gure hizkuntzaren alderako estimu eta maitasun bat neurrigabea : deus ez zaio sobera euskarari emateko eginahalako distira eta indarra ! Bai zinez holako dokumentuen eskuratzea eta haietaz goza-gozatzea, bizian behin bakarrik gertatzen dena dateke. Oroit, bertzalde, ohituren eta bereziki pilotaren sustengatzaile sutsua ere izan dela bidenabar.

Ezin gehiago goresgarria zaigu beraz herritar hau, berdin trebe delarik elizako lanetan nola elizatik kanpokoetan. Orain, lan horiek guziak publikatu nahi genituzke, zazpi liburukitan. Hona zein liratekeen, ordena eta izenburu behin-behinekoetan :

1/7 : **Saindu batzuen biziaz** (eskuartean duzuna) ;
2/7 : **Zaldubi artzain beltxaren neurtitzak** ;
3/7 : **Kantikak** ;
4/7 : **Prediku zenbait** ;
5/7 : **Prediku zenbait** ;
6/7 : **Alegiak eta bertze neurtitzak** ;
7/7 : **Gaineratikoak.**

Lan hau ez da edizio arakatzaile edo aztertzaile bat. Xehetasun labur batzuk ematen ditugu bakarrik, han-hemenka, nor edo nor lagun dezaketelakoan.

Hizkuntzari dagokionez erran dezagun « lapurtera » deitzen den euskalkiari atxikitzen zaiola hemen Adema, nahiz hitz batzuk hartzen dituen bertzerenetan, Hegoaldeko zenbait barne. Guk ez dugu deusik asmatu, ohargabekeriaz ez bada ; erantsi ditugunak makoen [...] artean daude. Hots, lan hauetan barna —eta orhoit zazpi liburuki izanen direla orotarat— aurkitu dugularik hitz bat hobeagotzat daukagun forma batean (batasunari buruz doalakotz) hura hautatu dugu eta liburu osoan jarri. Ikerleak, jatorrizko formak ikasi nahi izanez gero, hor ditu faksimileak, denak begi hutsez irakurgarriak... Forma desberdin batzuk, haatik, hala-hala utzi ditugu, adibidez : **zein** eta **zoin**, haien berdintzeak, lana itxuralda zezaketelakoan...

Ademak, hitz batzuk beti berdin erabiltzen ditu, behin ere hutsegin gabe ; haietan : **gare, zarezte, dire,** eta holako anitz ; ez dugu-eta aurkitu, ez **gira, zirezte, dira** bezalako formarik. Ohargarria dena ere **natzaitzue** (izan, indikatiboa), **nazazu** (ezan, inperatiboa), bezalako formak zein ederki darabiltzan.

Horiek hola, aitortu beharrean gaude haatik, **izaiten** atzeman dugula beti, Senperen **izaten** erraten dugularik ; ikusiz Ademak forma hori zer erregulartasunarekin erabili duen, ikusiz bertzalde badaudela gisa bereko hauek ere :

—**eremaiten** (Bixintxo [17]),
—**juaiten** (Batista [5]),
—**jasaiten** (Zipriano [19]), izaiten-ek erakutsi bideari jarraiki gatzaizkio.

Bertze hitz batzuk berriz desberdinki erabiltzen ditu (**gaiten** nola **gaitezen)** gure ustez adiera ñabardurarik sentiarazteko gogorik gabe eta, lan honetan literario alor zabalean sartu beharrez ari izan garenaz gero, hautu batzuk, keinu batzuk, egin dira batuari buruz. Subjuntiboetan gaudelarik :

—**diezon** (Adredena Maria [23]),
—**diezagutela** (Zipriano [15]),
—**dietzagun** (Zipriano [2]) aurkitu ditugu ; ondorioz *dezoten* bihurtu dugu **diezoten**, euskara batuko **dieza-** erroari hurbiltzeko, doi bat bederen.

Bide beretik joan gara bertze hitz hauekin ere :

—**daiteke,** *diteke*-ren orde (Bixintxo [20], Batista [6] [19]);
—**gaitezen,** *gaiten*-en orde (Batista [19]);
—**erakusten,** *irakusten*-en orde (Batista [15]);
—**nehork,** nihork-en orde (Bixintxo [16]);
—**dautzut,** anitz bada Ademaren lanetan eta hortakotz, *darotzut* eta *derautzut* delakoak forma horrekin ordaindu ditugu ; **dau-** aditz erro hori euskara batuan **di-** dela oroitarazten dugularik.

—**ke** artizkia : **-keen** eta –**keela** bihurtu dugu, *-ken* eta –*kela*-ren orde ; ikus **zezokeena**, Andredena Maria [14]; **zukeela,** Petri [6] [11], Batista [10]. Hor ere, bistan dena, batasunari buruz joateagatik.

—**ra(t)** atzizkiarekin lanak izan ditugu ezin hautatuz, bi formak erabiltzen baitzituen, iduriz hiztegietako ñabardurarik adierazi gabe : BaionaRA doa (joan-etorria) eta BaionaRAT doa (han egoteko).

Azkenean –**rat** ezarri dugu denetan, gure aitzinean mintzatu diren Iparraldeko adituak ere hala baitabiltza, gehienki. Erran dezakegu naski forma hori mugaz honaindiko ezaugarri bat dela, Euskaltzaindiko hiztegian ere aurkitzen duguna haatik (**nehoRAT,** 671.orr.) euskara baturako ere onartua.

Grafia kontuetan kontsonante ondoko *H* gehienak kendu ditugu ; *R* batzuen ondotikako zenbait utzi ditugu haatik Iparraldeko ahoskeraren lekuko eta *CH*-ren orde **X** ezarri dugu.

—**P** eta **B**-ren aitzinean **N** : *dembora* > **denbora...**

—**TS**-ren soinua *X*-rekin adierazten baitzuen gaurkotu dugu : *eXaia*-ren orde **etsaia** emanez.

Bertzalde, aditz barneko : *-agoka-* bihurtu dugu **-auka-** hola agertzen baitzaigu batzuetan :

—**naukala** (Bixintxo [18]);
—**daukatenak** (Petri [1]);

—**daukana** (Petri [15]); geroxeago argitaratuko diren lanetan **(Alegiak eta bertze neurtitzak)** ikusiko duzue berak ezarririk « dauka » andana bat.

Bertze bi hauen artean ere zaila izan da hautu baten egitea : **baizik** eta **baizen,** biak agertzen baitzaizkigu eta ez baitu iduri erran-nahiaren aldetik ñabardurarik badagoela. Lehena jarri dugu gaurkoagoa delakotz. Horiek guziak errotik sakondu nahi dituenak jo beza faksimileetarat.

Erran dena, hitz batzuentzat, ohar bat ematen dugu, euskararen ikasten ari direnen lagungarri ; adibidez, **ilki-**ren indar bertsukoak direla **jalgi** edo **atera(tu)** jakinarazteko.

Berdin egin dugu izenorde batzuekin (**zeroni, zeronek**...) eta bertze hitz andana batekin ere. Oro har, uste dugu, haatik, guzien gozamenerako hizkuntza zabala erabili duela Ademak, bere bihotzaren araberakoa, Euskal Herri guzia besarkatzen baitzuen...

Ohore handia da senpertarrentzat, holako langileak (Dufau, Adema...) Euskal Herriari eman izana. Bata bertzearen ondotik, indartsu azaltzen zaizkigu aurten, iduri bailuke elkar aditu dutela bazterren hobeki inarrosteko ! Egoitzak elkarren ondoan baitituzte orain, bizian ere auzo zirelarik funtsean... Biak, Zazpi Lurraldeen geroaz kezkatuak eta halere baikor geroari buruz ! Jakinen ote dugu gizon horien lan ederren eta gogoaren behar den bezala ospatzen, haien oroitzapenetik probetxu bat ateratzen gure mintzaira aberatsaren alde ?

Euskara eskoletan eta gau-eskoletan gero eta gehiago irakasten da baina euskara batu horrek badu, Iparraldean behintzat, lekuan lekukotzearen beharra eta Ademaren lanek lagun gaitzakete eginkizun horretan. Hots, lehengoek utzi dizkiguten lekukotasun goresgarri horiek pitz diezagutela fede eta borondate, Lurraldeetako ahal desberdinak kontutan hartuz, eta beraz urrats desberdinez, gelditzen zaigun bide luzean, indarrak elkartuz joateko, euskara hizkuntza ezagutua eta mintzatua izan dadin Euskal Herri osoan !

2007-09-29. **Henri Duhau**

Zein herritako patroinak diren, Iparraldean	Besta eguna noiz	Eskuizkribuko orrialdearen neurria (zm)
Jondoni Bixintxo : Beskoitze, Hendaia, Uztaritze, Ziburu...[1]	01-22	14 x 9
Jondoni (Joanes) Batista : Arrangoitze, Domintxaine, Donibane Garazi, Donibane Lohizune, Hazparne, Iholdi, Irisarri, Larraiñe, Maule...	06-24	19 x 13
Jondoni Petri : Aiherra, Donazaharre, Hiriburu, Senpere.	06-29	18 x 12
Jondoni Juliano : Ortzaize...	08-02	12 x 8,7
Andredena Maria : Ainhoa, Aldude, Ahurti, Armendaritze, Arnegi, Azkaine, Bardoze, Baiona (Katedrala), Bidarte, Heleta, Urepele...	08-15	18 x 12
Jondoni Zipriano : Lekorne...	09-16	17 x 11
Jondoni Martine : Ahetze, Akamarre, Arrosa, Biriatu, Donamartiri, Miaritze (St-Martin), Sara...	11-11	17 x 12
«Que soy era Immaculada Counceptiou »	12-08	17 x 11
Santa Luzia : Atharratze...	12-13	13 x 8,5
Jondoni Eztebe : Baigorri, Donoztiri, Ezpeleta, Makea, Urketa, Zalgize...	12-26	14 x 10

[1] Urruñan ere Bixintxo ohoratzen dute baina ez hau Landesetako Saint-Vincent de Paul baizik.

Aspaldiko ohitura : « Jondoni » deitzen ditugu Iparraldean saindu « handienak » eta « zaharrenak », naski (?). Bertzeri « San » : San Frantses Xabierekoa, San Iñazio Loiolakoa, San Mixel Garikoitz...

I I

Gratien ADEMA « Zaldubi »ren
predikuak
saindu
batzuen
biziaz

Jondoni Bichintcho,

diacre martirax.

Hac est victoria quæ vincit mundum, fides nostra.
Hau da bitoria munduaz garhaitzen duena, gure fedea.
(Jos. Joannem Ep. 1.ª Cap. 5.)

Demborac hain goiberi, bastera chain hiz
eta cer? hemen ere bitoriaz aitzhen!.. Nor ez
ohe da ezezic ecarrico bat? Ez segur. Baiman
hor, Guiriztinoac, bihotz eori hautien nora.
peit altharazteco; hor! munduaz desolacionezi
hobetsi ihardoitzeco; hor! munduaz huntaz ho.
bechagoric ez badeta gurutzat orhoitzeco; hor,
beraz oraino erbeil bagarela gogoari ema
maitzeco, on da bai, harat, goiti, goiti behe
desagun!; on dugu hemengo lexamenduen
ezpizat erulicaco haica altzi bat. Ezdeasen
ezhu bat... Fedea! fedea!; cer gauza izena!
cer arguia! cer sua! eta cer ezpatarra!

Bai eguen dezazait, Jondoni Bichintcho,
eamolutzat harluz, zuri aiphatua fede
horren balentria eta bitoria handi bat....
Ez da oraicoa. Eguin hain chuchen eguiten di
tu, mila berle chun eta hiruchogeita zazpi urthe

Bichintcho artirac, bere fedez eta bere heroicuez apart equinoacci cisela munduhuntaco uchanteia ingarri baten urgulu-ri. B ra zazue hunat, Demberac noizbeit ero ſ eten, ahantzaiten eta ezezlaten dilu-ti uni Deus ez dio Ahendu. Dembora bera eta. Jondoni Bichintchoren biloriac, eta haren famac, edergailu eta berritzailer.

Egun, Saindu horren laudoriac, ez dire chcilki hemen. Elizaccolico guccia, mem-Du gucian hedatua denaſzuen pradoin lo-ricsaren laudatzen eta choratzen ari da egun San Agustin hantcia ez cen naski ido zoin. Hura cen huna aditcaroa. Bichintcho mar-tiraren berriac barraiatu citzenean berac bere thalendu miragarriarekin, munduco barter guciclara.

Citzan, Dio S. Agustin harc berac, marti-ren bestaren ciera celebratcea da hiru berthu-ren imitatcea. Celebratio solemnitatis martyrum imitatio debet esse virtutum. Ez dagaile marti-baten choredan besta egitea, handi da ordean horen fidezaren eta pairaccotasunaren imita-tcea. Tantum est honorem Martyris celebrare, magnum est fidem atque patientiam imitari. Horra nic ez egun Guirichlinoac ecitara nahi zaituztedan lehiaraci. Hoc sic agamus ut illud optemus. Hoc martyrum sanguinis lagun gaitzatzu.

I.

Jondoni Bichintcho sorthu cen Espainia Ithescan. Hiri horren ion escuara hortaric erran ditzte lehi hura Tomboras Escualherri ican dela... Jondoni Bichintchoren Tomboran pressuki Espania altheidico Escalherria orai baino urrunago hedatzen ciran, eta egungo eguneanere Ithesca hauze dute.

Bichintchoren aita Erromako consul baten semecen: ama berrita. Tiolenax combitec, Jondoni Laurendiren arreba. anaia martirhil ciotenean naski Espainarat ihes ethorria.

Bichintcho haurretic guirichtino bda cen Ecolen hartzen urthetaric seguric eman zuten Balerio Saragozako aphezpicu saindoaren guidaren azpian. Aphezpicu horrec lastoman cion Bichintchori bere begui colpea; Minac emaiten cion baino guchiagoc ezen berthute eta antze suerte guziez... Balerio saindueno, bere oituretz ihahartua eta casi cintua izanez. lehen bai lehen, ebanjeliaz oitenaldu zuen, eta handic gozti aphezpicuaren partez bethi Bichintcho Tiarrax zuen predicatzen.. Bichintcho gaztac bai bere exemplucz bai bere hitz sulbagarriez, itzum argitzen, sustatzen, consolatzen hango arima guciac. Ille erat lumna ardens et lucens.

Gaste eta Saindu: Saindu eta beteen Saindutzaile!.. Hori da hori der! hori da miragarri! hori da lehen berala erai ere choragarri. Bai orai ere herri batean ere zaitzue Derragoric; eta gue ere hunetaco aitzainec, gure eguin ahalen gainera, gure cin eguinaren lagunteco ere Jesu Jaincoaren graciaren ondotic, gaste saindu batzuen exemplua beralaoric?

Gartzasuna, lurreco zohaina! Berthutea ceruco zohaina! Eta horice biec betan, biu elgarretin ere eguiten daucute?. Jinguerue but incarna balitz Sto S. Agustinec, ez, ez laitzke hoinbertez!. O Gartzac bacinakite gucice ere ten, prestu, garbi, saindu izaitea! Oh! nahi bacinute! Oh! balia bacintzate izaiten dituztuen graciez Jondoni Bichintcha berala!

Ordean, erranon daustazue, cer ere saindu izaitea Jondoni Bichintchorentzberan. Hala hala oraico munduan lanac dituzu munduco lausenguri eta usaiari ihadoki-tzea... Eta nic berritz ihardesten daustazut ô gartzac, ô zaharrac, ortzian presestli situala lanac, quirichtino izaitzac berac! Cer mintzo zarezte oraico munduaren lausenguez, usaiez, enganioez? Cer dire horice ortzuco leguem eta cigarretherien aldean?.

Cer demborac! Jondoni Bichintchorn
dembora hec! Craicoez badugu erraitecc?
Orduan can orduan jende quirichlinoa cinez
urricallecco!

Behinic behin Pagaretasuna cen eruino
munitu huntan nausi. Errenacc konuan
gaineliz harc manatzen zuen munitu guci-
ari. Ore haren moneco, ore haren esclabo;
Baster guciac harc ikharan alchitiltzen
ela charlua numbeitic alhiratzen ari zaiola
partida bat, gutien ustean, biciric ustenbidu
gaichentzera Tchacona; ela jatiin partida
hori quirichlinotasuna Durla, ela icusten
quirichlino leguc horrec tiaba suerte gu-
cien artetic baster guciac bertsonari ditzala!
Thenna beraz pagaretasun betkhaizti hori
cer haquinean Pagen quirichlinoentzat.....

Hala hala, bai leguciac bai imperatzerac,
hala batez munitu huntan enbeit irdar ere
petore zuten guciac, quirichlinen contra
cirin, munditic heien arraza heien izena
bera, Khasaliec ela arrunt caestaliec zuten
Quirichlinen entasunac bahituac, berac
hillerra condenatzeac cirin.

Ireni ibili naiz, ene ahizaile maitac,
hec lurrean eguinac ezluzten garde lekhu
jamalu hitan. Zarat billcen cirin berri
michlirien celebratzera, han preparatzen

ciren beun fedearen tribunaletan hallo-ki
aguertcerat, eta ez nahi tormenten edian
guero berm biziaren emaiterat; han chozz-
ten, ido hobetki erraitteco altchatzen situaten
beun hilac. Ez arri cintzhile bacinatzile
ez tchiac tiren lurpe hec.

Beltzatte oraino nerorac icusi ditut,
lehen mende helaco quirichtinoac preso
atchikitzen situzten cepho itharagarri
hec. Icusi ditut plaza batzu gure erobo-
ten manerrauceac quirichtinoen ódolarem
ichuntzen icusteco equinac. Behargoitco
jar lekhuac asentu equinac mailea mailea
Doaci harritcerra eta cuin gora. Jar lekhu he-
kien azpian tiri chela batzu ezartzen bai-
tzagozcaten bertutan alemanicaco asco
baie abre suerte. lehain, tigre, hautz, eze
eta holaco haricetarie. Batzutan batkhara
bertutan chunca quirichtinoac hilucirie
preso pharatzen situzten erdico pluzaren
barnean. Jente guccia jar lekhuetarie oi-
hua abialzen cen: « Ttec, ttec, basabrem
gutzac. » — « Christiani ad bestias! Christiani
ad bestias! » Ordüan basabreac lachatzen
situzten quirichtinoetarat, eta bicirie hun
janarazten ezcerazten ido ussac balinbacirem
pushatzen bidera emanarazten. Quirichtino-
en gostur holaxeac ciren paganoen jostalac.

[6]

Cur.? eta haiere Guirichtineac izaiki?
Bai, bai, eta gueroago eta geichingo izaiki.
Zeien dol ichuri hura cen, eraguiten zuen
haci baten pare. Bihi bat lurrera beta eta
chun hare berac ithar. Sanguis martyrum
semen christianorum... Ori, huma hetarie
batez behin cer eraten cion empuradoreari.
« Gu guirichtineac hain abialtu buriac gare,
« eta ja bethetzen ditugu zuen hiriac, huriac
« plazaez, carrieac, etcheac, zure haumatac
« berac. Ez zaux kilatuegu urten zuen jaincoa
« alegiazcoen temploac baicic. Gu bichtatic
« norapeit gan baguinte, ordinan ici ichtecke
« ceróni ichusia zuin hua eta murrite gueldi
« litzeken bazterac »

Zeri zait bada hori Zer, hainbertze traba
hainbertze debacu hainbertze masacreen
artetic ifiditun heien emendatze hori.. Zala
hala, gu, oraico guirichtino hauc flacatuz
gutitzez guaite hau, hau ez zait ehore
zugula. Gu, oraino seguric, zuen traba hauetic
Zeric gabe libro garenac gure religionearen
praticatzeat, galdetzen daroztzut, cer ari
gare? Combat errechtasun, lausengu, maina
eta phurrea ez dugu behar gure guirichtino
tasun huntan chutic bedere nolazpait egoteco.

Aurrera huntan ere nahiren hastapenac
mendre izaten dire. Oldean presentki nahi
ludiela; gauza guciac, lanitzche arteraino
seguric, ahalic gutiena minhartu.

Orren beha zaruc hunat. Gulbarion
heriotzeki hasric, eta seguidan hiru ehun
urthez, guirichtinstasunari, atze guciauc
purrustan ottola dario. Nihun ez dute utci
nahi finratcerat, nihun ez du harentzat
tabario baicen. Bere azaitze bere jitez,
jentearen naturalezarentzat asti late, eta
asti luzagari ez balitz bezala, cer nahi
asmatzen eta eguiten diote eziganri bilha-
carateco, berari, possible balitz, ultho
eguinaraateco. Gaicho arthatzea! Fusillus
gua. Beraz nola chartzek dire? Nola iraun
dezake? Cer indar eguin diote bildox gai-
cho horiec hoinbertze ozoki burue?.. Syni
intzu lugus!... Zagozte, zagozte! Hara han
Jond. Ichtebe bat Jerusalemen. Hona hor
Jond. Laurendi bat Romaan. Hona hemen
berritz gure Jontoni Bichintcho... Ibhera
bitz halaco, eta nic ermanen dautzut nere
eman beharco duen amor. Horiec ez seguric.

Urunago gan gabe, idurtcen zait, galde
bat eguin nahi dautazuela hemen.!....

Cer?... Guerichtinen leguea guizonaren
chuchen gobernaraztera, jendea jendearekin
batean, arnotzean biciaraztera. Legue bat hain
pare gabea izaiki. Cer? lehen mendo hetako
guerichtinak berariki, hain santuak, hain
perfeta izaiki, eta ortan bada naganaer ez
ezteusten itsusi naki?... Ah ene ditzale maitea!
Jesukristoren legue horrek hainbeste erai ederra
baina, nire iruzkiz gaucetan ez naturalena zait,
ezagutzeak gueroz munduanen naturaleza...

Usta tuzue nagano zembera hetan ikeda
batharriz gure ebisionari guerla egustea
arrozinak?... Berdinau ta erai ere: eten erai
ere munduano naturaleza bera tu, Guizonen
izaeritzea erai ere iguzari nekhez behatzen ta.
Gure biholzak erai ere nasione eta familia berez
titu, bertzin erai ere, mathurrak, guerlariak
eta biciorak ekharria ta.

Areen guerichtino legue hori ez ta zergorphuz.
Bain, ez gatik eguen ile alde, nhirezatzen...
Zaltz zaiku, garratz zaiku, bethi eta bethi
gure naturalezaren gostuzi ukho eguitea.
Di quis vult venire post me, abneget semetipsum.

Cembat ohoin erai ere munduan? cembat
lohi, cembat urgulutsu, cembat gormant eta
haidi, cembat aller eta baro; cembat biholz

beldurric gabe erran deçaguegu eguia bera
denac erran içan duena. Nihor ez dela
guiçonen artean eguindaino aguertu Jondoni
Batichta beçalacoric. Non surrexit inter natos
mulierum major Joanne Baptista! Bizquitar
tean bada ez natçaitcue hemen mintçe
Saindu handi horrec eraiec eremaan ceruan
duen handitasunaz, bainan choilqui,
bere amaren sabelean çagoelaric eta bere
sorthu berri berri harlan Jaincoaren
beguiclan bertan çuen handitasunaz.

[15]

Nungo haurraren sortzean eguindaino
icusi ethe da heinbertze gauça espantagarri?
Ald'guciteric ez çaiou aguri miracuilurie
baicen: eta urnahi guerthadadin, orotan
çaguri da Jaincoaren bethiterniagarria,
orotan seinale da bethore eta amodio
mugarie gabeco baten arrastoa.

Nungo haurraren sortzean eguindaino
icusi ethe da helace bozcariorie?... Bai
badaguit haur baten sortzea berenaz ere
aazguin eguiten duen gauça bat dela....
Bainan aazguin honec baditu bethi bere
mugarriac eta ez da hedatcen ahaideac eta
çagunac dagoen lekhutic hambat urruna-
gô; berenaz ere jendeac casu guti eguiten
ohi du bere intresa eta bere amodioa hun-
guiteen ez dion guerthacari bati.

Zakharias eta Elizabeth, Jondoni
Batichtaren aitaamac ez ciem bada baitez-
bada nihor ez beçalaco jende aiphatu eta
çaguti balçu. Heien egoitza mendi batzuen
artean gordea beçala çagon, Baguean eta
ichillasunean ciren elgarreguin bici eta
nihor ez cen hiclaz casic baciren elz ere
mintzo.

[16]

Bizguitartean horra nun dion aingue-
ruac, hoien haurraren sortzeaz hainitzac
eta hainitzac bozcariatuco direla, Et multi
in nativitate ejus gaudebunt. Cer galdé bada
bozcario handi heri çeina hedatcen baita
ichtant baloz ensuma bazter batetic
bertzera?

Ceren eta haur horren munduhuntarat
aguertzea baitzen salbamenduzco seinale bat
nere nahiez eçagutu eta aaeguinequin
iousi behar çuena. Ceren eta Zumbera
helace guçonere aguertu eitçaiotenan
argi alba ederhori, phentsatu baitçuten
guciac aspaldi aguindua eitçaioten iguzki
distiant hura ez bidecela urrun. Ceren
eta Jondoni Batichtaren biri aspanta-
garriac eta saintutasun pare gabeccac
hainbertze arima galtzera çohatzenac,
eguiazco biciaren bidérat. Jesus Jaunco
guiçon eguinaren bidérat behar batei-
tuen itçularaci.

Bai sortze miragarria! ez balkhario
guiconen arabera, bainan eraino ain-
guruen beren arabera! Sortze miracui-
luzcoa eta bozcariagarria! ez balkhario

quiçonen beguietan bainan eraino cerue
miracuilu eta bozarioen erdian bici
ziren beguietan.

Arroçinequin beraz Elisa ama saindua
egun hau berta egun gucien artean berri
içan du: Sallatçailearen eta Andre dona
Mariaren sortzeco eguna c berri içan dituen
beçala. Aingueuaren eranac bideac eta
bideac eguin ditu, eceu duela hemeretzi eban
urtho inguru Judeac cokho batelic
atheraricaco bozario hura bera; hainberteo
munde huntan egundaino becein berri eta
egundaino becein eder munduaren baztor
guietarat hedatua dago.

Bai çuec ere Gurichtino maitteac, egun
lehia saindu batequin bilduçarezte Jondoni
Batichtaren choratzerat! Oi ceinder den
aldare hauquien ceinetan çuen icustea, çuen
entçutea. Saindu handi horren medioz
Jainsoac quiçonen gainorat ichuri dituen
fagore eta gracia guciez esquerren bihurtzen!
Bai egun hau Gurichtino guciontzat içan
behar da alegrantziazco egun bat. bainan
berciqui berri eder huntacc arima Jaincs-
tiarentçat: ecen Jondoni Batichta çuen

patrointçat hautatu duquenaz guerez, manna
borsci baloz ekharria ceri enqui sucteguicen
eguitna, eta haren amodioac cuentçat badu
bertce guirichtino guciintçat baino erbait
guehiago. Eg da cuentçat bakharric adichkide
bat, bainan oraino anaia bat, aita bat onta-
suna bera dena, itsutuqui maite çuiluzten
aita bat. Beraz cuin gogotic cuin khartsuqui,
eta cer fidantçiareguin ez dioçue galdetcen
ahal içandecan çuetaz aita on batec beru
umez ican behar duen artha. Bertcenaz ere
cuiten duque ceronec combatutarainocoa
daitequen Jaincoaren aintzinean haren
~~aurr~~ alderaco arantzecotasunaren bethera.
Bainan erhoit gaitecen alferretan galdegui-
nen diogula lagunça eta fagore, baldinhan
saindutasunari escarnio eguiten badiguta
haren gure ganaco amodioa hotcarazten
badugu bekhaluzco bidutan Jaunaren legua.
ari ihes erabiliz.

Eg da gure artean nihor: Guirichtinoac
ifernuco sulameri escapatceco eta dohatsuan
egoitca ador hartara heltceco gucia ez duenic.
Ordean maiz eta maiz munduhuntaco ez-
deusguerion eta enganion ordian çoratüac

eta eubelatuac gabillça. Jondoni Batichta
hac decagun lagun eta guidari, ibil gaitean
hura erabili den bide beretic, harmuraari
jarraiquiz ez da guretzat ez hirriscuric ez
ez ilhumpenic ez çoramenduric ez galtzeric.

Bai lastor gure munduhuntaco harat
hunat guciac içanen dute akhabantça bat,
eta hemendic lekhora aguertu behar gare
Jaincoaren ainteinean. Oi Othoi Saindu
hauei, oren lazgarri hartan çato gure lagun
eta berce viduz Judeaco populua Jainsun
ainteinerat bidaldu cituen beçala, presenta
gaitzatzu coronac juje soberano hari eta
muntça çaizco gure alde, amorea galtic eta
cureguin batean goçagaitean cruco
çoionaz, eta cureguin batean eternitatean
triaune, lauda maita eta adora dçagun
Aita, Semea, eta Izpiritu Saindua.

Hala biz.

ad majorem
dei Gloriam.

[20]

[JONDONI JOANES BATISTA]
(Hazparnen egin lehen predikua, 1854an)

Et multi in nativitate ejus gaudebunt.
Eta ainitzak haren sortzeaz bozkariatuko dire...
(Hitz hauk hartuak ditut San Luk ebanjelistaren lehenbiziko kap.)

Ez dakit, girixtinoak, nor ez litekeen bihotzaren zolaraino hunkitua izan eliza hunek orai begien aintzinean ezartzen dautan ikustapen eder huntaz.

Zerk hunela inarrosi ditu herri handi huntako bazterrak eta jende oste hau guzia leku berezi huntarat bilarazi ? Zer gertatu zaio bada populu huni ; ezen ahantzirik desterru huntako nigarrak ez daut egun adiarazten bozkariozko eta alegrantziazko kantikarik baizik. Lurreko erresuma eta aberastasun guzien jabe litekeen printze bat, bere eskuak, bere besoak, bere bihotza zabalik heldu balitzaitzue zuen arterat, bere boterearen seinale guziekin, zer egin zinirokete[1] gehiagokorik ?

Girixtinorik egundaino ikusi ez duen pagano bat gerta baladi uste gabetan hemen sartzerat, zoratua geldi liteke, ez lakike zer erran, ez lakike zer pentsa.

Bainan huna nun fedearen argiak erakusten dauzkidan gizonaz eta lurreko puxantzia guziez ainitz gorago diren izaite miragarri batzu, heiek ere zuen arterat jautsiak, egun zuekin baltsan[2] aurkitzea bertze zeru bat balitzaiote bezala ; ezen huna nun zuen bozkarioak aingeruen bozkarioarekin bat egiten duen, huna nun zuen alegrantzia kausitzen dudan dohatsuen alegrantziaren iduriko.

Ez dut beraz zeren lur hunen gainean bilatu egun hainbertze lehiarekin guziek ohoratzen duzuena. Badakit erregeen etxeetan badirela puxantzia, edergailu eta aisia guzien erdian igeri bizi direnak. *Ecce qui mollibus vestiuntur in domibus regum sunt...* Begotz[3] ordean, begotz orai beren gisa handitasun iragankor horiek. Altxa, altxa gure begiak, altxa gure bihotzak mundu hunetarik eta mundu hunen enganioetarik gorago. Sar gaitezen, izpirituz, dohatsuen egoitza distirant hartan : han han dire egiazko handitasunak,

egiazko atseginak. Han Jainko batek berak erakusten dauku bereganik eta zeruko erreginarenganik, bertze saindu guziak baino hurbilago jarria herri huntako patroin loriosa ; ezen Jesukristo gure Jaunaren erranaren arabera ez da egundaino gizonen artean agertu Jondoni [Joanes] Batista : baino handiagorik. *Non surrexit inter natos mulierum major Joanne Baptista.*

Bai, girixtino maiteak, Saindu gisa guziz handi eta miragarri agertu den hortaz behar natzaitzue beraz mintzatu. Aitortzen dut erran behar nituzkeenak ene ahalez goragokoak direla... eta erran netzazkeenen gainean ere ez naiz nahi nukeen bezain trebe. Beraz eneganik, lehenbiziko aldikotz Jainkoaren minixtro gisa mintzo den batenganik igurikitzen ahal duzuena arras gauza gutia eta ezdeusa da. Jainkoak ikusten du zenbatetarainokoan naizen haren laguntzaren beharretan ; zuek aldiz, aditzaile maiteak, agian[4] onetsiko edo bederen barkatuko ahal dautazue zuen bihotz onaren eta zuen fagore urrikalmendutsuaren gainean dudan fidantzia !

Bainan hasi baino lehen, ahuspez[5] aldare horren gainean adora dezagun Jondoni Batistak bere denborako jendeeri ezagutarazi ziotena, zioelarik : « Huna Jainkoaren Bildotsa, huna munduaren bekatuak garbitzen dituena.» Guk berriz egungo egun hunekin erran dezakegu : « Huna Jesusen Bihotza, huna gu hainbertze maitatu eta hainbertze maite gaituena.»

Otoi, Bihotz Sakratua, zure amodioaren suaz berri zatzu gure bihotzak eta argi gure adimenduak. Eta zuk, besta hau lehenbizikorik zelebratu zinuena, Birjina Maria, benedika gaitzatzu Zakarias eta Elixabet beren haurrarekin benedikatu zinituen bezala... Bai bihotzaren erditik eta goraki erranen dautzugu guk ere Jondoni Batistaren amak erraiten zautzuna : Benedikatua zare emazte guzien artean eta benedikatua da zure sabeleko fruitua.

Ave Maria...

Badakizue, girixtinoak, bertze zein-nahi[6] sainduren besta eguna, haren hil eguneko urte betetzeari zaiola eratxikitzen ; eta dohatsu baten heriotzeaz orhoitarazten gaituen eguna bozkariozko egun bat izaiten dela. Bai hala behar ere ; ezen girixtino on baten lur huntarik joaitea ez da baitezpada egiazko heriotze bat eta ez dakarke berekin ez dolurik ez nigarrik ; bainan hura da nahigabe eta neke guzien akabantza, betiereko zorion baten hastapena ; hura da, hitz batez egiazko sortze lorios bat.

Bizkitartean, herri huntako patroin handiaz denaz bezainbatean, Eliza ama sainduari iduritu zaio, haren hiltzeko urte mugaz bertzalde bertze egun bat badela oraino ederragokoa eta hura da Jondoni Batistaren sor eguna... Zertako bada[7] hori ? Zeren eta Jondoni Batista, bertze nehor ez bezala, sortua izana baita ; zeren eta Jondoni Batista, bertze nehor ez bezala, bere amaren sabelean berean izan baitzen garbitua bekatuaren arrasto kutsu eta ondorio

guzietarik ; halako gisaz nun mundu huntarat agertu zenean, zeruko aingeru bat bezain garbi eta saindu aurkitu baitzen Jaunaren begietan.

Ez dugu beraz zeren Jondoni Batistaz mintzatu gizon xoil batez eta profetetan handienaz beraz mintza gintezkeen bezala ; ezen gizontasunari eta profetetan handienari dohazkon[8] dohain, antze eta bertute guziez bertzalde, bertze asko eta asko gauza oraino geldi litzaikuke[9] erraiteko... *Etiam dico vobis et plus quam prophetam.*

Zerbaitgatik Ebanjelio Saindua haren biziaz bainan bereziki haren sortzeaz hainbertze xehetasunekin mintzo baitzaiku... Kasik iduri baitu Jainko gizon egin baten gainean deus ez daitekeela aipa Jondoni Batistaz ere zerbait aipatu gabe. Hala hala, saindu handi horren gainean dakizkagunak[10] Jainkoaren beraren ahotik dakizkagu. Eta horra zertako, girixtinoak, iduritzen zautan, zuen patroin loriosaren sortzeaz mintzatzeko kasua dudanaz geroz, hoberena dudala Ebanjelioaren hitzeri urratsez urrats jarraikitzea, hitz hek ahal bezain lañoki eta segidan orok errexkienik entzun dezakezuen gisarat itzuliz, eta nekez baizik konpreni ez daitezkeen gauza bakar batzu bazterrerat utziz.

Herodes Judeako erregearen denboran, dio Ebanjelioak, bazen Abiastar apez bat Zakarias deitzen zena. Haren emaztea bere etorkiz Aarontarretarik zen eta izena zuen Elixabet... Biak justuak ziren Jainkoaren begietan eta hain prestuki eta hain zuzenki zabiltzan Jaunaren lege sainduaren bidean nun behin ere nehork ez baitzuen izan heien gainean errenkurarik[11].

Ez zuten haurrik, ezen Elixabet egundainotik agorra[12] izana zen eta, bata nola bertzea, jadanik adin handitarat helduak ziren.

Halako aldi batez, Zakarias apez hori bere funtzione handi batzuez bere aldian kargatua zelarik, xorteaz[13] hautatua izan zen tenploaren barnerik sakratuenean sartu eta han isentsuaren erretzeko.

Kargu hori handienetarik zen, ezen nehori sekulan ez zitzaion zilegi tenploaren parte berezi hartan sartzea, salbu urtean behin xorteak gisa hortan hautatzen zuen apez bakarrari.

Zakarias, beraz, sartu zenean, populu guzia kanpotik zagon[14] isentsua erretzen ari zen denboran.

Bainan horra nun isentsuko aldarearen eskuineko aldetik ateratzen zaion aingeru bat Zakariasi eta xutik aintzinean paratzen. Zakarias harritzen da eta ikaretan emaiten.

« Ez zaitezela izi, Zakarias, erraiten dio aingeruak : zure otoitzak entzunak dire, eta Elixabet zure emazteak emanen dautzu seme bat, eta hura deituko duzu Joanes. Haur horrek bozkarioz eta alegrantziaz beteko zaitu eta ainitzek ongi atsegin hartuko dute haren sortzeaz ; ezen handia izanen da Jainkoaren aintzinean, ez dio bizi deno, bere gorputzari emanen den men-

dreneko[15] mainarik [16] eta Izpiritu Sainduaz betea izanen da bere amaren erraietan dagoelarik. Israelen ainitz haur, bekatuaren ilunpeetan errebelatuak dabiltzanak itzularaziko ditu Jainko Jaunarenganat eta bera ibiliko da Jainko haren aintzinean, Elias profetari bertze orduz emana izan zitzaion bertute eta indarrarekin, eta Jaunari, lur hunen gainerat etortzen deneko, eremanen dio aintzinerat populu bat zor zaion bezalakoa.»

Zakariasek, agintza horren gainean sineste hanbatik izan ez balu bezala, galdetzen dio aingeruari : « Ordean, zertarik ezagutuko ahal dut zure errana gertatuko dela, ezen ni eta ene emaztea biak jadanik zahartuak gare. »

Aingeruak ihardesten dio : « Zer, Zakarias, zer, ene erran xoila ez zaitzu aski sinesteko ? Jakin zazu, bada, ni naizela Gabriel Jainkoaren aintzinean egoiten den aingeru hura eta gauza horien zuri erraiterat igorria naizela : bainan ez nauzulakotz berehalakoan sinetsi orai beretik mututua gelditukо zare eta ez zare mintzatzen ahalko nik agindu[17] dauzkitzudanak gertatu arteraino.»

Bizkitartean populu guzia kanpoko atean Zakariasen begira[18] zagoen eta ez zakien zer ari ote zen hainbertze denbora barne hartan. Azkenekotz noizbait ilkitzen[19] da eta abiatzen populuari behar zaiola mintzatu, bainan hitz bat ez zezakeen erran. Orduan ezagutu zuten orok zerbait ikusi bide zukeela, ezen keinuz baizik nehola ere ez zitekeen esplika eta horra nola aingeruak erran bezala mututurik zen gelditu.

Bere kargua bete ondoan, Zakarias badoha bere etxerat. Handik gero zenbait egunen buruan Elixabet haren emazteak kontzebitu zuen, eta lehenbiziko bortz hilabeteetan, ahalkez, gorderik zagoen zioelarik : « Hauxe da bada, noiz arteraino Jainkoak utzi nauen ene agortasunaz ahalkatua eta gero zer adinetan dautan kontzebiarazi.»

Elixabet bere seigarren hilabetean zelarik, Gabriel aingerua badoha Jainkoak igorririk Nazareteko herrirat Maria deitzen zen Birjina batenganat.

Bide dakizue[20], girixtinoak, orduan gertatu zen mixterio espantagarriaren berri ; banoha beraz aintzina, Jondoni Batistari behatzen zaizkon gauzen hobeki eta laburkiago segitzeagatik...

Jainkoaren semea bere errai sakratuetan kontzebitu eta berehala Birjina Maria badoha erresakan[21] Zakariasen herrirat, sartzen da haren etxean eta salutatzen du Elixabet bere kusina. Mariak agur erraitearekin horra nun Elixabeti bere haurra saltatzen zaion sabelean, eta bera ere hainbertzenarekin aurkitzen den Izpiritu Sainduaz betea ; orduan erraiten dio Mariari : « Benedikatua zare emazte guzien artean eta benedikatua da zure sabeleko fruitua... Ordean, nundik heldu zait zorion hau ? Ene Jainkoaren ama ene ikusterat horrela etortzea ! Ezen zure boza aditu dudanean, ene sabelean dakarkedan haurrak salto egin daut bozkarioz !»

Ikusten duzue, girixtinoak, noiz eta zer gisaz Jondoni Batista izan zen sortu baino lehenago saindutasunik handienaz dohatua, Izpiritu Sainduaren bertutez beztitua eta graziarik berezienez gainditua... Ikusten duzue nola bere amaren sabelean zagoelarik, ezagutu zuen Ama Birjinak bere erraietan zakarkeen jaio[22] dibinoa.

Hortarik beretik ageri da Jondoni Batistak ordukotz bide zukeela ez xoilki gizon adineko baten adimendu eta ezagutza osoa, bainan oraino bertzalde aingeru batek berak izan dezakeen jakitate guzia.

Bere denboran beraz Elixabetek eman zuen haur hori mundurat. Berri hori jakin zutenean auzo, ahaide eta ezagun guziak joan zitzaizkon beren atseginaren erakusterat, zeren Jainkoak bere ontasuna haren gainean zuen hain handizki agerrarazi.

Gero handik zortzigarren egunean berriz badohazko Lege Zaharrak haur sortu berri bakotxarentzat manatzen zuen zeremonia baten egiterat. Zeremonia hori Lege Zaharrean bere gisako bataio bat bezalatsu zaukaten.

Beraz guziek nahi zioten haur horri eman Zakarias bere aitaren izena. Bainan amak erraiten diote : « Ez dut nahi izen hori emana izan dakion, bainan deitua izanen da : Joanes.» Orok betan ihardesten diote : « Ez duzu eta nehor zure ahaideki guzian izen hori dakarkeenik »[23].

Eta denbora berean keinu egiten diote aitari, eia bada, hark nola nahi duen haur hori izan dadin deitua. Zakariasek galdetzen du taulatto bat eta haren gainean iskribatzen ditu hitz hauk : « Haur horren izena da Joanes.» Orduan oro harriturik ixiltzen dire. Hainbertzenarekin Zakariasi mihia libratzen zaio eta hasten da mintzatzen egundaino bezain trebeki, Jainkoa duelarik hitz bakotxean laudatzen eta benedikatzen.

Inguru hetako jende guziak espantituak[24] zagozin[25] eta Judea guzian ez zen bertze elherik eta oro elgarri ari ziren erranka : « Zure ustez, zer aterako ote da haur hortarik ? Ezen sortu denean ageri zuen Jainkoaren boterea berekin zuela.» Denbora hartan berean Zakarias Izpiritu Sainduaz betea izan zen eta orduan zuen eragin Elizak bere otoitz handietan egun oroz erraiten duen esker onezko eta amodiozko kanta eder eta famatu hura.

Horra, girixtinoak, zenbat xehetasunekin mintzo zaikun Ebanjelio saindua Jondoni Batistaren sortzeaz ; horra zenbat artarekin begien aintzinean dauzkigun ezartzen sortze miragarri horri eratxikitzen zaizkon harat hunat guziak.

Bai denboraz ikusi dire gizonak, beren izena, beren nausitasuna, beren puxantzia erresumaz erresuma noranahi hedatu eta barreiatu dituztenak, errana ere bada heietarik batzuen aintzinean, lurra ixil-ixila ikaretan paratzen zela. Bai naski horrelako gizonak, mundu hunen arabera segurik handiak eta handiak ziren. Bainan huna bertze gizon bat, zer diot, girixtinoak ?, huna haur

bat, heiek bezainbat haro[26] eta espantu eragin gabe, heiek bezala mundu hau guzia itzulika erabili gabe, oro itzaltzen, oro histen dituena bere handitasun paregabeaz. *Non surrexit inter natos mulierum major Joanne Baptista.*

Zer dituk bada mundua, hire araberako handitasunak ? Erakuts dietzaguk[27] beren ederrenean. Bai naski, erakutsiko dauzkiguk primaderan sorho batek bere belar perde eta gizena erakusten daukun bezala. Eta gero ? Eta gero ? Jakin zak belarra laster ihartzen dela eta hire loria, hire handitasunak belarraren pare direla. Beraz ez dituk hire araberako ontasunak, beren izaitez eta funtserat joan eta, ezdeuskeriarik eta ilaunkeriarik baizik !

Zer balio du beraz, girixtinoak, munduaren erranari kasu egitea ? Bainan Jainkoa mintzo zaikunean, bortxatuak gare begiak itsuturik haren erranaren sinesterat ; ezen nork daki, Jainkoak bezala, mundu huntako gauzen eta gizonen balioa ?

Beraz goraki, eta enganio[28] den gutienaren beldurrik gabe, erran dezakegu egia bera denak erran izan duena : nehor ez dela gizonen artean egundaino agertu Jondoni Batista bezalakorik. *Non surrexit inter natos mulierum major Joanne Baptista.* Bizkitartean, bada, ez natzaitzue hemen mintzo saindu handi horrek oraiko orenean zeruan duen handitasunaz, bainan xoilki bere amaren sabelean[29] zagoelarik eta bere sortu berri-berri hartan Jainkoaren begietan beretan zuen handitasunaz.

Nungo haurraren sortzean egundaino ikusi ote da hoinbertze gauza espantagarri ? Alde guzietarik ez zaiku ageri mirakuilurik baizik eta zernahi gerta dadin, orotan ezagun da Jainkoaren bertute miragarria, orotan seinale da botere eta amodio mugarik gabeko baten arrastoa.

Nungo haurraren sortzean egundaino ikusi ote da holako bozkariorik ? Bai badakit haur baten sortzea berenaz ere atsegin egiten duen gauza bat dela. Bainan atsegin horrek baditu beti bere mugarriak[30], eta ez da hedatzen ahaide eta ezagunak dagozin lekutik hanbat urrunago ; bertzenaz ere jendeak kasu guti egiten ohi du bere intresa eta bere amodioa hunkitzen ez dion gertakari bati.

Zakarias eta Elixabet, Jondoni Batistaren aita amak, ez ziren bada baitezpada nehor ez bezalako jende aipatu eta ezagutu batzu. Heien egoitza mendi batzuen artean gordea bezala zagon. Bakean eta ixiltasunean ziren elgarrekin bizi eta nehor ez zen heietaz kasik bazirenetz ere mintzo.

Bizkitartean horra nun dioen aingeruak, heien haurraren sortzeaz ainitzak eta ainitzak bozkariatuko direla. *Et multi in nativitate ejus gaudebunt.* Zergatik, bada, bozkario handi hori zoina hedatzen baita ixtant batez erresuma bazter batetik bertzerat ?

Zeren eta haur horren mundu huntarat agertzea baitzen salbamenduzko seinale bat, nornahik ezagutu eta atseginekin ikusi behar zuena ; zeren eta

denbora hetako gizoneri agertu zitzaiotenean argi alba eder hori, pentsatzen baitzuten guziek aspaldi agindua[31] zitzaioten iguzki distirant hura ez bide zela[32] urrun. Zeren Jondoni Batistaren bizi espantagarriak eta saindutasun paregabekoak, hainbertze arima galtzerat zohazinak, egiazko biziaren biderat, Jesus Jainko gizon eginaren biderat behar baitzituen itzularazi.

Bai sortze miragarria ! Ez bakarrik gizonen arabera bainan oraino aingeruen beren arabera ! Sortze mirakuiluzkoa eta bozkariagarria ! Ez bakarrik gizonen begietan bainan oraino zeruko mirakuilu eta bozkarioen erdian bizi direnen begietan.

Arrazoinekin beraz Eliza ama sainduak egun hau bertze egun guzien artean berexi izan du, Salbatzailearen eta Andredena Mariaren sortzeko egunak berexi izan dituen bezala. Aingeruaren erranak bideak eta bideak egin ditu ezen duela hemeretzi ehun urte inguru Judeako zoko batetik aterarikako bozkario hura bera hainbertze mende huntan egundaino bezain berri eta egundaino bezain eder munduaren bazter guzietarat hedatua dago.

Bai zuek ere, girixtino maiteak, egun lehia[33] saindu batekin bildu zarezte Jondoni Batistaren ohoratzerat ! Oi zein eder den aldare hauen oinetan[34] zuen ikustea, zuen entzutea, saindu handi horren medioz Jainkoak gizonen gainerat ixuri dituen fagore eta grazia guziez eskerren bihurtzen ! Bai egun hau girixtino guzientzat izan behar da alegrantziazko egun bat, bainan bereziki herri eder huntako arima Jainkotiarrentzat, ezen Jondoni Batista zuen patrointzat hautatu duzuenaz geroz, manera berezi batez ekarria da zueri ongi suerte guzien egiterat, eta haren amodioak zuentzat badu bertze girixtino guzientzat baino zerbait gehiago. Ez da zuentzat bakarrik adixkide bat, bainan oraino anaia bat, aita bat, ontasuna bera dena ; itsutuki maite zaituzten aita bat. Beraz zein gogotik, zein kartsuki eta zer fidantziarekin ez diozue galdetzen ahal, izan dezan zuetaz aita on batek bere umeez izan behar duen arta. Bertzenaz ere ikusten duzue zeronek[35] zenbatetarainokoa daitekeen Jainkoaren aintzinean haren alderako arartekotasunaren boterea. Bainan orhoit gaitezen alferretan galdeginen diogula laguntza eta fagore, baldin haren saindutasunari eskarnio[36] egiten badiogu eta haren gureganako amodioa hotzarazten badugu bekatuzko bideetan Jainkoaren legeari ihes ibiliz.

Ez da gure artean nehor, girixtinoak, ifernuko su lameri eskapatzeko eta dohatsuen egoitza eder hartarat heltzeko gutizia ez duenik. Ordean maiz eta maiz mundu huntako ezdeuskerien eta enganioen erdian zoratuak eta errebelatuak[37] gabiltza. Jondoni Batista har dezagun lagun eta gidari ; ibil gaitezen hura ibili den bidetik ; haren urratseri jarraikiz ez da guretzat hirriskurik ez ilunperik, ez zoramendurik, ez galtzerik.

Bai laster gure mundu huntako harat hunat guziek izanen dute akabantza bat, eta hemendik lekora[38] agertu beharko gare Jainkoaren aintzinean. Oi

otoi, Saindu handia, oren lazgarri hartan zato gure lagun, eta bertze orduz Judeako populua Jesusen aintzinerat bidaldu zinuen bezala, presenta gaitzatzu zeronek[39] Juje soberano hari, eta mintza zakizko[40] gure alde, amoreagatik eta[41] zurekin batean goza gaitezen zeruko zorionaz eta zurekin batean eternitateak dirauno, lauda, maita eta adora dezagun, Aita, Semea, eta Izpiritu Saindua.

Halabiz.

Ad. majorem
Dei gloriam.[42]

---

1 ≈ zenezakete, batuaz
2 batean, elgarrekin, pozez
3 begozi (beude, batuaz)
4 nahikari bat adierazten du Iparraldean
5 «ahoz behera», ukurturik, errespetuz
6 edozein
7 ordea
8 doazkion, batuaz (dagozkion, Hegoaldean)
9 litzaiguke, batuaz
10 dakizkigunak, batuaz
11 arrangurarik
12 haurrik ukan ezina *(stérile)*
13 zotzetan, xotxak tiratuz
14 zegoen, batuaz
15 den gutieneko
16 artarik, goxotasunik
17 erran eta hitzeman
18 zain, goait
19 jalgitzen/ ateratzen
20 badakikezue
21 presaka
22 ekartzen zuen haur dibinoa (?)
23 dakarrenik (?)
24 harrituak mirespenez
25 zeuden, batuaz
26 harrabots espantutsu
27 iezazkiguk, batuaz
28 ≈ enganatua izatearen
29 *dans le ventre de sa mère*
30 mugak
31 hitzemana
32 ez zatekeela
33 borondate

[34] *aux pieds des autels (pour supplier...)*
[35] zuihaurk (zuek-en indargarria)
[36] trufa, muzin
[37] bidean galduak
[38] hemendik landa
[39] zuhaurk (zuk-en indargarria)
[40] zakizkio, batuaz
[41] helburuaren adierazteko lokailua
[42] ≈ Jainkoaren aintza handienarentzat

Guerichtenoac.

Duela hemezortei ehun urthe munduac hauieus eta oraiaus; nore euan lio munduac hura bera dela? Eg natcaitque horren mintzo preuzquc demberatic demborarat guerla do mulucione batzuei eutolic darraizoten higuiaitzac do gambiamanduez. Guerthacari horiac eguin guieri aiphatzeco eg caizguit asti ipantzagarriac.

Batzuei balentria gaiote, thalendu puchantcia harmada eta tiesna hainteguin baztor gucien itzulicatzea eta beun nausitaiuna nerat nahi kidatzea. Eta bizguitartean heico dutenahal eta indar berazeguin nore nahio eguin lio hainbertec. Alaiuen bada

elgarri nausitu nahi diranen artean, bethi
lehenarac amor onaitea gaucelan den
naturalena zait. Begola beraz beun guisa
munduc hau noiz nahi horrela itzulica
dabilenten guerthacariac.

Ac oraï çuri beguiztaraci gogo dautzudan
balentria: fida naiz seguruqui berenac idurituco
çaitzuela.

Xuna guiçon bat bere bicia erromesian
daramana, bere familaren haztec gabaz eta
egunaz sare behar batzuequin anantzan
dabilana: guiçon bat ofizio ahul hortan
salbu denbilan era aitzen ez çaiona, bere
herritic campo erbeiten ikhasten, munduan
certu den jaquiteco dina bidez nihun ez
erabilia: guiçon bat çadanic bere adinic
derrena aeganic ilhuntzen eta herbailtzen
hasia, bihotez eta izpiritiz egundaino tic
ahul eta herabeltzat egaztea. Eta guiçon
heri halaco aldi batez, berce guiçon baten
erranari fidatiz, horra bet betan nor
abiatzen den, bai eta behar duela munduc
hau guccia azpicoz goiti itzulizatu. Bai eta
behar diotela jende suerte guccieri er nahi
herromac thalendu eta carguta ecerri, legue
berri bat, guiçon gogoarren entrace legue bat
ezagutaraci eta amodioequin bisarcaraci.

[2]

Berac baiciz ichoro oraino ximhesten ez
ditüen gauça balzu behar diozatela izpiritu
hizgaitzeneri simheltaraci.

Erhea ahal da guiçon hori, eraman
dautaque quirc. – Ela bizquitartean,
Suirichtiro maitiac, guec ere hemen icus
eta, gogoan erabilticen badut artaria çarçten
hunat ethorriac, eta noren choretan ditüguen
diarazten alegrantciazco cantu dor horiec,
doi doia aiphatüdudan guiçon hura çait bada
presuqui heldu beguien bichtarat.

Bai, ene aditçaile eta herritar maitiac,
badaguit eta ezaguticen dut hura eta berardela
altare horren eddian ilchuraz bidera icusten
duguna. Urrezco jaunlci eta distiriu horrec
ez nau trabaticen Galileako arrantçari urumes
hartaz orhoitestiu. Eta cer? guiçon ez dauc
harren gatic hunembertec ezgaitu? harri
burutz urthe oroz hainbertec lehiaraguin
ialebratüen ohi duguen besta hau? Bichtian
oraino ez çaçte orhoit guiçon ohobatentçat
guiragocala? Eta cer? guiçon ohobatentçat
hunembertec ohore. Bai nasqui, eta behar
ere: eren eta horren delaco ethoqueria hura
nausitü baitçaio munduhuntaco çuhurtcia
aiphatüenari. – Ez, ez. Somportar maitiac,
ez gare enganatüac izanguira hortaco guiçon

bat, ereque ola puntu guciac baino
guchiago choratzen hasi garenean. Ola ez
gare batkhanac. Galde çecen nia Eromaco
hiriari, hiri gucien ereguinari cer dagocan
eguncgo egun hunequin hain lerios, hain
icengarri, hain çoragarri! Nun orhoitzapena
duen hura ere urthe oroz sarrarazten cein
eman ditaquen alegrantcia hartan! . . . .
Eromaren cihuac, eta guen cihuac, ere
bardin, ere hitz berecc ditut causitcen, erec
icen bera darolet adiarazten.

Beraz ni ere Jendoni Idiriz behar
natçaitcue mintçatu. Jadanic ene chedca
cutaratzu cohan eçagutu bide duque. . . .
Bainan erai prãdicu luce bati lotcac
lotzatcen nau, eta beltcumaz ere ez antiztzatet
nahi guec ere dongutiena lotzarazi; sobera
ausartcia hartuz guen, berondate eta atuntcac
ene penosaren gainean.

Laburzqui beraz behar dautquet bequim
bichtan eçarri, guiçon flaco ermoes eta
ermultzaric gabecc baten balentcia, indar
eta erresultcu suerte guciac bequin cituen
cani edo partida bati buruz.

Ave Maria.

Duela mila zortzi ehun eta ezcheit urthe certan cen munduan hau, eta dembora hec ezteu olhe ciren? Eia eman dezotagun beguiz colpe bat.

Aditzea badugue nasqui hainitzez lehenecco Eroma çahar eta famatu hartaz. Eroma hura eta hango emperadoreac egundaino ez ciren halaco indarrean halaco puchantzian aurkhitu nola erai aiphatu dugun dembora hortan. Eem egundaino ez da icusi eta ez nasqui quehiago icusiko ere ezenmarik ala eremuz ala harmadaz ala quizon sabantz hain aberatzic. Egundaino ez da icusi ez icusiko ere oduan becala, tresuma bat lurreco bazter guzion jabe, eta emperadore bakhar bat lurreco populu guzien nausi. Gure Frantzia hau, Espania hori, erai guzeguin guezlan hari den Rusia hura eta bertze cembat holaco, ez ciren Eromaco puchantzia harren phartedo aldasca batzu baizic.

Oduan oduan çabiltzan ceu guizon thalendu handitzacoac, izpiritzic ezcenez jaguitaterio hedatuenez berguinduac. Oraino egungo egunean era guizon jakintsu guziac harritüac dagoci dembora hetaco guizonen jaguitate eta antze ezpantagarriaci.

Guizonaren mihia ez da egundaino eiduan
beçalaco lenguaia baino Deragoz mintçatu
Oduco mintçatçaile çoragarrieri eta iri-
çatçaile famatueri, guerok ez caiola nihor-
oraino nausitu.

Bertçalde oraino, munduaren bazter-
guciac, aberastasun Dergaitu eta aisia
ucite gucien eidian iguri çagocin. Ez
çuten jende guhiencac asmurie beren plaser
eta axeguinez baicen. Ez çuten eçagutzen
bertze jaincoric ez eta amesten ere beren
naturaleçaren guticiaren eta biciosaldeoric
baicen.

Herra cer mende cen mende huna.
Ruchantziazco, jaguitale eta thalendunzco
axeguin eta biciozco mende bat: Cer nahi
ethegui eitçaiona Emperadoreari Dutchoac
pagatuz guerok.

Bichlan da mende aphatu hartaco puchan-
tziari nausitu nahico cinac behar çuguiela
beraac ere, bidero indar berco puchantcia bat.
Bichlan da munde hartaco jende arguitu eta
guiçon thalendiedunei aintzinean eherez gui
aguertu nahico guenac. behar çuguiela ranuei
ereco baino thalendu, ispiritu, jaguitaleta abilena
guchiago. — Bichlan da munduc bere axeguin
eta biciozçarrei jesia cagoen hura, bere

[7]

itsas bazterreangaindi. Itsaso hartara beira
dagolarie iousten ditu bi arrantzari, sare
tchar batzuch mean hedatzen hari direla.
Bi arrantzari hec bi anaia zien; batac zuen
icena Andreas, bertzac Simon zuenzatic
icen zeitia Pierres. — Jesus gueldicen da
eta erraiten diote. «Çatozte nireguin, nic
eguinen çaituztet guizon arrantzari.....

Eta bat, ez biac hor utzen tuzte bere guisa
sare untcichea eta dituzten euruburugueiac
eta abiatzen dire Jesusen ondotic, eta hirur
urthez egaguten dute beren nausitzat.

Jesusec hola holaca billtzen ditu combeit
dicipulu, ere casic herronca hortaracac. Huán
artean bizchten ditu hamabi hobesenac
bere apostoluetzat, eta nor uste duçue diotela
aintzindaritzat emaiten? Nor uste duçue
duela hautatzen bere guizontzat?

Pierres! Bai Pierres arrantzari urumes
hura. Pierres dusetan ere aitzen ez zaicen
guizon ilhaun hura!

Halaco egun batez Jesusec erraiten dio
Pierresi: entzac hautatu duen apostoluen
buruçaguitzat, eta bere Elizaren harrecazco
cimentutzat.

Adi çac Pierres: Ene burua emaiteat
mundu guciaz eta erreguez berez ere behar

[9]

[10]

[11]

[12]

Guiichtinac, eg da eg hogei urtheric
eg eta hamarric era. Ore Khonda bere
preparaitu guicin equitteco eg çaio guettitcen
berregui eta hamabi egun baicen. Horra
içaiteoly era noiz behar den guiçon flaco
eta herabe hori lehoin baten parc bilhaceatu,
munduguecia beian haren contra altchatuni
ere denac ikhara eg liscra. Çagoeiu beira.

Bonegui eta bi eguneen biruan Gure
Salbatçailea ohnuolçat helen artetic pistaric
daguiçuen bezala lehenaco lekhu berean
çabilana, igaiten da Olibetaco mendiaren
gainerat Harresquin eta berbe apostolu
eta dicipulu guciquin. Han mintzatcen
çaiola azquen aldiroly erraiten diotelaric:
Bothere guciac emanac içan caiçquit bai
ceruan bai lurrean, eta orai guc çoazte nic
emaiten dautçuedan bothareguin, barraia
çaitçate nacione guciencidian, eracutt otçuete
nic eracutsi dauçquitçuedan guciac; bathai-
atcen ditutçualaric Aitaren eta Semearen
eta Izpiritu sainduaren iceenan. Emaçue
munduguecia ene lequearen eytarriaren
azpian. Bizquitartean oraino combeit egun
egon behar duçue Jerusalemetic urrundugabe
aquindu dautçuedan Izpiritu Sainduarentic
ceen gainera jauzi artemaino.

[13]

Hilz horiec maitearaquin Jesus
igaiten da Ceruetan gora eta emaqui emaqui
suntsitzen bere discipulum beguistaric.

Nun çare erai Phares Naussiac utsi
çaitu bakhar bakharric lurrean çure
Apostolu laguneri aintzindari, seguri dezaçun
berac hasiriacc lana. Tu es Petrus. Orai
erai haste çure lana. Orhoit çaite Naussiac
eure gain utsi dautçula bere ezcommaren
munduco bazter gucietarat hedatzea. Orhoit
çaite ior eman dautçun eguitzec. Tu es Petrus
et super hanc petram ædificabo Ecclesiam meam.

Eta Phares badoha Olibetacc mendiari
behera, gozoa Khechuric, bihotza illhunic.
Badoha Jesusec Eran bezala Jerusalemec
hurirat, han behar dutela iguriqui Spiritu
Laguntzaile ceruticac hura. Apostolu eta
Discipulu guciac jarraiguitzen caizco eta
ere elgar ganat bilduric badagoi elhorteean
etche baten barneric gorenean.

Munitzen çait. Ene Aitzaile maitea
icusten dudala Phares egun oroz arrazaldunat
bakharric juaiten Olibetacc mendi haren
gainerat. Mandic beguis colpe çorotz bat
emaiten diote ius ahalicacc bazter guciri;
Munduc hunecc cembat eroma dituen neguntza
nahi balu bezala.

Pharres; ceri çaude beguira? Nahi
cinugue nasgui icusi nun çaudica ibili
behara çaren, eta çure Sanciaren ebanjelioa
nun çaudica behar duçun predicatu?
Bai behaçu munduburuen heddaturari.
Beha çaçu iguzgui atherateco alderat, beha
çaçu iguzgui sartzeco alderat. beha çaçu
epharrera, beha çaçu hegorat. Deus açue
naciore guciac berra hor, bara hari
guciac biscaren ustelduraz gorphutz hil
batçuen durico bilhaceatuac, guciac heriocan
itçalaz estaliac; eta haren urruraz ussaindua.
Hori erai Pharres. Ostiscinare Petra, insulta
super interfectos istan et ruviscant. Hori Pharres,
munba haguiate gorphutz hil horieri, igor
çac hire hatta horien gainera, et pitz beitetz.
Ostiscinare Petra. Mintza hadi Jainco aren
partez munduburu galdu horri, eçagutaraz çac
bere nausi eguiazcoa, ikhiaraz çac bere ithurpe
lodi hoietarie. Cere iritzen hau? Eguin çac
Cruzgorenetic hiri beguira dagonac erran
dauzana.

Eta berra hamargarren eguncan goiz
alderat nun aditzen den harabeto handi bat
haice berthitz bateguin. Disipuluac dagoeen
etchea beru ximendiestaraino daddaratzen da.
Guzco mihi batçu jauntzen dire cerutic eta

eta Apostolu bakhotchari bat gutditzen
çaio bere buruaren gaineco altean. Horra
horra Espiritu Saindua. Hona eraz num
aguertzera dotzin haren dohainac eta haren
kalhuac. Hastacs hor abiatzendire
lenguaia suerte guciez, tabaqui mintçatzen
seitzetic ikhasiac izan balitzate bezala. . .
Ikhusten dire bazenbilkhuetacc lekhu
hartaric, eta badatzei bakhotcha bere alde
Jerusalemec carricaz carrica, jenderic
guchiena causitzen ahal dutan lekhuna.
Presaqui egun hura cen urthecc besta handi-
enetaric bat. Nun nahiec jendeac baciren
espera ethorriac Jerusalemerat nacione
gucietaric.

Piarres badeha esperiz jendeacnaren
ediñat, eta bere bozac oman ahala eguiten
diote bere lehombizio predicua. Lehen colp,
hiru mila anima erdiuan berean Kristichtiño
bilhacazten ditie. Mintçatzen da bigarren
aldicotz, eta berce bortz mila arimecgaitzetzen
dute bathasaluac izaiten. Handic goiti
ecin Rhonda ditezque haren hitz bakhotchac
gomberatzen ditzen jendeac. Ulzaiti bakhot-
chean miracuilua Fario. Azquenestz jendea
chartzen da Piarres apostoluaren itzalac
berac hilac pizten ditzela, eta inguruetacc

populu guciac harcn endotic dabilac hil
carraion. Junde guciac Harcsen endotic
çoratüa dabilala icusiric. Lagunçaharrac
aphez, eargudun, eta printcerac, elgar aitcen
dute Harcsen eta bere lagunen presso
çartecco. Bainan alferretan. Harrac ez
du heien bidcurric, guciac ahalcarazten
ditu, eta ichilic guddiarazten. Heien
entsaiu guciac alfer dire guerthatcen Apos-
tolu handi horren galtcecco.

Harres badcha aintcina: hurriz, heri,
eresumaz eresuma. Nun ere baitire hiri
nausi handienac eta harat doha aussarkiena:
Ez da nehun sabantic eta puchantic bere
bidean, bere lanean, bere hiritan tüba
dezaguerric. Hola holaca badcha Eroma-
raino. Munduaguciari manatcen dion
emperadorearen phalaciorraino. Orotan
aguertcen da deusseren ahalguerric gabe
eta mintçatcen hallogui guciac bere arpice
balitu bezala. Asse junde handi. Emperado-
rearen familan berean, asse guiçon sabant
haren hitça aditurric Guirichtino eguiten
dire. Eromaco Emperadorcac jaguiten du
nola Apostolu horrac hari duen eçagutarazten
populu guciari nequo bat, nequa eta empera-
dore guciac baino guchiagosca, nola haren

[18]

Eta orai athabatzaraguin, gaztetzan
dautzquet, ene Beitzaile maitearc, Nore
eguin du egundaino Jondoni Petiri gure
harri huntaco Patroin Saindua eguinduen
beçalaco balentzaric? Cer diçue orai,
hastean çoro balentzat guinagocan Barres
guiçon errumes hartaz. Izan othe da
munduan munduaren querlari puchantzic
erreguc famaturic, bere esnuco indarraren
hatza lurraren gainean Jondoni Petiri
beçala fincatu duenic.

Cura graciactzu, Ene Jainco ona, hain
gora altchatu Saindu hau de hori. Çure
indarra cen haren baithan sarthu, eta
haren eguin eder guztiac, haren handita-
sunean, hara cen goraneau inguratua
dagocan lorea eta dantasun çoragarri
hartan, çu baithanic Jainco handia
çu çaituçu adoratzen. Othoi iguçu
Saindu miragarri horen aurrecotasunaren
berthutez, othoi iguçu guiari partalior
izaitea haren saindutasunean eta guero
haren Cerucco çorionean. Halabiz.

[JONDONI PETRI]
(Senperen egin predikua)

Quæ stulta sunt mundi elegit Deus ut confundat sapientes et infirma mundi elegit Deus ut confundat fortia

Nor ere baitire munduaren begietan zuhurtzia gutienik daukatenak eta hek ditu Jainkoak hautatu zuhurtziarik gehiena duteneri nausitzeko ; eta nork ere baitute indarrik gutiena eta hek ditu hautatu indarrik gehiena dutenen garhaitzeko.

(Hitz hauk aurkitzen dire Jondoni Paulok Korintiarreri iskribaturikako lehenbiziko Epixtolan.)

Girixtinoak,

Duela hemezortzi ehun urte mundu hau ikus eta orai ikus : nork erran liro[1] mundu hura bera dela ? Ez natzaitzue hemen mintzo preseski, denboratik denborarat, gerla edo erreboluzione batzueri ondotik darraizkoten higialdura[2] edo kanbiamenduez. Gertakari horiek egun zueri aipatzeko ez zaizkit aski espantagarriak.

Batzueri balentria zaiote, talendu, puxantzia, armada eta tresna ainitzekin bazter guzien itzulikatzea eta beren nausitasuna noranahi hedatzea. Eta bizkitartean heiek duten ahal eta indar berarekin nornahik egin liro (1) hainbertze. Alabainan, bada, elgarri nausitu nahi direnen artean beti txarrenak amor emaitea gauzetan den naturalena zait. Begozi[3] beraz beren gisa mundu hau noiznahi horrela itzulika derabilaten gertakariak.

Nik orai zueri begiztarazi gogo dautzuedan balentria, fida naiz segurki bertzerik idurituko zaitzuela.

Huna gizon bat bere bizia errumesean[4] daramana ; bere familiaren hazteko gauaz eta egunaz sare txar batzuekin arrantzan dabilana ; gizon bat ofizio ahul hortan salbu deusetan ere aritzen ez zaiona ; bere herritik kanpo zerbaiten ikasten, mundua zertsu den jakiteko dina[5] bederen nehun ez ibilia ;

gizon bat jadanik bere adinik ederrena iraganik ilauntzen eta herbailtzen hasia, bihotzez eta izpirituz egundainotik ahul eta herabetzat ezagutua. Eta gizon hori halako aldi batez, bertze gizon baten erranari fidatuz, horra bet-betan nun abiatzen den bai eta behar duela mundu hau guzia azpikoz goiti itzulikatu. Bai eta behar diotela jende suerte guzieri zernahi erronka[6], talendu eta kargutakoeri, lege berri bat, guzien gogoaren kontrako lege bat, ezagutarazi eta amodiorekin besarkarazi. Berak baizik nehork oraino sinesten ez duen gauza batzu behar diozkatela[7] izpiritu hezgaitzeneri sinetsarazi.

Erhoa ahal da gizon hori, erranen dautazue guziek. Eta bizkitartean, girixtino maiteak, zuek oro hemen ikus eta gogoan erabiltzen badut zertarat zarezten hunat etorriak eta noren ohoretan ditutzuen adiarazten alegrantziazko kantu eder horiek, doi-doia aipatu dudan gizon hura zait bada preseski heldu begien bixtarat.

Bai ene aditzaile eta herritar maiteak, badakit eta ezagutzen dut hura eta bera dela aldare horren erdian itxuraz bederen ikusten duguna. Urrezko jauntzi eta distira horrek ez nau trabatzen Galileako arrantzari errumes[8] hartaz orhoitzetik. Eta zer ? Gizon ezdeus harengatik hunenbertze edergailu ? Hari buruz urte oroz hainbertze lehiarekin zelebratzen ohi duzuen besta hau ? Aixtian[9] oraino, ez zarezte orhoit, gizon erho batentzat ginaukala ? Eta zer ? gizon erho batentzat hunenbertze ohore ? Bai naski eta behar ere ; zeren eta horren delako erhokeria hura nausitu baitzaio mundu huntako zuhurtzia aipatuenari. Ez, ez senpertar maiteak, ez gare enganatuak izan gisa hortako gizon bat, errege eta printze guziak baino gehiago ohoratzen hasi garenean. Eta ez gare bakarrak. Galda zozue eia Erromako hiriari, hiri guzien erreginari, zerk daukan egungo egun hunekin hain lorios, hain ikusgarri, hain zoragarri ! Noren orhoitzapenak duen hura ere urte oroz sarrarazten ezin erran daitekeen alegrantzia hartan ! Erromaren oihuak eta zuen oihuak, oro berdin, oro hitz bereko ditut kausitzen, orok izen bera dautate adiarazten.

Beraz ni ere Jondoni Petriz behar natzaitzue mintzatu. Jadanik ene xedea zertaratsu zohan ezagutu bide duzue... Bainan orai prediku luze bati lotzeak lotsatzen nau eta bertzenaz ere ez zintuzketet nahi zuek ere den gutienik lotsarazi[10], sobera ausartzia hartuz zuen borondate eta atentzione jenerosaren gainean.

Laburzki beraz behar dautzuet begien bixtan ezarri gizon flako, errumes eta erresurtsarik[11] gabeko gizon baten balentria, indar eta erresurtsa suerte guziak berekin zituen etsai edo partida[12] bati buruz.

Ave Maria...

Duela mila zortzi ehun eta zenbait urte zertan zen mundu hau eta denbora hek zertsu ote ziren ? Eia eman diezotegun[13] begi kolpe bat.

Aditzea baduzue naski ainitzek lehengo Erroma zahar eta famatu hartaz, Erroma hura eta hango enperadoreak egundaino ez ziren halako indarrean, halako puxantzian aurkitu nola orai aipatu dugun denbora hortan. Ezen egundaino ez da ikusi eta ez naski gehiago ikusiko ere erresumarik, ala eremuz, ala armadaz, ala gizon sabantez[14] hain aberatsik. Egundaino ez da ikusi ez ikusiko ere orduan bezala erresuma bat lurreko bazter guzien jabe eta enperadore bakar bat lurreko populu guzien nausi.

Gure Frantzia hau, Espainia hori, orai gurekin gerlan ari den Rusia hura[15] eta bertze zenbat holako ez ziren Erromako puxantzia haren parte edo aldaxka batzu baizik.

Orduan orduan zabiltzan usu gizon talendu handitakoak, izpiriturik erneenaz, jakitaterik hedatuenaz berreginduak[16]. Oraino egungo egunean ere gizon jakintsun guziak harrituak dagozi denbora hetako gizonen jakitate eta antze[17] espantagarriari.

Gizonaren mihia ez da egundaino orduan bezalako lenguaia baino ederragoz mintzatu. Orduko mintzatzaile zoragarrieri eta iskribatzaile famatueri, geroztik ez zaiote[18] nehor oraino nausitu.

Bertzalde oraino munduaren bazter guziak aberastasun edergailu eta aisia suerte guzien erdian igeri zagozin. Ez zuten jende gehienek asmurik beren plazer eta atseginez baizik. Ez zuten ezagutzen bertze jainkorik ez eta amesten ere beren naturalezaren gutizien eta bizioen[19] aldekorik baizik.

Horra zer mende zen mende hura. Puxantziazko jakitate eta talenduzko atsegin eta biziozko mende bat : zernahi zilegi zitzaiona enperadoreari dretxoak pagatuz geroz.

Bixtan da mende aipatu hartako puxantziari nausitu nahiko zenak behar zukeela berak ere, bederen indar bereko puxantzia bat [izan]. Bixtan da mende hartako jende argitu eta gizon talendudunen aintzinean ohorezki agertu nahiko zuenak, behar zukeela erakutsi orok baino talendu, izpiritu, jakitate eta abilezia gehiago. Bixtan da, bere atsegin eta bizio tzarreri josia zagoen mundu hura, bere ondotik abiarazi nahiko zuenak, behar zukeela eskaini eta jastarazi atsegin plazer eta gozamen frango.

Eta gero ? Eta gero... Kontu[20] huni, ene aditzaile maiteak.

Huna orai gizon bat puxantzia ezin garhaituzko horri nausitu nahi zaiona ; huna gizon bat, gizon jakintsun eta talendudun horieri deus ere ez dakitela aitorrarazi gogo diotena ; huna gizon bat, mundu atseginez ezin asea den horri, atseginak eta biziorik maitatuenak higuinarazi eta ostikarazi behar diozkana[21].

Diozue, menturaz, ez dela gizonik holako lanik egin dezakeenik. Nik erraiten dautzuet berriz baietz, badela bat. Zagozte[22] begira eia gizon hura iduritzen zaitzuen bezalakoa ote denetz.

Munduaren bazter guziak zoragarrizko estatu hortan zirelarik, Judeako probintziaren zoko batean, hor sortzen da haur bat neguko gauik minenean, heia txar baten leihorraren[23] azpian. Geroztik hogoita hamar urte iragaiten dire eta nehor ez da kasik gehiago orhoitzen mandio[24] pobre hartan egundaino haurrik sortu denetz ere. Hogoita hamar urte heien buruan Jesus ilkitzen[25] da Nazaretetik eta norapait zohan Galileako itsas bazterretan gaindi. Itsaso hartarat begira dagoelarik ikusten ditu bi arrantzari, sare txar batzuek urean hedatzen ari direla. Bi arrantzari hek, bi anaia ziren : batek zuen izena Andres, bertzeak Simon, geroztik izengoitia Piarres. Jesus gelditzen da eta erraiten diote : « Zatozte nerekin, nik eginen zaituztet gizon arrantzari.»

Ez bat eta ez biga, hor uzten dituzte beren gisa sare, untzixka eta dituzten zurruburru[26] guziak eta abiatzen dire Jesusen ondotik eta hiru urtez ezagutzen dute beren nausitzat.

Jesusek hola holaka[27] biltzen ditu zenbait dizipulu, oro kasik erronka[28] hortakoak. Heien artean berexten ditu hamabi hoberenak bere apostolutzat ; eta nor uste duzue diotela[29] aintzindaritzat emaiten ? Nor uste duzue duela hautatzen bere gizontzat ?

Piarres ! Bai Piarres, arrantzari errumes hura ; Piarres deusetan ere aditzen ez zaion[30] gizon ilaun hura !

Halako egun batez Jesusek erraiten dio Piarresi, zertako hautatu duen apostoluen buruzagitzat eta bere Elizaren harrokazko zimendutzat.

« Adi zak Piarres : ene burua erregetzat mundu guziaz eta erregeez berez ere behar diat errege nausitzat ezagutarazi eta, hik bai hik, behar dautak[31] ene erresuma lurraren bazter guzietarat hedatu. Nehork oraino bizkitartean ez naik[32] ezagutzen. Aski diat munduaren bixtan agertzea, nehork ez ikusi nahi izaiteko. Guziek higuin ditek nik gizoneri basarkarazi nahi nioketen legea. Neroni[33] ere hainbertzetarainokoan naitek higuinduko eta hastiaturen[34] nun hilaraziko bainaitek[35] gaixtagin, ohoin, jende enganatzaile eta gizon hiltzaile bat bezala. Horiek guziak aintzinetik dauzkiat erraiten, jakin dezakan, niri jarraikitzekotz, hik ere beharko dukala zerbait pairatu. Eta orai galdetzen daiat : baduk bihotzik hainbertze nahigabe eta nekeren enekin jasaiteko ?»

« Bai eta, Nausia, zurekin hiltzeko ere.»

« Piarres, hi haiz ene Elizaren zimenduetako lehenbiziko harria. Jakin zak, bada, ni mundu huntarik joan eta, hik beharko dukala ene legea eta ene Ebanjelioa jendaia suerte guzieri besarkarazi ; hik beharko ditukala ahalkarazi mundu hunek jakintsuntzat dauzkan guziak. Hik beharko diotek, bekoz beko eta haltoki erran, printze, errege, enperadore handieneri ez direla hauts eta herrauts porro[36] bat baizik, ni naizela heien nausi, hein errege, heien enperadore. Hik beharko diotek mundu huntan atseginez atsegin dabiltzaneri

uko eginarazi, heien gostua gehienik perekatzen dioten bizioeri, gero amodiorekin har bezate ene gurutzea eta datortzila[37] ene ondotik sofrikariozko bidean gaindi. Eta baldin galdegiten badautek[38] nor naizen ni, horrela ororen nausi jartzeko, ihardetsiko diotek, ni naizela preseski gurutze baten gainean ohoin bat bezala hilarazi zuten hura eta ene partez hatzaiotela[39] mintzo. Ez haute aditu ere nahiko. Preso hartuko haute. Zer nahi pairatu baharko duk nornahirenganik. Ez duk alde guzietan etsairik baizik kausituko. Bainan halarik ere hoa beti aintzina ; zernahi trabarengatik[40], heda zak heda bazter guzietarat ene erresuma.»

Zer lana, girixtino maiteak, eta zer hitz bihotz altxagarriak[41]. Eta gero holako lan bati Piarres behar zaiola lotu ! Piarres duela zenbait denbora oraino Galileako zoko batean arrantzatik doi-doia bizi zen gizon funts gabeko[42] hura !

« Bai ordean menturaz, erranen daut norbaitek, hiru urtez bizi zelarik Jesusen konpainian zerbait bederen ikasi bide zuen.» Ez da dudarik, hain nausi on eta maitagarriaren azpian, harekilako batasun hertsi hartan ez da dudarik Piarres arras bertze bat bilakatu bide zela : zernahitako on zena, deuseren ez nehoren beldur gehiago ez zena. Gizon bat, hitz batez, Jesusek bere lan handiarentzat behar zuen bezalakoa. Edo bertzenaz Piarres ontsa bihotz eta buru gogorrekoa[43] behar zen. Ordean bihotz eta buru gogorrekoa gertatu izan balitz Jesusek aise ezagutuko zuen aintzinetik eta ez zion sekulan emanen gisa hortako kargurik.

Dugun bada ikus hiru urte heien buruan Piarres, bere bihotzeko eta izpirituko indarra gehienik erakusterat eman behar zukeen kasuan. Gizona zer den okasioneak behar du eman erakusterat.

Gaixtaginezko oste[44] zikin batek herrestan zerabilan Jesus tribunalez tribunal, oihuka eta orroaz galdegiten zuelarik haren hilaraztea. Piarres urrundanik begira zagoen bere nausiari azkenekotz zer behar ote zitzaion bada gertatu. Jarraikitzen zaio Kaifasen etxeraino eta Kaifas lekuko gezurti batzuen entzuten ari delarik, nun dagoela uste duzue Piarres ? Hantxe tribunaleko ezkaratz batean jarria eta, alegia deus ez, supazterrean dago berotzen zenbait guardiako soldadurekin. Kaifasen neskato[45] bat ohartzen zaio eta iduriturik gizon hori lehen ere Jesusekin zabilala ikusi zuen hura bera dela ; erraiten dio : « Adi zazu gizon, zu ere, ene ustez, Jesus Nazaretekoaren lagunetarik zare...» Piarres izitzen da, ikaretan, dardaran dago emakume ezdeus horren aintzinean eta hor ukatzen dio zernahi juramentu dariolarik[46] bai eta ez duela egundaino gizon hura ezagutu, ez dakiela nortaz, ez zertaz ere mintzo zaion.

Horra, Jaunak Piarres. Egundainoko Piarres, neskato batek izitua bere nausi maitea ukatu arterainokoan. Zer zaitzue, girixtinoak ?

Hori dea bada mundu huntako puxantzia[47] guzien aintzinean kopeta haltorik[48] agertzeko gizona, hori dea bada hainbertze miliun etsai bentzutu behar dituena ?

Goazen beti aintzina. Kaifasen neskatoak halako izialdura eman zionetik indar guziez goragoko lan hari lotu arteraino, zenbat denbora uste duzue iragan behar zaiola Piarresi : hamar urte ? Hogoi ? Guardia emazue gero jadanik zahartzen abiatua ere dela.

Girixtinoak, ez da ez hogoi urterik ez eta hamarrik ere. Oro konda, bere preparailu guzien egiteko ez zaio gelditzen berrogoita hamabi egun baizik. Horra izaitekotz ere noiz behar den gizon flako eta herabe hori lehoin baten pare bilakatu, mundu guzia betan haren kontra altxaturik ere deusek ikara ez liroena[49]. Gagozin[50] begira.

Berrogoi eta bi egunen buruan gure Salbatzailea, ordukotzat hilen artetik pizturik, dakizuen bezala, leheneko leku beretan zabilana, igaiten da Olibetako mendiaren gainerat Piarresekin eta bertze apostolu eta dizipulu guziekin. Han mintzatzen zaiote azken aldikotz erraiten diotelarik : « Botere guziak emanak izan zaizkit, bai zeruan, bai lurrean eta orai zuek zoazte nik emaiten dautzuedan boterearekin ; barreia zaitezte nazione guzien erdian, erakutsozuete[51] nik erakutsi dauzkitzuedan guziak, bataiatzen ditutzuelarik Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean. Emazue mundu guzia ene legearen uztarriaren azpian. Bizkitartean oraino zenbait egun egon behar duzue Jerusalemetik urrundu gabe agindu[52] dautzuedan Izpiritu Saindua zerutik zuen gainerat jautsi arteraino.»

Hitz horiek erraitearekin Jesus igaiten da zeruetan gora eta emeki emeki suntsitzen[53] bere dizipuluen begietarik.

Nun zare orai, Piarres ? Nausiak utzi zaitu bakar-bakarrik lurrean zure apostolu lagunen aintzindari, segi dezazun berak hasirikako lana. *Tu es Petrus.* Orai orai haste zure lana. Orhoit zaite Nausiak zure gain utzi dautzula bere erresumaren munduko bazter guzietarat hedatzea. Orhoit zaite zer eman dautzun egiteko. *Tu es Petrus et super hanc petram ædificabo Ecclesiam meam..*

Eta Piarres badoha Olibetako mendiari behera, gogoa kexurik, bihotza ilunik. Badoha Jesusek erran bezala Jerusalemeko hirirat, han behar duela iguriki[54] Izpiritu laguntzaile zerutikako hura. Apostolu eta dizipulu guziak jarraikitzen zaizko eta oro elgarganat bildurik badagozi otoitzean etxe baten barnerik gorenean.

Iduritzen zait, ene aditzaile maiteak, ikusten dudala Piarres egun oroz, arratsalderat, bakarrik joaiten Olibetako mendi haren gainerat. Handik begi kolpe zorrotz bat emaiten diote ikus ahalikako bazter guzieri. Mundu hunek zenbat eremu duen neurtu nahi balu bezala.

Piarres, zeri zaude begira ? Nahi zinuke naski ikusi nun gaindika ibili beharra zaren eta zure Nausiaren Ebanjelioa nun gaindika behar duzun predikatu ?

Bai beha zozu mundu hunen hedadurari... Beha zazu iguzki ateratzeko alderat, beha zazu iguzki sartzeko alderat, beha zazu iparrerat, beha zazu hegorat. Ikusatzu nazione guziak, horra hor, hara han, guziak bizioaren ustelduraz gorputz hil batzuen iduriko bilakatuak, guziak herioaren itzalaz estaliak eta haren urrinaz usainduak. Hots, orai Piarres : *Vaticinare Petre, insufla super interfectos istos et reviviscant.*

Hots, Piarres, mintza hakiote gorputz hil horieri, igor zak hire hatsa horien gainera, eta pitz beitetz[55]. *Vaticinare Petre*... Mintza hadi Jainkoaren partez mundu galdu horri, ezagutaraz zok bere Nausi egiazkoa, ilkiaraz[56] zak bere ilunpe lodi horietarik. Zerk izitzen hau ? Egin zak zeru gorenetik hiri begira dagoenak erran daukana.

Eta horra hamargarren egunean, goiz alderat, nun aditzen den harrabots handi bat haize bortitz batekin. Dizipuluak dagozin etxea bere zimenduetaraino dardaratzen da. Suzko mihi batzu jausten dire zerutik eta Apostolu bakotxari bat gelditzen zaio bere buruaren gaineko aldean. Horra horra Izpiritu Saindua ! Horra orai nun agertzerat dohatzin haren dohainak eta haren bertuteak. Hasteko hor abiatzen dire lenguaia suerte guziez trebeki mintzatzen sortzetik ikasiak izan balituzte bezala. Ilkitzen[57] dire beren bilkuretako leku hartarik eta badohazi bakotxa bere alde Jerusalemeko karrikaz karrika, jenderik gehiena kausitzen ahal duten lekura. Preseski egun hura zen urteko besta handienetarik bat. Nun-nahiko jendeak baziren osteka etorriak Jerusalemerat nazione guzietarik.

Piarres badoha osterik jendetsuenaren erdirat, eta bere bozak eman ahala egiten diote bere lehenbiziko predikua. Lehen kolp[ean] hiru mila arima, orduan berean, girixtino bilakarazten ditu. Mintzatzen da bigarren aldikotz eta bertze bortz mila arimek galdetzen dute bataiatuak izaitea. Handik goiti ezin konda daitezke haren hitz bakotxak konbertitzen dituen jendeak. Urrats bakotxean mirakuilua dario. Azkenekotz jendea ohartzen da Piarres apostoluaren itzalak berak hilak pizten dituela, eta ingurunetako populu guzia haren ondotik dabila hil karraion[58]. Jende guzia Piarresen ondotik zoratua dabilala ikusirik, Lege Zaharreko apez, kargudun eta printzeek elgar aditzen dute Piarresen eta bere lagunen preso ezartzeko. Bainan alferretan. Piarresek ez du heien beldurrik, guziak ahalkarazten ditu eta ixilik geldiarazten. Heien entsaiu[59] guziak alfer dire gertatzen apostolu handi horren galtzeko.

Piarres badoha aintzina, herriz herri, erresumaz erresuma. Nun ere baitire hiri nausi handienak eta harat doha ausarkienik[60]. Ez da nehun sabantik, ez

puxantik, bere bidean, bere lanean, bere hitzetan traba dezakeenik. Hola holaka[61] badoha Erromaraino. Mundu guziari manatzen dion enperadorearen palazioraino. Orotan agertzen da deuseren ahalkerik gabe eta mintzatzen haltoki guziak bere azpiko balitu bezala. Asko jende handi, enperadorearen familian berean, asko gizon sabant, haren hitza aditurik, girixtino egiten dire. Erromako enperadoreak jakiten du nola apostolu horrek ari duen ezagutarazten populu guzieri errege bat, errege eta enperadore guziak baino gehiagokoa, nola haren erresuma hedatzen den leku guzietan bere tronuaren hirian, bere palazio eta gortean gaindika, jadanik nunbaitik etorririkako gizon horrek altxarazi duen bertze erresuma bat puxantzia guziez goragokoa. Berri horrek emaiten du enperadore jeloskor eta, baitezpada bera bakarrik nausi nahi hori errabia izigarri batean : eta berehala manatzen du girixtino guziak izan daitezen masakratuak. Jondoni Petriri zaio lehenbizikorik jazartzen eta Jondoni Petri hiltzen da gurutze baten gainean. Bainan hura hilik ere, enperadorearen burregoek zernahi eginik ere, apostoluaren obra beti handituz, beti azkartuz doha, eta huna orai hemezortzi ehun urte Jondoni Petri zimendutzat duen Eliza harek munduan beti irauten ; huna nun hainbertze erresuma ezeztaturik ere bazter guzietan, huna nun dagoen Jondoni Petrik bere eskuz altxatu zuen erresuma, beti bere lekuan, beti xutik, oro ingurunetan eroririk ere, beti azkar, oro denboraren bortxaz flakaturik[62] ere. Huna hemezortzi ehun urte Erromako hiriaren barnean badagoela Jondoni Petriren ondorioko gizon bat munduaren parte gehienari manatzen diona.

Eta orai akabatzearekin galdetzen dautzuet, ene aditzaile maiteak, nork egin du egundaino Jondoni Petri gure herri huntako patroin sainduak egin duen bezalako balentriarik ? Zer diozue orai, hastean zoro batentzat ginaukan Piarres gizon errumes hartaz ? Izan ote da, mundua mundu denetik, gerlari puxantik, errege famaturik, bere eskuko indarraren hatza lurraren gainean Jondoni Petrik bezala finkatu duenik ?

Zure graziak du, ene Jainko ona, hain gora altxatu saindu handi hori. Zure indarra zen haren baitan sartu eta haren egintza eder guzietan, haren handitasunean ; hara zeru gorenean inguratua daukan loria eta edertasun zoragarri hartan, zu bakarrik Jainko handia zu zaitugu adoratzen.

Otoi iguzu[63] saindu miragarri horren arartekotasunaren bertutez, otoi iguzu guzieri partalier izaitea haren saindutasunean eta gero haren zeruko zorionean.

Halabiz.

[1] lezake
[2] aldaketa handi
[3] beude, batuaz
[4] pobreki, xuhurki, eskasean
[5] doia
[6] maila(ko)
[7] dizkiela, batuaz
[8] pobre
[9] lehentxeago, oraintsu
[10] nekatu, unhatu, akitu...
[11] bizipiderik
[12] arerio
[13] diezaiegun, batuaz
[14] jakintsu(n)
[15] Gure kontra ala gure alde ? Noizkoa da predikua, 1855 ?
[16] indarberritua
[17] jeinu, abilezia
[18] zaie, batuaz
[19] ohitura txarren
[20] kasu huni
[21] dizkiona, batuaz
[22] zaudete, batuaz
[23] aterbean, gerizan
[24] borda txar bat, parte taulaz egina...
[25] jalgitzen/ ateratzen
[26] puska xehe
[27] gisa berean
[28] maila
[29] diela, batuaz
[30] deusetan aditua ez den
[31] didak, batuaz
[32] nau, to-ka
[33] nihaur
[34] hastiatuko, arbuiatuko
[35] bainaute, to-ka Senperen
[36] porroska, puska ttiki
[37] datozela, batuaz
[38] badauiate (badiate, batuaz).
[39] hatzaiela, batuaz
[40] traba izanik ere
[41] gogo pizgarriak
[42] deusen jabe ez dena ala funts gabea ?
[43] hezgaitza, ikasle txarra
[44] Ala « ospe » (fama)? Ademak « ospe » ezartzen du maiz gaurko gure « oste »-ren orde. Bi formak bereizten ote zituen ? Hemen « oste » erran nahi izan duela uste dugu.
[45] sehi
[46] sakreak burrustan jalgitzen zaizkiolarik
[47] mundu huntako boteretsu handi
[48] goraki, ozenki
[49] lezakeena

[50] gauden, batuaz
[51] erakutsazkiezue, batuaz
[52] hitzeman
[53] desagertzen
[54] igurikatu, goaitatu, zain egon
[55] bitez, batuaz
[56] jalgiaraz/ ateraraz
[57] jalgitzen/ ateratzen
[58] garraioan
[59] entsegu
[60] gehienik, lehenbizikorik, ausart
[61] holaxe
[62] arras ahuldurik
[63] emaguzu, erdiets iezaguzu

Certamen forte Dixit illi Dominus ut vinceret et
scirel quoniam omnium potentior est sapientia.
Juuenes igitur secum giudicii gaiz eni baten adirat.
hondic gurraitiar atherra cadin, eta jaquin eçan
nolaz Jon Berthulen ur nahi baine hazcar ongi.
Cuhartelarenhitzetaric. XV. cap.tio

Guirichlinoac,

Balentria handiac asco ahal dira cussi çan dira
esca jende ahal handicoari mundu huntan eguiten
Gualari funatu batçuari, bitoria gaitçar emaiten
dio eaçu helaz mintçaten aditzea. Idor çaio
gure naturalaçu hunci jaguilas gueçum aiz hala
hec gure naturalecaticaco, gura artelicaco ambit
eralar hiru handitasunac asmaiz gueroni handitzen
baguinte baçala eta gueroni hec bizalaco erbeitzen
eguitzea casu beratzen gai baguinte baçala.

Beude balentria ceuts her eta heien
eguiteac. Dues ez ceiçguit eçungo egun huntan
çuri aphatceu. Berteracric, handichagoric
behar dautçuet diarai. — Bai egun Jondoni
Juliano çuen patroin loriosari behar dautçuet
beharai, eustea nolacoac diren Berthuteac
eguiten daguizcan balentria saindoac, nolacoac
diren berthuteac eremaiten ditüen bitoriac. . .
Ceuco dohaueri dercçaiote; dercçaio Jaincoari
berari halaco ineguerieri behatzea. Thentia
baiz zu bezalaco mundu huntaco guerthaeri
hiçen eitzian bici diren batçuri!

O Juliano dohaena, Hauche da laudaiotsua
nohan! Egun çure laudatzeat eta laudatzen
entçutzeat hunat bitbuac zauden guiichtino
haueguiac behaude çutaz nola behar natçaie
elen mintçatze, eta ni berriz behanago, çure
tzian, çure heristzean inhauri eta elgarran

gaiza aguertcen çaiz guidan berthutzari, exem-
plu miragarrieri, eta miracuilu handirri . . . . .
Behatuago eta harituago, bazaliza naiz jada
ezen harlu Judan çutaz mintçatzeco eztagua.
Othoi Saindu handia, ez guphidets menoz gure
laudorio hauc, othoi ene ditçaile maitea ez
guphidets çuez ere predica humen arrunta sua.
Çuri Maria adriçaten dzaz gueuac, aditels
ditçaguçun Izpiritu Jainoz eztazen arguiac.
Ave Maria.

Duela hamaberts bat ehun urthe, Yurich-
tinetasunaren langarren mendean, Antiochco
hirian Senhar emazte ubera batzuc baçuten
seme bat berthatua. Juliano ceen haren izena
Seme hura haur haurretic altchatu eta escolatu
çuten, ezcuin utzguen bazcin handiggui, berau
berenaz puchantasun arabera, adimendu

gayta harrec çuen hartu en eta harritzec
çorozta sunaren arabera, bainan oraz gainetic
Jainkoaren legues saindu naren arabera.

Ez Burasoac! Hain jende handi ezaric çaiti
eta ez çuten estimuric beren handitasun guciez
ez eulen estimuric beren semearen munduco
herronguetaric gorenetarat altchatzeaz, ez baçen
ten hartzaric eguiten oraz gainetic guirichtino
bat ona, eta bethetez gaindituna.

Zala hala, haur hura harritzeareguin, ez cen
hiri guciau aiphu, haren manera guisacoez,
haren exemplu eta calitate ederrez baicen...
Gayta celaric, bere aberastasunerc esques hunduta
ez aseguin guciac escuro citzquetaric, baçagon
apart compainia gaichtotaric, eta ez citzaion
lathet legues prestu eta guiçon berthutedun
batzueguin baicen... Horrelaco guiçon gayta bat
nore ez çuen estimatuco? eta nore ez ditu erat

[4]

ere bere estimuan gora altchatzenhura bezala-
zeac?... Oi ganza dezaydela Guirichtinac
Berthutzarquilac gaztetasuna. Gaztetasuna
lili dezu, bainan berthutea haren eskerrik
dezuna, berthutea da haren urain ongucia.

Gure Julianoc berez hemezortzi urthe-
eitzen; hura ezarequin ahal baitzuen behazquite;
Bere aitzamec erraiten diote ez zaitu behar
dela. Certaco erresaca hori Guirichtinac?
Ceren eta bazac jaincoliar hec baitzaquiten
gaztetasuna ezin den ezer cer; eta hec ere betiar
baituzen beren semearentzat.

Zer ere betiar! Julianoc bezalaco seme
bat izaiqui eta betiar! Ez afuntzu hura
bezala berthutean furatzua ezen gucion gazte
batentzat eman liteke humore ambitez!

Berez eman lic erobat berrce balec,
berez Julianoren aita amac ez ziren erraiko

Demboretaco nere burasco bayala, bethi fida
biren numa gaztari; fida asco ocasione eta
romyairietan dabiltzalarie ere, fida asco erre-
laciona eta engatamendutan barna sarthuac
direlarie eta, fida ez nahi leguitan eta ez
nahi tenorez.

Nor harritu Juliano gaztea harritu bra
uita amen ganic ädiu ençuncan eyrondu behar
cela, eta äducoty Julianoc garbitasunez co-
bolua jädunia eguina, äducoty bere beithan
deliberatua ez cela ez wäduco. Eta bere boluari
ceiu ernaya, bere deliberaciona atheiqui
behar; eta dembora berian ez nahi ponarie
eguin bere burascoac. Cer eguinen ethä du?

Galdeguitean dilu çarpi eguin bere phiuba-
mendueçat eta Jainsari galdeguitico aguri
eta consseila. Çarpi eguin eta gau hac bädam-
matça ethoitzean. Diotarie. « Jauna ethoi

[6]

ceronez guida eta beira naçaçu halaw mottez
bdera nun. ene burasem nahiaren contra juan
gabe. atchiquiro baitut hauai gabe ere birjin
tate eta garbitasun seculacoaz eguin dautçidan
balua.

Çaspigarren gauaçuen horrela othoitçaun
eta beurarren bortchez flacatua bethartu
cinean. Lo dagolarie horra nun aguertzen
çaion Jesu Kristo, ermaitendiolarie eguin
deçan bere uita amen errana, bainan seguro
çan dadila, eztondurie ere beurturen duela
ossorie bere garbitasuna, eta hartu behar
zuen emaztea ere bardin birjina nahiro çaiola
egon.

Julianoz bere uita amari ermaitendiote
bere erreprestua, eta berehala Jaraunitzaren
urraxtan abiatzenda Basilisa hiri hartaco
etchera alaba bethar; presta ata aberaz batellin.

Ceriscugarça içan bideçan Cruzichtinoac
bai lurreco lehlucoentçat bai ceruric heiri
biha çaudenentçat. Bi arima, bi bihotz, bi
goyhutz hec eidu arteraino hain garbiçonac
eta guero ere hain garbi egoiteat Dohatuac
iustea ceuliçaco lehharri sarratu hartaz
elgarri juntatuçan. Cein saindugui eta ceiu
chiba garbiz!

Dohatu espos Jaincotiarac, adoraçen
ainetarat. Jaramaidu haudi hartarat hum-
billendiranac, bihotça garbiric. Ceuco
bendiciouac nasaigui adiestuo çuisan,
eta ez Jaunaren mudariciouac ainteinatic
merezitu eidoan, eta ez behhatuan ihausca
behhatua bera beçin desmustagarri beren bumac
Jainoaren begueletan çarri eidoan.

Bere ahaide, dichoudu guciin eidiran,
beren espos eguneco alegrantçiaren artetic

Juliano eta Basilisa Jaunoaren amodioz-
sustatuac çaudan. Bizamenetz ätsuntzen
dire biac, eta neiz ere etheitzean hasibaitire
sendituen dute arresa usain goçe bat.

Cer da usain bu hori, dio Basilisac, zerain
huntan eztda bada nihun arrosaric.

Julianoc ihardesten dio. hori da arima
gaitzen espresaren usaina. Jesukristo hola
da egoiten beren birginitatea contsecratzen
diotenequin. Guc ere nahi bacinic enequin
hatzen... bale hori equin Jaunaren complac-
entzia gucinc guretzat litezque.

Bai eta gogotic, dio Basilisac, geregin
balzac utho equiten dut lurrcu aregin
gucieri gure aregin batthana içan dadin
Jesukristo.

Othoi Jaincoa Jauna, diote ciduan biac,
finca gaitzatzqu chide saindu huntan.

Noinbeitomaiequin hac Deuden gambera
ilharatcenda, aqui der batec inguratcen
ditu, eta Jesukristo hor aquertcen çaiste
bere ama zahetzean eta Zebazuco oçu
hande batem adian.

Dohatzu heiem artelic Rizjinac berem
boz ezticac altchatiz hartendira cantatzen
Julianaren eta Basilisaren landorisac,
eta denbora berean Jesusac eta Mariac
bessualcen ditutzte berem amodiocaren
gainedura guciaequin.

Cer da gurthacari hau helacoric, Gurich
tinac? Cer, bi aqios, bi presuna horiem
galdi cenguecia casic bere betbetis higuitza
Eg ichedu zobera?.. Eg ican cama berein
derricaro eta gaibiricaco arimac eta burthu
zac, ceuda ceuliarrez çeau daitcen
bizitaluac.

[10]

[JONDONI JULIANO]
(Ortzaizen egin predikua)

Certamen forte dedit illi Dominus ut vinceret et sciret quoniam omnium potentior est sapientia.
Jaunak igorri zuen gudu izigarri baten erdirat handik garhaitiar[1] atera zadin eta jakin zezan nolaz den bertutea zernahi baino azkarrago.
(Zuhurtziaren hitzetarik, 10. kapitulutik)

Girixtinoak

Balentria handiak asko aldi[2] ikusi izan dire asko jende ahal handikoeri mundu huntan egiten. Gerlari famatu batzueri, bitoria gaitzak eremaiten. Eder zaiku hetaz mintzatzen aditzea ; eder zaio gure naturaleza huni jakitea gizon aipatu hek gure naturalezatikako, gure artetikako zenbait zirela, heien handitasunak kasik geroni[3] handitzen bagintu bezala eta geroni heiek bezalako zerbaiten egiteko, kasu beretan, gai bagine bezala !

Beude balentria suerte hek eta heien egileak. Deus ez zaizkit egungo egun huntan zueri aipatzeko. Bertzelakorik, handixagorik behar dautzuet adiarazi. Bai egun Jondoni Juliano zuen patroin loriosari behar dautzuet beharazi, ikusteko nolakoak diren bertuteak egiten dakizkan[4] balentria sainduak, nolakoak diren bertuteak emaiten dituen bitoriak. Zeruko dohatsueri eder zaiote, eder zaio Jainkoari berari halako ikusgarrieri behatzea. Pentsa beraz guk bezalako mundu huntako gertakari hitsen erdian bizi diren batzueri !

Oi Juliano dohatsua, hauxe da lanari lotzerat nohan ! Egun zure laudatzerat eta laudatzen entzuterat hunat bilduak dauden girixtino hauk guziak beha daude zutaz nola behar natzaioten mintzatu, eta ni berriz beha nago, zure bizian, zure heriotzean inhaurri[5] eta elgarren gaizka[6] agertzen zaizkidan bertuteeri, etsenplu miragarrieri eta mirakuilu handieri. Behatuago eta harrituago, lotsatzen naiz jada zeren hartu dudan zutaz mintzatzeko kargua. Otoi, Saindu handia, ez gupidets[7] ene nolazpeiko laudorio hauk ;

otoi, ene aditzaile maiteak, ez gupidets zuek ere prediku hunen arruntasuna. Zuri, Maria, adrezatzen[8] gare guziak, ardiets dietzaguzun izpiritu jainkozkoaren argiak.

Ave Maria...

Duela hamabortz bat ehun urte, girixtinotasunaren laugarren mendean, Antiokiako hirian senar emazte aberats batzuek bazuten seme bat bakarra : Juliano zen haren izena. Seme hura haur haurretik altxatu eta eskolatu zuten egin zitekeen bezain handizki, beren erronka[9] puxantaren arabera, adimendu gazte harek zuen hartze on[10] eta harritzeko zorroztasunaren arabera, bainan oroz gainetik Jainkoaren lege sainduaren arabera.

Zer burasoak ! Hain jende handietarik izanki eta ez zuten estimurik beren handitasun guziez, ez zuten estimurik beren semearen munduko erronketarik gorenetarat altxatzeaz, ez bazuten hartarik egiten oroz gainetik girixtino bat ona eta bertutez gainditua.

Hala hala[11], haur hura larritzearekin, ez zen hiri guzian aipu haren manera gisakoez, haren etsenplu eta kalitate ederrez baizik. Gazte zelarik bere aberastasuneri esker, munduko atsegin guziak eskuko zituzkeelarik, bazagoen apart[12] konpainia gaixtoetarik eta ez zitzaion laket lagun prestu eta gizon bertutedun batzuekin baizik... Horrelako gizon gazte bat nork ez zuen estimatuko ? Eta nork ez ditu orai ere bere estimuan gora altxatzen hura bezalakoak ? Oi gauza ederra dela, girixtinoak, bertutearekilako gaztetasuna ! Gaztetasuna, lili ederra, bainan bertutea haren kolorerik ederrena ; bertutea da haren usain on guzia.

Gure Julianok beraz hemezortzi urte zituen ; hura zenarekin ahal baitzuen behatzaile ! Bere aita amek erraiten diote ezkondu behar dela. Zertako erresaka[13] hori, girixtinoak ? Zeren eta girixtino Jainkotiar heiek baitzakiten gaztetasuna zein den erorkor eta hek ere beldur baitziren beren semearentzat.

Hek ere beldur ! Juliano bezalako seme bat izanki eta beldur ! Zer afruntua hura bezala bertutean finkatua zen gizon gazte batentzat, erran lirote[14] hemen zenbaitek !

Beraz, erran liro[15] orobat bertze batek, beraz Julianoren aita amak ez ziren oraiko denboretako asko buraso bezala, beti fida beren ume gazteeri ; fida asko okasione eta konpainietan dabiltzalarik ere ; fida asko errelazione eta engaiamendutan barna sartuak direlarik ere ; fida zernahi tokitan eta zernahi tenorez.

Nor harritu, Juliano gaztea harritu bere aita-amenganik aditu zuenean ezkondu behar zela, eta ordukotz Julianok garbitasunezko botua[16] jadanik egina ; ordukotz bere baitan deliberatua ez zela ezkonduko. Eta bere botuari ezin arnega[17], bere deliberazionea atxiki behar, eta denbora berean ez nahi penarik egin bere burasoeri ! Zer eginen ote du ?

Galdegiten ditu zazpi egun bere pentsamenduentzat eta Jainkoari galdegiteko argi eta kontseilu. Zazpi egun eta gau hek badaramatza otoitzean, dioelarik : « Jauna, otoi zeronek[18] gida eta begira nazazu halako moldez bederen nun, ene burasoen nahiaren kontra joan gabe atxikiko baitut hautsi gabe ene birjinitate eta garbitasun sekulakoaz egin dautzudan botua.

Zazpigarren gaua zuen horrela otoitzaren eta baruraren bortxaz flakatua lokartu zenean. Lo dagoelarik horra nun agertzen zaion Jesukristo, erraiten diolarik egin dezan bere aita amen errana, bainan segur izan dadila ezkondurik ere begiraturen[19] duela osorik bere garbitasuna, eta hartu behar duen emaztea ere berdin birjina nahiko zaiola egon.

Julianok bere aita ameri eremaiten diote bere errepostua, eta berehala sakramenduaren urratsetan abiatzen da Basilisa hiri hartako etxeko alaba bakar, prestu eta aberats batekin.

Zer ikusgarria izan bide zen, girixtinoak, bai lurreko lekukoentzat bai zerutik heieri beha zaudenentzat. Bi arima, bi bihotz, bi gorputz hek ordu arteraino hain garbi egonak eta gero ere hain garbi egoiterat dohatuak ikustea zerutikako lokarri sakratu hartaz elgarri juntatzen. Zein sainduki eta zein xede garbiz !

Dohatsu espos Jainkotiarrak aldareen oinetarat, Sakramendu handi hartarat hurbiltzen direnak, bihotza garbirik, zeruko benedizioneak nasaiki ardiesteko[20] gisan, eta ez Jaunaren madarizioneak aintzinetik merezitu ondoan, eta ez bekatuan ihauska, bekatua bera bezain desgustagarri beren buruak Jainkoaren begietan ezarri ondoan.

Bere ahaide, adixkide, guzien erdian beren espos eguneko alegrantziaren artetik, Juliano eta Basilisa Jainkoaren amodioz sustatuak zauden. Azkenekotz aldaratzen dire biak, eta noiz ere otoitzean hasi baitire senditzen dute arrosa usain gozo bat.

« Zer da usain hori, dio Basilisak, sasoin huntan ez da, bada[21], nehun arrosarik ?»

Julianok ihardesten dio : « Hori da arima garbien esposaren usaina. Jesukristo hola da egoiten beren birjinitatea kontsekratzen diotenekin. Zuk ere nahi bazinio enekin batean botu hori egin Jaunaren konplesentzia[22] guziak guretzat litezke.»

« Bai eta gogotik, dio Basilisak, zurekin batean uko egiten dut lurreko atsegin guzieri, gure atsegin bakarra izan dadin Jesukristo.»

« Otoi, Jainko Jauna, diote orduan biek, finka gaitzatzu xede saindu huntan.»

Hainbertzenarekin hek dauden ganbera ikaratzen da, argi eder batek inguratzen ditu, eta Jesukristo hor agertzen zaiote bere ama sahetsean eta dohatsuzko ospe handi baten erdian.

Dohatsu heien artetik Birjinak, beren boz eztiak altxatuz, hasten dire kantatzen Julianoren eta Basilisaren laudorioak eta denbora berean Jesusek eta Mariak besarkatzen dituzte beren amodioaren gaindidura guziarekin.

Zer da gertakari hau holakorik, girixtinoak ? Zer ? Bi espos, bi presuna horiengatik zeru guzia kasik bere lekutik higitua ! Ez ote da sobera ? Ez, ezen zerua bezain ederrikako eta garbirikako arima eta bertuteak, zuzen da zerutiarrez izan daitezen bisitatuak.

Bildumagilearen oharra. Prediku hunek bazukeen segida bat baina ez dugu aurkitu ahal izan.

---

[1] garaile
[2] aldiz
[3] guhaur
[4] dakizkien, batuaz
[5] ihaurri (ugari)
[6] elgarri gaizka ≈ zein gehiago(ka)...
[7] ez gaizki har, ez gutiets
[8] zuri buruz itzultzen... eskatzeko)
[9] maila
[10] ikasteko errextasuna
[11] halaber
[12] bereiz, aparte
[13] presaka
[14] lezakete
[15] lezake
[16] Jainkoari zinez hitzemaitea
[17] uko egin
[18] zuhaurk (zuk-en indargarria)
[19] begiratuko, zainduko
[20] erdiesteko, batuaz
[21] alta bada
[22] egitate on

[1]

Ez gara bada gu holaxe? Dohaire minmaz Duriz je behar luke gure bihotza, eta ez dugu aguertzen alegrantziaric baicen. ... Ez ote dugu bada bihotzik?

Bai. Curichilinao, badugu bihotz bat, eta presuguri bihotz hunen garatzatz bozkariatzen gaudegunegun huntan.

Gure ama ona hil zaiku; bai ordean pizte ere. Gure ama ona hil itzaiku... ordean ez heriotza gozoa ez heriotze miragarria, ez heriotze arrata!... Urrun urrun heriotze huntarik berta. heriotzetan aurkhitzen ohi diren ikhusi ezigarriac.

Zergatik berta eman Maria heriotza aingeruru der baten ikhusiaz ohori itzaizuzan erranitzerat;

« Orai alkhabe dire gure desirenac egunac. Gaz, libre zaez, hegatza zaite; horra nun gure Semea maitea horra nun ezuzu puchantzia guziac heldu zaizuztenac bidezat. »

Ohentzat Curichilinao, ez ohorea ez biamfa, ez bestac bhal zagozan

[3]

beçala!, bainan ene ahalen flaquta-
çuraiçu arabera.

Jddanic çuen! alentionaçuen
ceuhalac, çuen ichillaçuce, eta
çuen ogetico malde dituac, naiçaqui
çue alimaliçu naute.

Çu eddean Maria, çue bonu
distiantaren çaindetic, beha diçaçuçu!
eta onhets çaçue çutaz ditiçun lau-
dorio hauc. Diçnaçu çu laudatu Virge
sarata. Olhoi laçuc, aqui eta guda
çaitçatcu).

Ama Maria.

Jalbaçaitea çaucat çaun
can eddean, bai ama saindua
çaldita utçaiçu çaine çambaik
çumbaraçuçuçat, apostoluen eta
lehenbiciko fededuncen eddeanc: çaun
Elia çorthiu berriaren çaraldac
çaro hologui laçuc çatçaçuçan
Jesus hauçaçunac bertan bidaz la-
çundu ditiçunac baino?

[4]

Bertutez. Apostoluez. beren
ganat dibinen berenguidan ibilliren
guchiago ez izusiz baçuten haste
hartan seguric Mariaren izenean
beharra.

Hala haladen ez çuten
eguiten Mariari beren bizimagui-
rri. beren erreguinari beratabehatz
baicen.

Ez nahi kaba, nahigabe.
eta ezcararenganiaco desmasiakiz
Khi çadin heien bidean. Maria
çuten bethi beren ihestekhoa.
Maria çuten beren bihotz altchatçai-
lea, beren consolua, beren arguia
eta guida.

Hambeste behar eduki, çuiz
Jaunaren nahi ezinduari behatuz.
ama ori hara gogatic ezgoi hurreco
bere umei heien artean.

Nor edeican eta ez ahantçaiz
haren bihotçari. ezurat iganaraitz
çaion seme maite hura?

Ez çaquisiriaz ezica erreguinarentçat
bere ertetic hain urrun
desertatuen egaitea.. Ez vinhaczat,

[5]

[6]

[7]

[8]

salbaleorat. Orai eguco dohatsu
guciac, Jaincoari eskuz daude, Sal-
balegilearen ama beren artean çoçalte
bakarrez. Beren geze eta aztequin
gaindizcaro guciên editic, corion bat
tute escas craino Maria berez be-
nurat igaiten icusiba, eta hari
certe eguitsa.... Ci cein gogotic
emçuten bide citiuen Jaincoac heion
gatic eta suspira hunquigarriac.

Eg dirá ez, iz pilitu hutsa eta
arima justu hac bakharrac Maria-
ari, educo albeac çabaldu nahiac
daudenac... Aita eternalac ez
ahal dagoca guliaga gogoan bere
alaba maitearen sorhçanatcea,
profetaren hitz hauçtuen arabera;
« Audi çaçu ene alaba, ceruac nola
dagon eure gutaz, beha çaçu hunat
eta ikus hamen ceu dagocan çure çaulat.
Bai bastor ezten eta ahanzten ahal
duçu eure seme lehena. Jaguin
çaçu, ceru luzen ereguenak bera dela
eure Dertasunaz dena hartua eta
eras ço nahitua. Audi filia et vide,
et inclina aurem tuam, et obliviscere

populum tuum et domum patris tui, et
concupiscet rex decorem tuum.

Sume ?aincrae ne bere ?Bebid, eg
ahal dagozca ahanteiac, Eduratei
?Bebethez garmiatu çuten erai sarratu
hec. « Ci çu lumorat, auai nirlocuna
bertce cerubat çure baithan gogaraci
çimastana), çale amat, cale, bestecuse
baten para heçatea çaite ene ganat.
Surge amica mea, columba mea et veni.

Zyurita saindua beriz, eroth
dagoca) bere espes hautesiarentçat
lehia, amodio eta suspira, e Odean
ene espes çaibi eta saindua, çu
Testeru hartan ineiaz minhartoen
hoçala du ene bihotçac. Vulnerasti cor
meum soror mea sponsa. Çale ordean
çale ene lili Dio eta maitea! hamen
nahi çaitut nire humbil nesanez
laudata. Veni in hortum meum soror
mea sponsa.

Ci, Quirichtinac, Cantiac çuna
Cuintale ederagoaia bere! horrela
Maria beren ganat helarari nahica
luac diranaz gueroz, nri beha egon
beharrac othe gare?

Nun ezkondu Maria?... Eztuqui
ezcutatzen nun eta noiz egin zeuden
ezkontzak?... Ingoitirik eure testamentuan.
Baina eguneko ez dezagutzen gurhiaga
iraun).

Haimbertzenaregatik, diskretoki
saindu batzuek, Aingeruen bat jausten
zaio Mariari ezcutic, Gabriel,
beharlaco altian Jainkoaren ama
eskoz berria ethorri eiten ainguerua
hura bera. Oraino huntan, cerothe
ezkhargue bani?... Mariac bere
azquenerako humiltzen dezala, eta
haren beharzaren mahiaren entzunez
iran dezala.

Denbora berean, entzuten dire,
die, San Jeronimo, boz ederrenagoz
eta zoragarri batzuk, Mariak bere
descanuaren harzean dagoen lekhuan,
eta ezcutiraco argui batez betheteen
baina hura gucia.

Oraicotic Apostoluac eta Eliz
Eudarrac, beren ama dohamen badohaco-
tela... Bihotzak bisberez, eta nigarrez
beguian hurbilleen eraizez, haren azken
hitzen dithezat, eta ezken bendiciona

[12]

Apostoluac berac, sacratuac beha
dagozca, ez dute hilz bat eguiten, ez
diue maguitean, ez daguela casic men
tiran.

Cui cagozte beha? o Galileaco
guizonac? Ez duque ontzun aiphtian
euci sacratu haien cobalio alhaiatean
has beharapen bat guiz ez lia ez dagozcu?
Zerbiherapen haregui balean ciratu
du Mariaren arima bere semearen
bihoteerat.

Aizbeit Apostoluac charteen
diue, ez dutela berem beguien biehtan
gorphuz biriz gabeki bat bacem.
Ohartuten ardha gucaraguin alhal
con dute, amdiiac asma ahaliceac
ohare guciac eguiten diozcate, eta
ez ciaten dute hobi Der balean.

Cuirchtinac, antzinago juan
gabe, hica gatten, cembeit anocoinamen
du laburren eguiten.

Ferietea bethiaturen gaztigua
bethaturen ume da. Bethaturic
ican ez baliz ez cen ipanen Christoric
Per peccatum mors. dic Jaudoni Paulec.

Jesu-Kristo bera ez ezen hil gure bethe-
tzar bere gain hartu eztituelacotz batean.

Baiman Maria certaro hil behar-
zen. Egundaino bethatuarren itzpalac
hunguilu ere ez ezen creatura gaiz
gabe bera, nola hil ezteguien? Ez
ihardoesia diegu horri?

Nahi dut hemeac ez ezguela
Mariarenguin equitezerie. Baiman
Jesu-Kristo bilez guerozkie, heriotzea
ganza bat eitzaien gaiz. Berra-beta
guticiagarria. Nahi guen baitez bada
ama Dohaan harrec, ganza guztian
bere semearen idurica igan.

Bertzalde nahi euen Jaincoac
creatuen bat izan gabeki, merecitu ga-
bec heriotza balez, nothario gabeco
sacrificio bat eguin ezaguiscena. Nahi
euen Jaincoac, itthas ezatan guriek-
lineec, Heriotzea ez dela bettetzeen
bethatuen hiltzen direnentzat baiman.
baiman dela guztian Aitegueen aaz-
guinezungarriona, sacrificiodan
herrehena Jaincoaren amddizan
hiltzen direnentzat, ezeuzac lehia
Mariac bepalicoa dutenentzat.

[14]

[15]

[16]

[17]

[18]

[19]

[20]

[21]

[22]

[23]

[ANDREDENA MARIAREN HILTZEA ETA HAREN ZERURAT ALTXATZEA][1]

Quæ est ista quæ ascendit de deserto deliciis affluens innixa super dilectum suum.
Nor da desertutik hoin gora altxatzen den hori atseginean igeri eta bere semearen gainean bermatua.
(Kantiken kantikan, 2. kapitulua)

Girixtino maiteak,

Familia batentzat behin ere izaitekotz doluzko, nigarrezko egun bat, hura da ama baten hil eguna.

Arren[2] egungo egun hunekin gure ama Jainkoak bereganat deitu zaukun eta huna nun bozkarioak gaindi egin duen gure artean !

Zer gare, bada, gu holakorik ? Dolurik minenak iduriz jo behar luke gure bihotza eta ez dugu agertzen alegrantziarik baizik... Ez ote dugu, bada, bihotzik ?

Bai, girixtinoak, badugu bihotz bat eta preseski bihotzdunak garelakotz bozkariatzen gare egungo egun huntan. Gure ama ona hil zaiku : bai ordean piztu ere. Gure ama ona hil zitzaikun... ordean zer heriotze gozoa, zer heriotze miragarria, zer heriotze arraia[3]! Urrun urrun heriotze huntarik bertze heriotzetan aurkitzen ohi diren itxura izigarriak.

Atsegin hartu zuen Mariak herioa aingeru eder baten itxuran etorri zitzaionean erraiterat :

« Orai akabo dire zure desterruko egunak. Zoaz, libro zare, hegalda zaite ; horra nun zure Seme maitea, horra nun zeruko puxantzia guziak heldu zaizkitzun biderat.»

Pentsa, girixtinoak, zer ohoreak, zer trionfa, zer bestak ahal zauzkan zeruak bere erreginarentzat, Aita eternalak bere alabarentzat, Seme Jainkoak bere amarentzat, Izpiritu Sainduak bere esposarentzat !

Nor da ordean gai holako gauzez mintzatzeko ? Zeruko aingeru bat jauts baladi gure arterat, Mariaren zerurat igaiteaz lekuko ziren izpiritu huts hetarik bat, heldu balitzaiku gertakari lorios hartako berrien emaiterat, ote

lakike bere aingeruzko mintzairan berean nola adiaraz mixterio hortako xehetasun guziz miragarriak ?

Eta ni zertarat etorri natzaitzue bada ? Eta nola naiteke atrebi aingeruek berek erraiten ez lakiketen gauza batez mintzatzerat ? Lotsaturik ixilik egon behar nindeke ; bainan ene gain hartu dudan eginbide sakratuak ez daut zilegi uzten ixilik ere egoitea.

Mintzaturen natzaitzue beraz ez egungo mixterioari zor litzaiokeen bezala, ez neronek[4] nahi nukeen bezala, bainan ene ahalen flakotasunaren arabera. Jadanik zuen atentzionearen seinaleak, zuen ixiltasunak eta zuen egoiteko molde ederrak, norapait ere alimatzen[5] naute.

Zuk ordean, Maria, zure tronu distirantaren gainetik, beha iezaguzu eta onets zatzu zertaz ditugun laudorio hauk. *Dignare me laudare Virgo sacrata.* Otoi lagun, argi eta gida gaitzatzu.

Ave Maria...

Salbatzailea zerurat igan zen ondoan, bere ama saindua gelditu zitzaion oraino zenbait denborarentzat, apostoluen eta lehenbiziko fededunen erdian ; ezen Eliza sortu berriaren urratsak nork hobeki lagun zetzakeen Jesus haurrarenak bertze orduz lagundu zituenak baino ?

Bertzalde, apostoluek beren nausi dibinoa berekilan ibiltzen gehiago ez ikusiz, bazuten haste hartan segurik Mariaren ikustearen beharra. Hala hala[6] deus ez zuten egiten Mariari beren buruzagiari, beren erreginari bezala behatuz baizik.

Zer nahi traba, nahigabe, eta etsaiarenganikako desmasia aurki zadin heien bidean, Maria zuten beti beren iheslekua, Maria zuten beren bihotz altxatzailea, beren kontseilua, beren argia eta gida. Hainbertze behar-orduri, guziz Jaunaren nahi sainduari behatuz, ama on hura gogotik zagoen lurreko bere ume heien artean.

Nork ordean eta zerk ahantzaraz haren bihotzari zerurat igana zitzaion seme maite hura ? Zer sakrifizioa, zeruko erreginarentzat, bere gortetik hain urrun desterratua egoitea... Zer oinazea Mariaren amodioarentzat, zeruko Jainkoa bere semea izanki eta lurreko ilunpe eta urruntasunetik baizik hari ez behatzea !

Zer desterrua, zer zoko iluna ahal zitzaion mundu hau, bere sabeleko fruitu benedikatua hedoietan gora joaiten ikusiz geroztik ! Zer hasbeherapenak igortzen ahal ziozkan ume dibino hari, hura berriz ikusi beharrez, harekin eternitatean gozatu beharrez !

Jainkoaren nahiak eta Elizaren beharrak ez balute estekan bezala iduki[7] gu gauden egoitza huntan, zer izanen ote zen ama on hura bere semearen ondotik hegaldatzetik trabatuko zuenik ? Amodioaren indarrak ez ote zioten berehala zart eginaraziko haren biziaren lokarrieri ? Nun da naturalezarik halako amodio baten suari ihardok lezakeenik ?

Mundu huntako ama guziek beren umeentzat dituzketen amodio guziak baterat bildurik egizue amodio bat. Zeruko aingeru eta saindu guziek, lurreko arima justu eta kartsu guziek Jainkoarentzat dituzten amodio guziak bildurik, egizue bertze amodio bat : gero amodiozko bi itsaso horiek bat eginik, sar beitetz[8] bihotz batean.

Zer amodioa, girixtinoak, eta zer bihotza ! Nun da naturalezak kreaturik horrelako bihotz bat, horrelako su bat atxik lezakeenik ? Zu baitan, Maria, kausitzen dugu indar mirakuiluzko hori... Amodio horren baino areagoko baten suak erretzen ari zintuen eta halarik ere bizirik zinauden ! Behartzen ahal zitzaizun zure naturaleza guzia mirakuiluz orhatua izaitea, eta kreatura bati emanak izan dakizkoen[9] bertute guziez azkartua izaitea. Zure seme maiteak gurutzearen gainetik bere azken hatsa zure gainerat aurdiki zautzunean, zerk xutik atxiki zintuen ?

Seme maite hura bera, zu hemen utzirik igan zenean zerurat, zerk atxiki zintuen bizirik ? Nunbait egia handia zioen Gabriel aingeruak erran zautzunean, Jaungoikoaren boterea izanen zinuela zure sustengu eta estalki. *Et virtus altissimi obumbrabit tibi.*

Bainan balin baziren lurrean Mariaren beharra zutenak, ez ote ziren zeruan Mariaren nahia zutenak ? Egoitza dohatsu[10] hartarat ordukotz helduak ziren sainduak eta hango aingeru guziak aspaldian beren erregina ikusi nahiak zagozin.

Ez zitzaizkon ixiltzen Jainkoari galdetzetik, otoi bere hurbileko tronu huts haren gainean lehenbailehen jarraraz zezan bere ama loriosa. « Altxa zaite Jauna : lehenago bere erraietan garraiatu eta deskantsarazi zaituen Birjina miragarri hura zure beha dago, otoi ager zakizkigute biak elgarrekin.» *Surge Domine in requiem tuam, tu et arca sanctificationis tuæ.*

Lehenago lurrak otoitz egin zuen eta Jainkoa bera jautsi zitzaion salbatzerat. Orai zeruko dohatsu guziak Jainkoari oihuz daude, salbatzailearen ama beren artean gozatu beharrez. Beren gozo eta atsegin gaindizkako guzien erditik, zorion bat dute eskas oraino : Maria bere tronurat igaiten ikustea eta hari gorte egitea... Oi zein gogotik entzuten bide zituen Jainkoak heien galde eta suspira[11] hunkigarriak !

Ez dire ez izpiritu huts eta arima justu hek bakarrak Mariari zeruko ateak zabaldu nahiak daudenak. Aita eternalak ez ahal dauka gutiago gogoan bere alaba maitearen bereganatzea, profeten hitz hauen arabera : « Adi zazu, ene alaba, zerua nola dagoen zure galdez, beha zazu hunat eta ikus hemen zer daukadan zuretzat. Bai laster uzten eta ahanzten ahal duzu zure sor lekua. Jakin zazu zeru lurren erregea bera dela zure edertasunaz dena hartua eta arras zu[taz] nahitua.» *Audi filia et vide et inclina aurem tuam et obliviscere populum tuum et domum patris tui et concupiscet rex decorum tuum.*

Seme Jainkoak ere bere aldetik ez ahal dauzka ahantziak bederatzi hilabetez garraiatu zuten errai sakratu hek. « Oi zu, lurrerat jautsi nintzenean bertze zeru bat zure baitan gozarazi zinautana, zato ama, zato, laster uso baten pare hegalda zaite eneganat.» *Surge amica mea, columba mea et veni.*

Izpiritu Sainduak berriz zer ote dauka bere espos hautetsiarentzat : lehia, amodio eta suspira : « Ordean ene espos garbi eta saindua, zu desterru hortan ikusteaz minartzen bezala du ene bihotzak.» *Vulnerasti cor meum soror mea sponsa.* Zato ordean, zato ene lili eder eta maitea, hemen nahi zaitut niri hurbil neronek[11] landatu. *Veni in hortum meum soror mea sponsa.*

Oi, girixtinoak, zerutiar guziak Trinitate adoragarria bera horrela Maria berenganat helarazi nahikatuak direnaz geroz, zeri beha egon beharrak ote gare ? Nun zaude Maria ? Ez duzu ikusten nun eta nortaz berantetsia zaren ? Ingoitirik[12] zure desterru huntako egunek ez dezakete gehiago iraun.

Hainbertzenarekin, diote autore saindu batzuek, aingeru bat jausten zaio Mariari zerutik, Gabriel, behialako[13] aldian Jainkoaren ama zelako berria ekarri zion aingeru hura bera. Oraiko huntan, zer ote dakarke berri ? Mariak bere azken orena hurbildua duela eta haren bihotzaren auhenak entzunak izan direla.

Denbora berean, entzuten dire, dio San Jeromiok, boz eta soinu gozo eta zoragarri batzu, Maria bere deskantsuaren hartzen dagoen lekuan, eta zerutikako argi batek betetzen [du] barne hura guzia.

Oraikotik apostoluek ez dute dudarik, beren ama dohatsua badohakotela...[14] Bihotza tristerik eta nigarra begian hurbiltzen zaizko haren azken hitzen aditzerat eta azken benedizione baten galdegiterat. Otoitz egiten diote, bere loriaren erditik ez detzan ahantz mundu huntako irriskuen artean uzten dituen umeak.

« Banoha, ihardesten diote Mariak, ene orena etorria da ; bainan ez zaiteztela lotsa[15]. Orai artean bezala gero ere zuen ama izanen naiz ; beti ene bihotzean garraiatuko zaituztet ; ni nohan leku zorionezko hortarik ez zarezte zuek ere beti hain urrun izanen. Ene podore guziez lagunduren[16] zaituztet eneganat heltzen. Izan zaitezte benedikatuak, ene haur maiteak, ene Seme Jainkoaren dizipulu fidelak ! Huna ene esposaren boza...»

Maria ixiltzen da, haren begiak goiti beha paratzen dire. Zer ikusten ote du ? Amodiozko eta zorionezko gaindidura baten seinalea ageri du bere aurpegi guzian... Hauxe da itxura miragarria ! Nork egundaino bere bozkariorik gozoenean izan ote du holakorik ? Ote da zeruan berean dohatsurik hoinbertze atseginez bihotzak gaindi egiten dionik ?

Apostoluak berak zoratuak beha dagozko, ez dute hitz bat egiten, ez dire mugitzen, ez dakite kasik nun diren. Zeri zagozte beha, o Galileako gizonak ? Ez duzue entzun aixtian[17] errai sakratu heien zolatik ateratzen hasbeherapen[18] bat guziz eztia eta gozoa ? Hasbeherapen harekin batean airatu da Mariaren arima bere semearen bihotzerat.

Noizbait apostoluak ohartzen dire ez dutela beren begien bixtan gorputz biziaz gabetu bat baizik... Ahal duten arta guziarekin altxatzen dute ; amodioak asma ahalikako ohore guziak egiten diozkate eta ezartzen dute (hil) hobi eder batean.

Girixtinoak, aintzinago joan gabe, trika[19] gaitezen zenbait arrazoinamendu laburren egiten. Heriotzea bekatuaren gaztigua, bekatuaren ume da. Bekaturik izan ez balitz ez zen izanen heriotzerik. *Per peccatum mors,* dio Jondoni Paulok. Jesukristo bera ez zen hil gure bekatuak bere gain hartu zituelakotz baizik.

Bainan Maria zertako hil behar zen ? Egundaino bekatuaren itzalak hunkitu ere ez zuen kreatura guziz garbi hura, nola hil zitekeen ? Zer ihardetsiko diogu horri ?

Nahi dut herioak ez zukeela Mariarekin egitekorik. Bainan Jesukristo hilez geroztik, heriotzea gauza bat zitzaion guziz ederra eta gutiziagarria[20]. Nahi zuen baitezpada ama dohatsu harek gauza guzietan bere semearen iduriko izan.

Bertzalde nahi zuen Jainkoak, kreatura bat izan zadin, merezitu gabeko heriotze batez, notarik gabeko sakrifizio bat egin ziezokeena[21]. Nahi zuen Jainkoak, ikas zezaten girixtinoek, heriotzea ez dela beldurtzekoa bekatuan hiltzen direnentzat baizik, bainan dela gauzetan daitekeen atsegingarriena, sakrifizioetan errexena, Jainkoaren amodioan hiltzen direnentzat, zerurako lehia Mariak bezalakoa dutenentzat...

Ez naiz harritzen egundainoko[22] saindu handi guziek adixkide eta zerbitzu egilerik hoberenari bezala behatzen balin bazioten herioari. Ez naiz harritzen errege profet baten auhenez ikusten zuenean bazukeela oraino denbora luze bat mundu huntan egoiteko. *Heu(?) mihi quia incolatus meus prolongatus est !* Eta bizkitartean errege zenaz geroz nehorentzat mundu hau laket-leku izaitekotz, harentzat bide zen. Bainan zeruari zion hemendik maiz behatzen eta gero ez zuen onik hango zorion eternala jastatu beharrez.

Jondoni Paulok berriz, jakinez geroz zerukotzat egina zela, zer desgustu ez zuen mundu hunentzat ? Nork libratuko ote nau gorputz hilkor huntarik ? *Quis me liberabit de corpore mortis hujus ?* Ai zer irabazi ederra hiltzea enetzat. *Mihi mori lucrum.* Bizitzeak lotsatzen bezala zuen, hain zuen berantetsia bere azken orena ; baitzakien apostolu handi harek bertze mundu, bertze bizitze hartan zer zaukan Jainkoak hura hemen guzien gainetik maite dutenentzat...

Gostu eta pentsa[tze]ko manera berak mundu huntako ilunpeetarik zeruko loriaren erdirat joan nahizko erresaka[23] bera bertze zenbat sainduk ez dute geroztik ere, aditu nahi zuten guzieri adiarazi... Zenbat ez dire orai ere bizi direnak, heriotze saindu bat lehenbailehen egin nahiak eta zoinak bozkariatzen baitire orhoitzeaz beraz hemengo denbora zein den laburra eta

laster hemengo egonaldia akabo dutela... Bai erran baitaiteke makur mintzatzearen beldurrik gabe : mundu huntako orenik atsegingarriena dela heriotze saindu baten orena ; mundu huntan jasta daitekeen plazerrik gozoena, azken hatsa, Jesus maiteak besarka gauzkalarik emaitea.

O Maria ! zuk dakizu zuk, atsegin horren berri. Zure heriotzean ez dugu aurkitzen, ez dolorerik, ez eritasunaren oinazerik, ez ikararik. Bertzeak sofrikarioak hilarazten dituen bezala, zu hilarazi zintuen amodioaren atseginak eta atseginaren indarrak. Behatu diogu, girixtinoak, Mariaren heriotze ezti, gozo eta dohatsuari. Eta orai zer behar ote dugu ikusi ?

Ager zaite beraz Jondoni Martine. Bertze orduz mundu guzia zuri beha zagoen bezala, gu ere orai beha gaudetzu. Zure denboretako jendeeri bezain eder zaiku ikustea nolako bizia zineraman urrats bakotxean, kasik mirakuilua zarraitzula[11]. Bainan oraino gehiago bozkariatzen gaituena da orhoitzea zu zarela zeruan herri huntako umeen ararteko hautatua, Jainkoaren aldean.

Jondoni Martine gure patroina den bezala, gure Ama zare zu, O Maria ! Beraz otoi lagun gaitzatzu Izpiritu Sainduarenganik ardiesten orai nik eta ene aditzaile hauek, behar ditugun argiak.

Ave Maria...

Jondoni Martine sortu zen duela hamalau ehun urteren ingurua[n], Hungariako herri batean eta, bere eskolak egin zituen Italian, Paviako hirian. Haren burasoak jende handi batzu eta paganoak ziren. Aita zuen Erromako enperadorearen armadan kargu handitan eta aita haren gutizia guzia zen semea ere egin zakion soldadu bainan egon zadin beti hura bezala pagano.

Martinek ahal baitzuen[12] bertzerik gogoan. Hamar urte baizik ez zituen, etxetik eskapaturik, joan zenean eliza batera eta han ardietsi zuenean girixtino gaien erronkan[13] sartzea.

Jakin behar duzue, aditzaile maiteak, girixtino gaiak zirela denbora hetan paganotasunari uko egin eta oraino zenbait denbora, orobat[14] zenbait urte, bataioaren goait egoiten zirenak ; orai apez gaiak apeztu baino lehen mundutik berexirik egoiten diren bezalatsu.

Handik bi urteren buruan, Martin abiatzen da, mundua sekulakotz utzirik joan behar duela desertuan saindutzerat. Bainan, adin eskasez, gelditu behar izan zen.

Handituago eta kartsuago, bere bihotza geroago eta apartago zaukan munduko gauzetarik eta haren adimendua berdin geroago eta gehiago ohartuz zohan lur huntako banitateen[15] enganioeri. Hala hala[16] ez zuen onik Jainkoarekin eta Jainkotiarrekin baizik. Oi gaztetasunaren ederra horrela bertutos[17] eta Jainkotiar deno ! Edertasun suerte horrek nun du bere parekorik, errazue gazteak, zer zaitzue[18]?

Hainbertzenarekin Konstantzio enperadoreak galdegiten ditu gerlarat soldadu zaharren seme guziak. Martin ere badoha nahitez. Armadan sartzearekin jada kargutan bide zen, ezen bazuen zerbitzari bat eta errana da

zerbitzari hura tratatzen zuela bere anaia bat bezala, askotan bera haren mutil izatu[19] balitz bezala. Nahiz hain aberats [izan], beretzat ez zuen kasik deus gasturik. Zituen guziez ordean gabetzen zen noiznahi bere azpiko soldadu eta ikusten ahal zituen jende errumes[20] guzien sokorritzeko.

Behin, neguko hotz handi batez, Amiens-eko portaletan[21] zagoen bere soldadu lagun batzuekin. Heldu da pobre bat dena biluzia, hotzez daldaran, otoi zerbait eman diezoten beztitzeko. Bertze nehork kasurik ez egiten eta, zer egiten du Martinek ? Kentzen du soinetik bere kapa, ezpataz pikatzen du hartarik erdia eta, bertzerik ez ukanez, emaiten dio pobreari, eta bera ahal duen bezala estaltzen da bertze erdiaz. Lagunek bazterretik irri, bainan Jainkoa zerutik beha...

Ondoko gauean zer gertatzen da ? Jesukristo aingeru tropa batekin agertzen zaio Martini bere ohe aintzinerat dioelarik :« Beha zak, Martin, ezagutzen dukanetz ene soineko hau...» Martinek behatzen du eta ohartzen da bezperan pobreari emanikako kapa erdi hura duela Jesukristok soinean. Orduan Salbatzaileak erraiten diote bere aingerueri : « Beha zazue, zuek ere, nola Martinek, oraino girixtino gai baizik ez izanki eta, nola nauen kapa huntaz beztitu.»

Baginaki bada ontsa, girixtinoak, Jainkoak zer estimu handia egiten duen jende beharraren[22] alderako karitateaz eta bertze gainerako obra on guziez. Baginaki ontsa juje eternalak zer konduak galdeginen dauzkigun egun batez, berak guri mundu huntan emanikako ontasunen enpleguaz ! Orai beretik, denbora deno, ez ote du balio gauza horri kasu egiteak ?

Aipatu dugun gertakari hortarik laster Martin bataiatua izan zen... Girixtino da bai ; ez zaio iduritzen gehiago mundu huntakoa dela ere. Galdegiten du bere aintzindarieri utz dezaten armadatik joaiterat. Enperadoreak jakiten du hori. Preseski haren tropak biharamunean suan[23] aritzekoak ziren. « Zer soldadua hi, erraiten dio enperadoreak, bihar suan armada guzia ari behar eta hi beldurrez ihesi ?» « Ni beldur, dio Martinek, ni ihesi ? Hori uste duzunaz geroz egonen naiz oraino, bainan nahi dut bihar deus armarik gabe, ene gurutzearen seinale xoilarekin ezar nazazun etsaien aintzinean, lehen-lehenbizikoa, joaiten naizela bada ni, heien lerroak hautsirik hetaz bertzalderaino.»

Uste zuen enperadoreak, Martin balentriaz mintzo zela hola. Manatu zuen biharamuneraino guardia zezaten eta sua hasteko ponduan[24] para[25] zezaten berak galdetu bezala, etsaia nun ere baitzen azkarrenik eta heien aintzinean. Biharamunean, ordean, goizean goiz, hor heldu zaizko enperadoreari etsaien enbaxadoreak bakearen galdez otoizka eta, suan ari gabe amor emaiterat.

Guziek ez zuten bertzerik pentsatu baizik ere, Martinen otoitzeri esker, Jainkoak gau hartan kanbiatu zituela etsai heien xedeak eta enperadoreari eman, deus gosta gabe, abantail bat edozoin bitoria baino handiagoa.

Martinek orduan berean ardiesten du bere soldadugoaren uztea eta, entzunik Poitiers-ko hirian bazela apezpiku saindu eta famatu bat Hilario deitzen zena, badoha abiaduran[26] harenganat, haren dizipulu izaiteko. Hilario sainduak Ebanjelioaz nahi izan zuen berehala ordenatu[27], bainan Martinek ez zuen utzi, erranez sobera zitzaiola kargu hori, eta frango[28] zela, hura bezalako batentzat, zerbait gutixago ere.

Hemendik aintzina, girixtinoak, Jondoni Martinen urratseri mirakuilua purrustan[29] dariote. Zein hauta, zein utz erran gabe... Hautatzeak berak lanak ditu... Eta denbora ere bertzalde xuhurxko dugu. Goazen apur[30] bat hola hola.

Hilario apezpikuarekin zagoelarik Jainkoak manatu zion Martini egin zezan bidaia bat bere sor herrirat, bere burasoak oraino paganoak baitzituen, heien konbertitzerat. Alpes-etako mendietan barna dohalarik ohoin batzu heldu zaizko biderat ebatsi eta hil behar dutela. Bat sabre ukaldi bat emaiterat zohakon bere lagun batek ez balio besoa trabatu. Estekatzen dute arbola bati, zituen guzien kentzeko eta hantxe daukatelarik amarratua, batek galdegiten dio : « Errak nor haizen.» « Ni naiz girixtino bat » ihardesten du Martinek. « Baduk beldurrik ?» diote ohoinek. « Nik, beldurrrik sekulan, ezen badakit Jainkoa nerekin eta nere alde dudala.» Azkenekotz bere sanfretaz[31], bere elhe onez, harritzen ditu gaixtagin hek, nun uzten baitute libro, deusik egin gabe eta hetarik bat bizitzez kanbiaturik handik laster sartu baitzen fraide.

Milango hiritik haratxago, debrua agertzen zaio gizon baten itxuran eta erraiten dio : « Norat hoa, Martin ?» Martinek errepusta : « Jainkoak norat ere gidatzen bainaik[32] eta harat.» Debruak berriz : « Noranahi joan hadin eta zernahi egin dezakan, jakin zak debrua izanen dukala beti partida.» Martinek orduan : « Jainkoa, ordean, ene alde diat[33], ez diat hire beldurrik.» Hori erraitearekin debrua han berean suntsitu zitzaion.

Bere sor herrirat heldu eta, zernahi ikusi zuen bere burasoeri gure Jainkoa ezin ezagutaraziz. Bere aita sekulan ez zuen ateratu ahal [izan] bere gogortasunetik, bainan ama eta bertze frango itzuli ziren gure erlisionerat.

Handik Frantziarat itzuli zenean, bere lehenbiziko lana egin zuen berekin zituen zenbait fraiderentzat komentu baten egitea. Arren[34] bazen heien artean girixtino gai bat gure saindua kanpoan zen aldi batez, bet-betan eritu eta hil zena bataiatzeko denborarik izan gabe. San Martin heldu da ehorzterat zeramatelarik. Behatzen dio hilari, eta aterarazten ditu guziak haren ganbaratik kanporat. Borta hesten du eta han, bakarrik delarik, etzaten da gorputz hil hotz haren gainean, zabal-zabala, otoizten duelarik Jesukristo bizia bihur diezon hilari.

Otoitz hori akabatu bezain laster, hila hor pizten da. Hainbertzenarekin, ganberako bortan goait zaudenak sartzen dire eta nor harritu, hek harritu,

ikusirik heiek doi-doia ehorzterat zeramatena, hek bezain ontsa bizi. Berehala bataiatu zuten eta bizi harek iraun zion asko urte.

Bertze aldi batez, jaun handi baten mutila[35] urkatua kausitu zuten. Jondoni Martine badoha gorputza altxatua zuten lekurat eta, otoitzean hasi den bezain laster, hila pizturik xutitzen da, hartzen du bere piztailea eskutik eta segitzen etxe haren aintzinerat bildua zagoen populu ostearen erdian gaindi.

Denboratsu hetan beretan, Tours-eko hiria apezpiku baten beharretan zen. Guziek boz batez Jondoni Martine behar dutela. Ordean, nork atera gure saindua bere komentutik ? Gehiago dena nork harraraz hari apezpikutasunaren kargua... Gizon bat bizkitartean kargatzen da gauza hortaz. Zer egiten du ? Badoha komentuko atera, emaztea eri duela eta San Martinen galdez dagokola erranez, ilkiarazten[36] du.

Ilki bazen, ilki zen. Populu guzia kanpoko aldean ixil-ixila eta gorderik zagoena heldu zaio sainduari bet-betan gainerat, eta berak nahitez, bortxaz eta airean, eremaiten dute elizarat eta han, oro prest zaudelarik hartako, Martin kontsekratzen dute apezpiku.

Hemen lan handiegia liteke, girixtinoak, erraitea nolakoa zen Jondoni Martinek, apezpikutuz geroztik, zeraman bizia. Haren bihotzeko sua, haren bertute miragarriak, haren penitentzia harrigarriak, haren barur garratz eta kontinokoak[37], harek bere buruaz egiten zuen mespretxioa, haren nornahiren alderako ontasuna eta begitarte[38] amultsua.

Behin, bere diosesako[39] herrien bisitatzen zabilalarik, gertatu zen bide batean bakarrik, bere segidakoak gibelaxko gelldituz. Ikusten du heldu zaiola aintzinerat karrosa bat soldaduz betea. Hurbildu direnean, zaldiak izitzen ditu Martin apezpikuaren arropak eta nehork ezin gehiago aintzinaraz detzazke. Soldaduak samurtzen dire Martinen kontra ; jausten dire karrosatik eta makila kolpez ehotzen[40] dute, hiltzat bide hegian uzterainokoan. Ezen ez zakiten batere nor zen eta saindu handi horrek berak ere hitz bat erran gabe uzten zituen nahi zuten guzia egin ziezoten. Noizbait, hargatik[41] bere segidako apezak heltzen zaizko. Harrapatzen dute umatua[42] erdi hila, odoletan, eta nolazpait, ez errexki, hupatzen[43] dute bere mandoaren gainerat.

Bizkitartean, soldaduak hantxe zauden beren zaldieri ezin urrats bat ere eginaraziz. Ezaguturik Jainkoak punitzen[44] zituela, galdegin zuten nor zen pobre hala beztiturikako hura. Erran zioten hura zela San Martin famatua. Ordukotz ez zen nehor apezpiku saindu haren famaz aditzea ez zuenik. Hori jakin zuten bai, badohazko guziak barkamendu eskatzerat, belaunikaturik. San Martinek gogotik barkatu zioten, berak, bere eskuz, xutiarazi zituen eta bere otoitzez heien zaldiak aintzinerat abiarazi.

Handik laster, paganorik baizik ez zen leku batean pasatzen zelarik, abiatu zitzaioten predikatzen eta bere predikueri nahiz indar gehiago eman,

ekarrarazi zioten haur bat bezperan hila eta haur hura ororen bixtan pizturik eman zion bere amari soinerat[45]. Guziak orduan paratu zitzaizkon oihuka, bataioaren galdez.

Ibiltzen zen tokietan ikusten bazuen Jainko faltsurik edo heien ohoretan eginikako zerbait aldare, ez zuen onik[46] hek ezeztatu artio. Halako aldi batez, manatu zion bere zerbitzari eliza gizon bati, barreia[47] zezan dorre bat, dena harri pikatuz egina, eta paganoen jainko bati kontsekratua. Handik denboraren buruan[48] jakin zuen Jondoni Martinek tresna eta langile eskasez oraino barreiatzekoa zagoela dorre hura. Zer egiten du ? Gau bat badago otoitzean eta, biharamunean, horra nun ihurtzuria[49] ihurtzuriaren gainerat eroriz, haize zirimola batekin, erortzen den dorre famatua eta mila porroska[tua] gelditzen, zimenduetaraino.

Bertze herri batean, berriz, bazen pino ondo izigarri bat, debruari kontsekratua. San Martinek galdetzen du pika[50] eta aurdik[51] dezaten ; paganoek, ordean, ez nahi hunkitu ere. Bizkitartean batek erraiten dio gure sainduari : « Hots pikatuko diagu, bainan kondizionerekin : erortzen denean paraturen diokala hire bizkarra erortzen den alderditik. Hortarik ageriko duk hire Jainkoak zer indar duen.» San Martinek berehala baietz bai paratuko dela, gogotik, eta pika dezaten nahi duten eskualdetik. Arbola pikatu hurren[52] dutenean estekatzen dute zangotik, ez dadin ihes abia. Arbola karraskan erortzen abiatzen da Martinen gainerat. Martin zeinatzen[53] da eta hura zeinatzearekin, bet-betan, erortzen da bertze eskualderat, nun lehertzer[54] batzituen pikatazaileak berak. Ordutik beretik inguru hetako jende guzia girixtinoen sinesterat itzuli zen eta bihi bat[55] ez bide zen heien artean pagano gelditu.

Bertze behin, Jondoni Martinek su eman zion jainko faltsuen tenplo bati. Bet-betan haize handi [bat] altxatzen da su hartako pindarrak eta garra pusatzen dituena auzoko etxeetarat. Oro erretzerat dohazi ; etxe heien jabeak mintzo dire hil behar dutela Martin, su haren piztailea. Ordean, saindu handi hori igaiten da teilaturat. Han agertu deneko sua abiatzen da, haize kontra, etxe hetarik ihes bezala, eta tenploaz kanpo, oro salbu dire.

Bertze aldi batez, bertze tenplo baten barreiatzerat[56] zohalarik, laborari tropa batek nahi izan zuen trabatu. Bat etorri zitzaion sabre batez behar ziola burua bi erdi egin. Sainduak paratzen dio lepoa ontsa biluzirik ; gaixtagina ukaldiaren emaiteko azkarki bere mogimenduaren hartzen ari delarik, hor erortzen da erroz gora[57] gibelaren gainerat. Bertze halako kasu batean, bertze gaixtagin bati ezpata suntsitu zitzaion bere eskuetarik.

Bazen denbora hetan Adizien izena zuen aintzindari handi bat. Bazter guziak noiznahi sarraskitan emaiten zituen. Tours-eko hirian sartu zen hango jendeen xehakatzeko. Bainan sarraskia hasi behar zen bezperako gauean Jondoni Martinek berak hura lo zagoen etxerat joanik, eztitu eta kanbiatu

zuen gizon hiltzaile famatu hori eta biharamunean, hiltzeko preso zauzkan guziak librarazi ziozkan.

Maximo enperadoreak behin gonbidatu zuen bere mahainerat, sainduak ereman zuen berekin bere segidako apez bat. Bazkari erditan ekartzen dute baso handi bat arnoz betea eta, usaiaren arabera, lehenbizikorik presentatzen enperadoreari. Enperadoreak erraiten du Apezpiku saindua lehenago dela eta edaten hasarazten dio Jondoni Martin, ustez gero ondotik berari emanen ziola lehenik. Bainan Jondoni Martinek enperadoreari baino lehenago emaiten dio bere aldeko apezari. Enperadoreak, afruntu hartzeko plazan[58], aitortu zuen egiazki hala behar ere zela ; ez zela konpainia hartan nehor, apezpikuaz landa, apez hura bezain graduz altxaturik. Handik laster enperadorearen andreak berak mahaina zerbitzatu zion saindu handi hari.

Bainan, girixtinoak, akabatzerik ez nuke, ez banitu uzten oraino gehienak erraiteko. Aski dut zueri hau xoilki orai aipatzea : lau liburu handitan konda ahala mirakuilu, oro Jondoni Martinen bertutez gertatuak, izkribatu izan ditu haren ondoko apezpiku batek.

Horra nolakoa zen zuek zeruan duzuen arartekoa[59].

---

[1] Zurezko ontzi bat, *boisseau, demi-quart d'hectolitre*
[2] ≈ Jainkoa gizonaz urrikaltzen baita
[3] lanbro, hodei
[4] gerla urteak
[5] dei egin
[6] bihurri, bortitz
[7] da, to-ka
[8] duena, to-ka Senperen
[9] ditu, to-ka
[10] du, to-ka
[11] jarraikitzen zitzaitzula
[12] ≈ Martinek baitzukeen xede garrantzitsuagorik
[13] mailan, lerroan
[14] berdin
[15] huskerien, ergelkerien
[16] ≈ aldiz
[17] bertutez aberats
[18] ≈ zer diozue ?
[19] izan
[20] pobre
[21] *portails d'entrée de la ville.*
[22] jende pobrearen
[23] gerlan

[24] unean, mementoan
[25] ezar
[26] zalu-zalua, lasterka
[27] Ez dakigu xuxen zer erran nahi duen. Ikus Bixintxo [3].
[28] asko
[29] ausarki, nasaiki
[30] pixka bat
[31] kopetaz, ausartziaz
[32] bainau, to-ka Senperen
[33] dut, to-ka
[34] Zeren-eta, ezen
[35] morroia
[36] jalgiarazten/ aterarazten
[37] jarraikiak, gelditzerik gabeak
[38] aurpegi
[39] elizbarrutiko
[40] jo, zafratu
[41] haatik, halere
[42] zanpatua, ukaldien azpian lehertua
[43] altxatzen
[44] zigortzen
[45] altzorat, besoetarat
[46] ≈ ez zuen bakerik
[47] desegin (urratu, Senperen)
[48] denbora luze baten buruan
[49] ortzantza, trumoia
[50] motz, ebaki
[51] aurtiki, bota
[52] kasik, ia
[53] gurutzearen seinalea egin
[54] kasik lehertu
[55] bihirik, bat ere ez
[56] desegiterat (urratzerat, Senperen)
[57] zangoz gora
[58] orde
[59] bitartekoa, bitartekaria

Ecce pulchra es amica mea et macula
non est in te.
Ezcia çara gucia ni ez hain maite guztiudana,
ez çure baithan nihun ez da latzharie.
Cantiquen cantiquetan IV.en cap.

Guirichlino maiteac

Baldin der baçaitzue Cruzen çure
Jesuen bezalaco ama balen haur izaitea;
baldin ama harren icena belhi zaguinaguin
entzuten, eta oraincc bihotzetic may aiphatzen
badüçue; baldin Mariaren laudorioenaduna
entzutea eta bozaroriaraguin eupiratzea
beragaiti baçaitzue; Çure Guirichlinoac çure
Mariaren umeac bozaria çaitzte egungo egun
haudi huntan. Çuen bihotzac çaudi eguin
bezala aindioz eta alegrantzia saindu batez,
eta huna urthe muga bat, nehori egundaino
ez izan ez çaien bezalaco. Eun egun
hauetaguin bezala Mariaren arima Jainkoac
eman ahalicaco gracia eta dohain beraciaz
beteguindua, Mariaren arima Jainkoac

[1]

[2]

egundaineco gueiac begala, gure lehen
burasoen belthaluaren galtic; hobendunetan
eraiaren esclabo. eta beste non nahi, beste
egundaineco gueiac becala eta madarikiozko
legue baten azpian; naturaleza flaco zeri,
ilsu eta bethi gaizquirat ethiarcia den
bategatic. . . . E-e-e. Tota pulchra es
amica mea et macula non est in te! eta da
Mariarentzat holaco legueri, eta da Ma-
riarentzat holaco indiriolasun ahalegani
eta madarikiozko zorie. . . E da egundaino
Maria bere amaren sabelean sanctiton
ubiltzen eguzkin, eta guero eta seculan Mari-
aren baithan sanctiti den gutiaseco notaric
Horra zer diosoai bi aldaco bromaco-
contaliore, hor ez sinheti behar dugun
Elizaren hauc gueiac. . . Tota pulchra es
amica mea et macula non est in te.

Dugun oraí arrozoinamendiz finca
gure fidea.

Gueiac sortecan hobendun gaia, gueiac
munda hunlarat bethatzos eta madarikatu
aguertcen gare, gueiac gure lehen burasoen
baithan bethaluztatuac izan gare. Omnes
mortui sunt, omnes in in unum peccaverunt. . . .!

Ai eguia dorphea! baiman ondioz sobera
eguia! Ai legue gaualça! eta nihor ondioz
escapa ez daguiogueua!

Ithurri phoçualdi bat daiz con urchosta
gueiac phoçualdiac dire... bihi bat, bichtan
da phoçadura hartaz nahasteatiia ez daiz.
Orobat Dian bethaloroazen Deletie sortzen
diran gueiac, gueiac gai berdie bethaloros;
bihi bat, bichtan da bethaliaren hortzea
beregnin ez dathargueuie. Quod unum est
necessarium est.

Eta Maria? Aoren ondoric lasmeli
cacoa da?... Nanda Mariaren Dolaren
ithurria?... Maria. Guirichtiuc maitean
gueo eta nic begala bere ethorguia harte
hastelie. Ytamen gauic du. Maria gueo
eta ne begala aita ama batquen thalasmetie
sorthua da... Ce erran dut hada nire
aichtian? Maria berdie nihor ez begala
sentcbelua içan Dela, bethaluie eta
bethaliaren arrasto Dem mendruie gabe?
Bai erran dut... etaraino nuargui
berritz erranen eu... eta çorgaitz nire
postola miritza barandi... çorgaitz berdie
inhostorie lugunari!

[4]

Maria Adamen odol biziatutic sorthua
eta bizquitartean bizi haren denguteneco
entsutic salbu . . . Aslaz bada hori . . Cer
eçarriro olha dauca bada Maria beti ha-
lyzo legue hartarie, madariciouczeo elpu-
hartarie guericean . . Cer? onna entzun
naganu? Cer? . . Bere semedibiuoaren
besoac . . . Cer? eçun batez Mariaren
garie sorthu behar den Jaincoaren pudhat-
ciac? . . Cer? Jesus . Mariarenganicaco
haur bothareguciçcoaren amodio, urricalma-
du, eta mesimendu neguni gabece.

Baiman dioque, Betbiatu originalarem
toguea legue cein hautsizio bat da, helaro
legue baten hautsea gauça handia da.
– Bai nahi badu: içan bedi legue hori
den baino eraino cein hautsizcaçoa . . .
– Nor da nausi legue hori, ala Jaincoa?
Eta Maria noreguin du eguiteco guchiago
legue horreguin ala Jaincoareguin? Auma
comparacione bat . . Suac bere legueа
du eure dilequenaren ereteca . . bizquitar-
tean izaiteaua da: halaco aldi batez
ençue inpio batec labe gaue bateau
hezaillcorat au digui ciluela hiruc hauc

Jaincoac ona maite eitzenac. Cor hauilc
Eregue huna harritu, ohartu concan hiur
haur hec demboraren burnan su lama
hoien erdian, Jesteta hari ciola sucie
don meridiona labe hartan ican ezbaliz
begala. . . Butce behin Jaincoaren
populua juan behaua con ur ibai hardi
baiez berçaldera. Jaincoac manatcen
dio bere profetari jo deçan ur hura. eta
haimbertcamarcomin. ma guibelat abiatcen
dal, eta uzten dio populu guiari bertce
alderat juaiteco lehen dorra.

Elacer! honelaco cerbit Jaincoac
ez othe degague eguin bere ama behaurain
fagorcian, ceren sortaco lehhalujcolagua
ari hiuz? . . . Ez othe degague erran
legue madarizcoaz ia hari? . . Hoda
hadi nora nahi, eta mundu huitarat
seitcen diren guiien guiaurat, obedi çac
eure colcaren manua; hainaurari ceiua
dohan haur hau eguin baiez eure ama
izanen haita, bego, bego; guiddiric, ago
hunen gairic uruu, eta obedizac haren
gaiuan hallhaurie eure amadiaren
manua.

[6]

Sobera othe çaiçue / Em nöitçuile
maiteac / Maria bethatuaren leguaz quisa
hortan bazterrcat utcia ipaitt hori ? . . Cer
beldur çaiçte . . . Beldar çaiçte legu arrun
tismutsa hutetic bertcarat, behin hariz
gueiz emaqui emaqui heda Dadin / eta Mari
aranlçat bçala bertce haiuit / antcat hola
holaca eçztatua içan Dadin . . Bainan nor
cauri Maria bertçatde / cau ido cuidiçone
bercaorie ? . . Iraunts diçadaçue bat bethania
bai lurzean bai ceruan / Jaincoaren ama
içaiterat Maria bçala Deitua içan Dauc . .
Iraunts diçadaçue bat bethania / çainaun
bethan naturaleçaren legua guciac Maria
ren bethan bçala / barraintuac itçulica tuac
içan baitiz . . . Bego, bego / bera bethania
munduric / munu bertce creatura guciac
matçailearen / amaren ganic .

Beldur çaiçte menturaz Maria hain
gora altchatuiz Jaincoari cerbeit aphentc
eguin . Ez, holaco beldurric ican / Maria
nahi bçquin gera altchatuic ere . Haurren
guiri Jaincoaren ganat gueldituen çaiem
ate bat içaiten ez Duena . Cahi Duen bercem
bat içan bedi ama . Semlau ez Dahuabiltzen

[8]

Semea, çure Salbatçaile Diuinabethiere-
tiaasa ceri, beraz seme on beçala bethiereti-
maite çuen bere ama; bethiratie ceme-
on harree bere ama maitea zegoan çuen
bethiratie berechia çagocan hura bere
amatçat, berechiac eçagozcan harentçat
graciaric berecimac. Eternitate guiltie
beguira ciragocon çure Ama maiteari,
Oi Jesun maitea. Blasfemie bat litçaiguet
maitea çure beguien az çuan eçaiari ate
ciregagnela colpatceat... Ez, ez, seculan
seculan, ez inion utsi den mendeco
humanitceat. Beraz Maria çu beçala
bethiatuan contcebitua icenbea, ez Ditegoa
ganca bat da.

Eguie ono, eguie deichadar! eguie
marruma eguie Satan gaichtoa, çure
lehen burasen enganatçaile madarientua;
hi lehenbiciko bethiatuguilea, eta eguina
oztailea. Eguie ono eguie!... Eiguie
min eguiten baitaue orai humen aiphatu
Diabaoren aditceac... eiguie, ez beitraicerder
nere nahia jaguiin degan ceu guethatu
itçaicen, Dula humeortec ehun eta hiru
hogoi eta hamabi urtheren ingurua, eta

[10]

[QUE SOY ERA IMMACULADA COUNCEPTIOU][1]

Tota pulchra es amica mea, eta macula non est in te.
Ederra zare guzia, oi zu hain maite zaitudana, eta zure baitan nehun ez da tatxarik
(Kantiken kantiketan, IV. kapituluan)

Girixtino maiteak,

Baldin eder bazaitzue zeruan zuek duzuen bezalako ama baten haur izaitea ; baldin ama haren izena beti atseginekin entzuten eta zeronek[2] bihotzetik maiz aipatzen baduzue ; baldin Mariaren laudorioen, ardura entzutea, eta bozkariorekin errepikatzea loriagarri bazaitzue, zuek girixtinoak, zuek Mariaren umeak, bozkaria zaitezte egungo egun handi huntan. Zuen bihotzek gaindi egin bezate amodioz eta alegrantzia saindu batez ezen, huna urte muga bat, nehori egundaino zor izan ez zaion bezalakoa. Ezen, egun hunekin bezala, Mariaren arima Jainkoak eman ahalikako grazia eta dohain berezienez berregindua[3], Mariaren arima Jainkoak kreatura batentzat asma ahalikako gradurik loriosenerat deitua : arima guziz eder, guziz garbi hura, egungo egun hunekin bezala juntatua izan zen gorputz bati. Ordean, zer gorputzi ? Arima miragarri hari zohakon bezalako gorputz garbi miragarri bati. Ordean, zer gorputzi ? Zerurik gorenean diren izpiriturik, aingerurik, arkanjelurik dohatsuenak, loriosenak, zoragarrienak, bere garbitasunaz, bere saindutasunaz ainitzetan apalago eta ainitz bera baino gibelago uzten dituen gorputz bati. Ordean, zer gorputzi ? Jainko gizon eginaren gorputzaren gai beretik hornitu behar duen gorputz bati. Ordean zer gorputzi... Bainan pentsatzeak berak espantiturik nauka. Nola mintza gehiago ez dakit.

Entzun dezagun zer dioen egun bi urte[4] Erromako hirian bildurikako Kontzilio jeneralak. Dio, Maria, gure Salbatzailearen Ama beharra, kontzebitua izan zela bere ama Añaren erraietan, ez bertze nornahi, bertze egundainoko guziek bezala ; ez gure lehen burasoen ondoriotasunetikako

lertzo[5] higuin[6] harekin ; ez bertze nornahi, bertze egundainoko guziak bezala, gure lehen burasoen bekatuarengatik, hobendun[7] eta etsaiaren esklabo ; ez bertze nornahi, bertze egundainoko guziak bezala ez madarizione lege baten azpian ; naturaleza flako, eri, itsu eta beti gaizkirat ekarria den batekin... Ez, ez, ez. *Tota pulchra es, amica mea, et macula non est in te.* Ez da Mariarentzat holako legerik ; ez da Mariarentzat holako ondoriotasun ahalkagarri eta madarizionezkorik.. Ez da egundaino Maria bere amaren sabelean aurkitzen abiatzearekin, ez gero, ez sekulan, Mariaren baitan aurkitu den gutieneko notarik[8]. Horra zer dioen orai bi urteko Erromako Kontzilioak, horra zer sinetsi behar dugun Elizaren haur guziek... *Tota pulchra es, amica mea, et macula non est in te.* Dugun arrazoinamenduz finka gure fedea.

Guziak, sortzean, hobendun gare ; guziak mundu huntarat bekatoros eta madarikatu agertzen gare ; guziak gure lehen burasoen baitan bekatuztatuak izan gare. *Omnes mortui sunt, omnes in uno peccaverunt...* Ai, egia dorpea ! Bainan ondikotz sobera egia ! Ai lege garratza, eta nehor, ondikotz, eskapa ez dakiokeena !

Iturri pozoindatu bati darizkon[9] ur xorta guziak pozoindatuak dire... Bihi bat[10], bixtan da, pozoindura hartaz nahastekatua ez denik. Orobat Adam bekatorosaren odoletik sortzen diren guziak, guziak gai beretik bekatoros ; bihi bat, bixtan da, bekatuaren lertzoa berekin ez dakarkeenik *Quod natum est ex carne caro est.*

Eta Maria ? Noren ondoriotasunetikakoa da ? Nun da Mariaren odolaren iturria ? Mariak, girixtino maiteak, zuek eta nik bezala bere etorkia haste hastetik Adamenganik du. Maria, zuek eta ni bezala, aita ama batzuen batasunetik sortua da. Zer erran dut, bada, nik aixtian ? Maria bertze nehor ez bezala kontzebitua izan dela, bekaturik, eta bekatuaren arrasto den mendrenik gabe ? Bai erran dut eta oraino ausarki[11] berriz erranen ere... Eta zorigaitz niri bertzela mintza banindadi[12]. Zorigaitz bertze sinesterik lukeenari !

Maria Adamen odol biziatutik[13] sortua eta bizkitartean bizio haren den gutieneko kutsutik salbu... Nolaz, bada, hori ? Zerk ezarriko ote dauku, bada, Maria bekatuzko lege hortarik, madarizionezko kolpe hortarik gerizan ? Zerk ? Ontsa entzun nazazue. Zerk ? Bere seme dibinoaren besoak... Zerk ? Egun batez Mariarenganik sortu behar den Jainkoaren puxantziak[14]. Zerk ? Jesus[en], Mariarenganikako haur botere guzizkoaren amodio, urrikalmendu eta merezimendu neurrigabeek.

Bainan diozue, bekatu originalaren legea, lege ezin hautsizko bat da, holako lege baten haustea gauza handia da... Bai, nahi bada, izan bedi lege hori, den baino oraino ezin hautsizkoagoa... Nor da nausi : lege hori ala Jainkoa ? Eta Mariak norekin du egiteko gehiago : lege horrekin ala

Jainkoarekin ? Huna konparazione bat... Suak bere legea du : erre daitekeenaren erretzea... Bizkitartean izkribatua da : halako aldi batez errege inpio[15] batek labe gorri batean kiskailtzerat aurdiki zituela hirur haur Jainkoak ontsa maite zituenak. Nor harritu, errege hura harritu, ohartu zenean hiru haur hek, denboraren buruan, su lama heien erdian josteta ari zirela, surik den mendrena[16] labe hartan izan ez balitz bezala... Bertze behin Jainkoaren populua joan beharra zen ur ibai handi batez bertzalderat. Jainkoak manatzen dio bere profetari jo dezan ur hura eta, hainbertzenarekin, ura gibelerat abiatzen da eta uzten dio populu guziari bertze alderat joaiteko leku idorra.

Eta zer ? Horrelako zerbait Jainkoak ez ote dezake egin bere ama beharraren fagoretan, ororen sortzeko bekatuzko legeari buruz ? Ez ote diezoke erran lege madarizionezko horri : « Heda hadi noranahi eta mundu huntarat sortzen diren guzien gainerat, obedi zak ene koleraren manua, bainan orai sortzerat dohan haur hau egun batez ene ama izanen baita, bego, bego geldirik ! Hago hunenganik urrun eta obedi zak horren gainean bakarrik ene amodioaren manua.»

Sobera ote zaitzue, ene aditzaile maiteak, Maria bekatuaren legeaz gisa hortan bazterrerat utzia izaite hori ? Zeren beldur zarezte ? Beldur zarezte lege horren dispentsa[17] batetik bertzerat, behin hasiz geroz, emeki emeki heda dadin eta, Mariarentzat bezala, bertze ainitzentzat hola holaka ezeztatua izan dadin ? Bainan nor kausi, Mariaz bertzalde, kasu edo kondizione berekorik ? Erakuts diezadazue bat bakarrik, bai lurrean, bai zeruan, Jainkoaren ama izaiterat Maria bezala deitua izan denik ? Erakuts diezadazue[18] bat bakarrik zoinaren baitan naturalezaren lege guziak Mariaren baitan bezala barreiatuak, itzulikatuak, izan baitire ? Bego, bego, bera bakarrik ! Urrun dire, urrun, bertze kreatura guziak Kreatzailearen amarenganik.

Beldur zarezte menturaz Maria hain gora altxatuz Jainkoari zerbait afruntu egin ? Ez, ez holako beldurrik izan. Maria nahi bezain gora altxaturik ere, Mariarenganik Jainkoarenganat gelditzen zaiku arte bat izaririk[19] ez duena. Nahi duen bezainbat izan bedi ama, sekulan ez da, hurbiltzeko ere, bere seme Jaunaren heineraino[20] helduko. Semea garbi eta saindu da bere baitarik, bere izaitez ; ama garbi eta saindu da bere semeak egiten dion graziari esker. Zer ? Maria bere semea baino zerbait gutiago dela erakusterat emaiteko, ez zinakikete zer erran bekaturik gabe kontzebitua dela erran den ondoan ? Zer diot ? Ontsa atsegin agertzen baitzait hemen kreatura bat hain garbia, hain inozenta ; zeren eta gure Salbatzailea are garbiago eta inozentago dela erranez, laudorioa handiago baizik ez baita Jainkoarentzat.

Bertzenaz ere oraino, zer aparantzia[21] [du], Maria sekulan apur bat bakarrik gerta zitekeela bekatuzko estatuan, etsaiaren esklabotasunean,

madarizionezko lege baten azpian ? Nola sofrituko[22] zuen semeak desohore hori bere amaren baitan ? Bainan dio norbaitek, Mariak ez zuen orduan oraino semerik... Gezurra hori ! Mariaren Semea, Trinitateko bigarren presuna ordukotz bazen ; Mariaren Semea bazen bere ama baino lehenago, eternitate bat lehenago... Mariaren Semea, gure salbatzaile dibinoa betieretikakoa zen ; beraz, seme on bezala, betieretik maite zuen bere ama ; betieretik seme on harek bere ama maitea gogoan zuen ; betieretik berexia zaukan hura bere amatzat, berexiak zauzkan harentzat graziarik berezienak. « Eternitate guzitik begira zinagokon[23] zure Ama maiteari, oi Jesus maitea, blasfemio bat litzaiket[24] erraitea, zure begien azpian, etsaiari utz zinezakeela kolpatzerat. Ez ez, sekulan sekulan, ez zinion utzi den mendrena hunkitzerat. Beraz, Maria, gu bezala bekatuan kontzebitua izaitea ez daitekeen gauza bat da.»

Egik orro, egik deihadar, egik marruma egik, Satan gaixtoa, gure lehen burasoen enganatzaile madarikatua ! Hi, lehenbiziko bekatu egilea eta eginarazlea, egik[25] orro, egik ! Eiki[27] min egiten baitauk orai hemen aipatu diatanaren[26] aditzeak... Eiki, ez baitzaik eder nornahik jakin dezan zer gertatu zitzaion duela hemezortzi ehun eta hiru hogoita hamabi urteren ingurua[n], eta preseski egungo egun hunekin bezala. Eiki, ez baitzaik ohore hemen guziek errepika dezagun haur batek sortzerat zohalarik eman zaukan kolpea ! Hik, hire ezten pozoindatuaz bertze guziak bezala hura sistatu nahi, eta harek hiri aintzinduz hiri burua lehertu... Orhoit haiz ! eta zertaz hobeki ? Bahuen dretxo bat munduan lehenbiziko bekatua sarraraziz geroztikakoa, dretxo bat Adamen odoletik sortzen ziren guzien gainerat hedatua haukana...[28] Oi bai hartako, nausi hintzen... Nun huen, errak, dretxo hura Maria Jainkoaren Ama bere amaren erraietan gertatu zenean ? Nausi ote hintzen orduan ? *Ubi est victoria tua ubi est stimulun tuum ?* Hik zernahi eginagatik, Maria bekaturik gabe izan dela kontzebitua, horra zer dugun guziek fermuki sinesten.

Oi gure Ama ona, gu, badakizu, bekatuzko legearen azpian sortu eta bekatuzko lege baten azpian bezala bizi garela. Urrikal gakizkitzu[29], eta lagun gaitzatzu graziazko legeari artoski ihardesten.

---

[1] Ama Birjinaren hitzak, « Bigorre » eskualdeko okzitanieraz : ≈ « Ni naiz, Bekaturik gabe sortua ».
[2] zuihaurk (zuek-en indargarria)
[3] indartua, apaindua, dohatua
[4] *1854 :Dogme de l'Immaculée Conception ;* prediku hau, 1856koa dateke.
[5] *glaire*
[6] arbuiagarri
[7] errudun
[8] bekaturik

[9] ≈ ateratzen zaizkion (darizkion, batuaz)
[10] ≈ bihirik ez
[11] ausartziarekin (?)
[12] banendi, batuaz
[13] ≈ (bekatuaz) kutsatutik
[14] ahalak, botereak
[15] pagano, sinesgabe
[16] den gutiena
[17] ez betetzeko, jasaiteko faborea
[18] erakuts iezadazue edo erakutsadazue, batuaz
[19] neurririk
[20] mailaraino
[21] zer kanore, zer itxura...
[22] pairatuko, jasanen
[23] zinagozkion (zengozkion, batuaz)
[24] litzaidake, batuaz
[25] egin ezak
[26] segurki, egiazki
[27] dutanaren, to-ka, Senperen
[28] heukana, batuaz
[29] ≈ zakizkigu

O quàm pulchra est casta generatio cum
claritate: Immortalis est enim memoria illius
quia apud Deum nota est et apud homines.
O zein den Dorrac chahutasuniz arguitzen
Jaincoaren aurrean. Eciñguidua izanen da heiñ or-
heitzapena, eta ohore handiac bethi izanen dituzte
haiñ Jaincoaren aintzinean, baiña eta guizonen artean.
Zuhaitzaren lib. IV Cap.

Eder zaizco mundua'i gurlari gaitz
batzuen balentriac, izpiritu hunde batzuen
ediñimenac, jende handien carguac, ohorac,
aberastasunac, heiñ banitatiac beraz. Ha-
lacoari behatuz umbatco ez dute guero eguiten
handeharupen hau: « Ah ni ere hala banintz »
Huna nun nahi dautzuedan, hurrichtiñe
maitac, nic eguin iracuai handitasun bat
eta edertasun bat banitateric eta anganiouic
gabecoa: Deusec ezin hiñaraci Immortalis

[1]

est enim. Auni, huni behar ziozue behaliq
eta guec erran: Ah! ni ere hola banintz!
O Santa Lucia, birjina eta martir
miragarria, ogun baita eun ider hortan
begala, guc aitzen ere zure liomfaren
iguna, zu baitzaiduzu hemen guc patsin
maite eta lariosa, zure beguide eta zure
izpiritua pausa beileiz othoi oraï guc
gainean. Iau batzu baicare eta ilhum-
petan, iguzu othoi zure arguia eta zure
bichta. Iezagun icus zein gaizki ekamebeli
zein zoro gabiltzan munduno izpirituari,
eta enganioari jarraitiz. Iezagun hzagut
berhutearen Bertasuna, berhutearen balia
eta berhutearen aseguina.

Santa Lucia cen Siraussero hirian
jende handi eta aberaa batzuetaric, ama
alhaagun baten alaba bakhura. Hau
hamelic guirichtino cen eta handituago
eta bere guirichtinotasunean lakhetago
eta khaznago. Hargatic ezembora hetan
guirichtino izaitza aski cen hilcera conde-
natua izaiteco. Luciac hori bazakien.

[2]

Orai, gure lohi hartan seguric, eg da
gure Elichionea persecutatua Santa Lu-
ciaren demboran bezala. Orai battean eta
Jesus lanpuric gabe pratica dezakegu gure
Elichionea, eg dabil harzatic noizarteraino.
Orai Elichioneac ohore du, eta halaric
eus eg athe dira gutartean nekhez, ona
nekhez, berdhez bezala, eta ahal bezain
achalticic eta arinki direnac guirichtino.
Bathe demboran bethi ihes, casic desertor,
menturaz eraiarsten guretkin baino aco-
tago: guerla balily phenac eer sobaduac.

Santa Luzia eg zaio astki ezo zoin
huinstan guirichtano izaitea, eg zis astki
sabatecio astki ere den fidelitate hura.
manatuac baino guehiagoac nahi dituz
eguin. Obedientzia choita dhuhuregui
zaio Jaincoa bezalaco nausi batentzat..
Handiagui du bihotza izari justu eta
dhuhur hartan egoitzea. Perfet izan nahi
da. Cer eguiten du.

Lehen lehen ganza, gaztelasunean
lehen urthetan delaric bere berthuteari
bere chahutasunari casu eguitea. Ber-
thute horren beguiratzeco hastiti eta bethi
prudent izaitea, fermu izaitea, nimbera

eta delicatu izaitea, modest izaitea:
edi zazue eliza huntan zarezten gaztear,
Modest izaitea: ch' hori badaki Luciac
obligacione eta nesesario dela ezo zain
presuma gazteentzat; badaki modestia ho-
ri gabe nescatcha bat galtzea dela Jain-
coaren amodioa entzat bai eta eresjenden
arteco ohoreentzat.

Nor ceu sicula guciac Lucia gazte
bezalacoac? Naturalezaren Jehäin onta
guciac, munduaren beguiac guchiac
admiratzen dituen abantailac ere bere
citzen. Nimbeit bere uste gabez ezo bor-
tchez aquestem ceneau admiracionestiin
bezala, erespeturekin baicen ez ziolen be-
hatzen. Ch' presuma gazte batec bere
modestez munduaren aztean manatzen
dituenean erespeto hori nora ez du estimu
eta admiracione handi bat ezanen haurtzar

«Eg nuzu ernsten Lucia mundua zuri
«beha dagon? nola desiratcen zaitzen? eta
«han ere fruchantciac... ala zuretzat?
Bainan Luciac behatzen du Ceruari..
Jainkoari... Jesu-Christori... Luis me espa-
rabit... Nor ahal-izan du hori baino es-
pos maitagarria?...
Ebn horra nun Luciac consentitzen
du sacrifiatzeko Jainkoari bere bizitza
osoa...
Luciaren amac eg zahar-lehenbizian
bota harrien berri. Ernsten du alabari
Syracusco lehen etchea semeari hitz
eman diola Lucia bere esposzat. Pagano
da oraino; bainan guero...
Luciac eg du Deus holaco ric entzun
nahi. Jainkoari hitz emana da, ez ema-
nen dezaten hoberic... Zoma imprudenta!
Hainbertsenarekin ama ernsten zuio-
Lau urthe iraunen du ódol galtze batac.
Luciac aztheneratzen ernsten du, nola den
Catanaco hirian Santa Agatharen tomba.
Baiezaci beila hartara. Otheiciean han
dagelarie gau guzia Luciari agertzen
zaio Santa Agatha. Oranta... apparuit...
Consolatatur eam. - Lucia virgo quid a me

patis quod ipsa potuis prestare continue matri
tua. . . Per te Lucia virgo civitas Syracusana
decorabitur à D. J. C.

Luciac othoitz eguiten du Jainkoari. Ama
sendatua zare. . . Othoitz bihotz garbiaren
botherea. . . Cuc ere othoitz eguiten dugu
holaco behar eduetan. . . baina nolaere
dira gure bihotzac, gure chedeac. . . Orai
artzaina certan balitzen ditugu Jainkoa
ganic eskhatzen. . .

Ama alabac itzultzen dire Syracusera.
« Ama ez nirí oraí aipha guehiago munduan
« huntaco esposic. Emadazu ene dothea. . .
« ez dut ínc ceruco Esposari.

— « Hauraja lehenic ní hil nadin, eta
« gero eguinen duzu placer duzuna.

— « Ordean ama hil ondoco obra onac
« bertchagoac dire, ez gare eduan gurez
« ari. Ez dute hainbertze balio.

— Ama jausten da alabaren anzeinua.
eta eduan ere Luciaremaiten dilu pobrez.

Jakiten du ganze horí Luciaekin
esposatu gogo zuen jaun gaztac. Ez du
guehiago ez Luciaren ez haren fortunaren
esperantzaric. Orduan bere desjuta a-
guertzen du eta Lucía denontzat on.

Pascal Syrauseco predicac aguerrarayta
Tu Lucia bere tribunáleat.

« Entzun dut Quirichino zarela. Horan
« badabiltzu gure emperadoreen leguea....
« hor dauku da zu bezalaco presuna bat
« izan dadin erlichione triste hortaco..
« Elkha zazu, eta libra zaze.

— « Ez, ez dut ukhatuco ene Jaincoa. Ene
« erligionea da eguiazcoa, eta zure Jaincoac
« jainco falsu batzu dire. Ene Jaincoari
« sacrificatu ditut diruadan guciac, eraen
« placer eguiten dio probrecen eta mundu
« huntan malurrac direnen sokhoritzeac.

— « Necaleha gaztu bat zare, eta hain
« beste entasun ez dutlezu chahutu tzar.
« Herian eta ingulucan beicic.

— « Ez naiz presuna gaztu bat, eta ene
« entasunac ez ditut gaztuac baiuan bat
« mundu huntaco cembeit estimatzic eguet
« lehen seguracan plazatuac. Egundaiñetic
« garbi izan naiz haraguiaren aneguin
« lizunetaric, eta aborritu ditut hetan
« bici diranac.

— « Berica ere elhe batzu dire, eta lasta
« jakinen duzu horien ondoco zafracoa.

—« Elhe horrec erraraztendarozki.
« dana da Jesuritu Saindua, zeinaren
« templo bainaiz ene chahutasuna eta
« birjinitatea dela medio.

—« Ah! hori hola badaz, badirirat bai
« nola Ithasa Jesuritu Saindu hori zure
« baithanic. Ezarraztenzaitut presa, bir-
« jinitatea seguru galduco duzun lehen
« bateau.

—« Ez, ez duzu hortaco poderenic asti.
« Portchatcen bainintuzu ere ene nahia-
« ren contra, ene arima baitin garbi la-
« guke.

Oituen juyeac mirabeau du Lucia
nahitez erlenaudizaten lehen infame
batra. Burrago batez hartcen du bis-
tiri ez dire moguiaraz, bia lotcen zaizo,
ez diote moguiaraz! hirur, lau, elgar-
rekin enzaiatcen dire, ez diote mogui-
araz. Sollaz amarnatiz eguiten dituzte
beren eguin ahalac, ez diote moguiaraz.
Ori pare bat ithararaztendute, eta ez
diote moguiaraz. Columna es immobilis etc.

« Ah! ez holacelu moguitaco! bai!
« bai, atcamanen dinat bai hire hortic
« moguiarazteco moyena. »

[8]

Juyzac manatzen du, alde guztietarik
ingura dezaten, egun eiharez erresma, bi-
khe eta elioretik nahastaca, eta guero
su eman dezaten. Bainan suaren erdi-
an ere Luzia hantzhe dago Jesus ez balitz
bezala, eta suac Jesus ez dio eguiten. Or-
duan erraiten dio Jujeari « Ehaitz eguin
diot Jesukristo ene Jaunari su hunez ez
nintzan erre, eta ene martirioac iraun
dezan luzago. ni hula hemen izanez
guztiechtinac fermu izan diten beren
fedean, eta ez diten tormenten loza izan.
baicta denbora berean infidel guztiac
confondituac izan zitezten. »

Bestarac ecin eginez jujeac lephe-
tic partean part frasarazi zion ezpata
bat.

[SANTA LUZIA]
(Atharratzen egin predikua)

O quam pulchra est casta generatio cum claritate ! Immortalis est enim memoria illius quoniam et apud Deum nota est et apud homines
O zein den ederra xahutasunez argitzen dutenen arraza ! Ezin galdua izanen da heien orhoitzapena eta ohore handiak beti izanen ditu bai Jainkoaren aintzinean, bai eta ere gizonen artean.
(Zuhurtziar liburutik, IV. kapitulua)

Eder zaizko munduari gerlari gaitz[1] batzuen balentriak, izpiritu handi batzuen edireimenak[2], jende handien karguak, ohoreak, aberastasunak, heien banitateak[3] berak. Halakoeri behatuz zenbatek ez dute gero egiten hasbeherapen[4] hau : « Ah, ni ere hala banintz !»

Huna nun nahi dautzuedan, girixtino maiteak, nik egun erakutsi handitasun bat eta edertasun bat banitaterik eta enganiorik gabekoa : deusek ezin hitsarazia *Immortalis est enim.* Huni, huni behar diozue behatu eta gero erran : Ah, ni ere hola banintz !

O Santa Luzia, birjna eta martir miragarria, egun baita, zeru eder hortan bezala, gure artean ere, zure trionfaren eguna, zu baitzaitugu hemen gure patroin maite eta loriosa, zure begiak eta zure izpiritua pausa beitetz[5] otoi gure gainean. Itsu batzu baikare eta ilunpetan, iguzu[6] otoi zure argia eta zure bixta, dezagun ikus zoin gaizki eta errebel[7], zoin zoro gabiltzan munduko izpirituari, eta enganioari jarraikiz, dezagun ezagut bertutearen edertasuna, bertutearen balioa eta bertutearen atsegina.

Santa Luzia zen Sirakus-eko hirian jende handi eta aberats batzuetarik, ama alargun baten alaba bakarra. Haur haurretik girixtino zen eta, handituago eta bere girixtinotasunean laketago eta kartsuago. Hargatik[8] denbora hetan girixtino izaitea aski zen hiltzerat kondenatua izaiteko. Luziak hori bazakien.

Orai, gure toki hautan segurik, ez da gure erlisionea pertsekutatua Santa Luziaren denboran bezala. Orai bakean eta deus lanjerik gabe pratika dezakegu gure erlisionea ; ez dakit hargatik[9] noiz arteraino. Orai, erlisioneak

ohore du eta, halarik ere, ez ote dire gutartean nekez, ontsa nekez, bortxaz bezala, eta ahal bezain axaletik eta arinki direnak girixtino ? Bake denboran beti ihes, kasik desertor, menturaz etsaiarekin gurekin baino akortago ; gerla balitz, pentsa zer soldaduak [izan litezkeen]...

Santa Luziari ez zaio aski edozoin heinetan girixtino izaitea ; ez zaio aski salbatzeko aski ere den fidelitate hura. Manatuak baino gehiagoak nahi ditu egin. Obedientzia xoila xuhurregi zaio Jainkoa bezalako nausi batentzat... Handiegi du bihotza izari[10] justu eta xuhur hartan egoiteko. Perfeta izan nahi da. Zer egiten du ?

Lehen-lehen gauza, gaztetasuneko lehen urteetan delarik, bere bertuteari, bere xahutasunari[11] kasu egitea. Bertute horren begiratzeko, hastetik eta beti, prudenta izaitea, fermu izaitea, minbera eta delikatu izaitea, modest izaitea. Adi zazue, eliza huntan zarezten gazteak, modest izaitea ! O hori badaki Luziak obligazione eta nesesario[12] dela edozoin presuna gazterentzat ; badaki modestia[13] hori gabe neskatxa bat galdua dela Jainkoaren amodioarentzat bai eta ere jenden arteko ohorearentzat.

Nor zen Sizilia guzian Luzia gaztea bezalakorik ? Naturalezaren dohain suerte guziak, munduaren begiak gehienik admiratzen[14] dituen abantailak oro bere zituen. Nunbait, bere ustegabez edo bortxaz agertzen zenean admirazionerekin bezala, errespeturekin baizik ez zioten behatzen. Ah ! presuna gazte batek, bere modestiaz, munduaren artean manatzen dakienean errespetu hori, nork ez du estimu eta admirazione handi bat izanen harentzat ?

« Ez duzu ikusten, Luzia, mundua zuri beha dagoela ? Nola desiratzen zaituen ? Eta han zer puxantziak [eta, diren] zuretzat ?»

Bainan behatzen du zeruari... Jainkoari... Jesukristori... *Quis me separabit...* Nor ukanen dut hori baino espos maiteagorik ? Eta horra nun Luziak kontsekratzen duen sekulakotz Jainkoari bere birjinitatea...

Luziaren amak ez zakien, lehenbizian, botu[15] horren berri. Erraiten dio alabari Sirakus-eko lehen etxeko semeari hitzeman diola Luzia bere espostzat. Pagano da oraino, bainan gero... Luziak ez du deus holakorik entzun nahi. Jainkoari hitzemana da, eia emanen dioten hoberik... Ama inprudenta[16]!

Hainbertzenarekin ama eritzen zaio. Lau urte irauten dio odol galtze batek. Luziak azkenekotz erraiten dio, nola den Katana-ko hirian Santa Agataren tonba. Badohazi beila hartara. Otoitzean han dagoelarik gau guzia, Luziari agertzen zaio Santa Agata. *Orante... apparuit... consolabatur eam. Lucia virgo quid a me petis quod ipsa poteris præstare continus matri tuæ... Per te Lucia virgo civitas Syracusana decorabitur a D.J.C.*[17]

Luziak otoitz egiten dio Jainkoari. Ama, sendatua zare... Otoitz bihotz garbikoaren boterea ! Guk ere otoitz egiten dugu holako behar orduetan... bainan nolakoak dire gure bihotzak, gure xedeak ? Orai arteraino, zertan

baliatzen ditugu Jainkoaganik ukanak ? Ama alabak itzultzen dire Sirakus-erat.

« Ama, ez niri orai aipa gehiago mundu huntako esposik. Emadazu ene dotea... zor diot ene zeruko Esposari.»

« Haurra zaude lehenik hil nadin eta gero eginen duzu plazer duzuna.»

« Ordean, ama, hil ondoko obra onak bortxazkoak dire, ez gare orduan gurez ari. Ez dute hainbertze balio.»

Ama jausten da alabaren arrazoinerat eta orduan oro Luziak emaiten ditu pobreeri. Jakiten du gauza hori Luziarekin esposatu gogo zuen jaun gazteak. Ez du gehiago, ez Luziaren, ez haren fortunaren esperantzarik. Orduan bere despita[18] agertzen du eta Luzia denontzatzen[19]. Paskal, Sirakus-eko prefetak agerrarazten du Luzia bere tribunalerat.

« Entzun dut girixtino zarela. Arren[20] badakizu gure enperadorearen legea... Hots damu da zu bezalako presuna bat izan dadin erlisione triste hortako... Uka zazu eta libro zare...»

« Ez, ez dut ukatuko ene Jainkoa. Ene erlisionea da egiazkoa eta zure jainkoak jainko faltsu batzu dire. Ene Jainkoari sakrifikatu ditut ditudan guziak, ezen plazer egiten dio pobreen eta mundu huntan malurus direnen sokorritzeak.»

« Neskatxa galdu bat zare eta hainbertze ontasun ez dukezu xahutu tzarkerian eta urguluan baizik.»

« Ez naiz presuna galdu bat eta ene ontasunak ez ditut galduak bainan bai mundu huntako zenbait eskutarik apart leku segurean plazatuak[21]. Egundainotik garbi izan naiz, haragiaren atsegin lizunetarik, eta aborritu[22] ditut hetan bizi direnak.»

« Horiek oro elhe batzu dire eta laster jakinen duzu horien ondoko zafrakoa.»[23]

« Elhe horiek erranarazten dauzkidana da Izpiritu Saindua, zoinaren tenplo bainaiz, ene xahutasuna eta birjinitatea dela medio.»

« Ah ! hori hola bada, badakit bai nola kasa Izpiritu Saindu hori zure baitarik. Ezarrarazten zaitut preso, birjinitatea segur galduko duzun leku batean.»

« Ez ! Ez duzu hortako podorerik aski. Bortxatzen baninduzu ere, ene nahiaren kontra, ene arima berdin garbi lagoke.»

Orduan jujeak manatzen du Luzia nahitez ereman dezaten leku infame batera. Burrego batek hartzen du besotik, ez diro mogiaraz ; biga lotzen zaizko, ez dirote mogiaraz ; hiru, lau, elgarrekin entsaiatzen dire, ez dirote mogiaraz. Sokaz amarratuz[24] egiten dituzte beren egin ahalak, ez dirote mogiaraz. Idi pare bat ekarrarazten dute eta ez dirote mogiaraz. *Columma es immobilis, etc (?)*

« Ah ez haizela mogituko ! bai ! bai atzemanen dinat bai hire hortik mogiarazteko moiena.[25]»

Jujeak manatzen du alde guzietarik ingura dezaten egur eiharrez[26], errexina, bike eta olioarekin nahasteka eta gero su eman diezoten. Bainan suaren erdian ere, Luzia hantxe dago deus ez balitz bezala eta suak deus ez dio egiten. Orduan erraiten dio jujeari : « Otoitz egin diot Jesukrito ene Jaunari su hunek ez nintzan erre eta ene martirioak iraun dezan luzeago. Ni hula[27] hemen ikusiz girixtinoak fermu izan daitezen beren fedean eta ez daitezen tormenten lotsa izan. Bai eta denbora berean infidel guziak konfondituak[28] izan zitezten[29].»

Bertzerik ezin eginez jujeak lepotik, partean part, pasarazi zion ezpata bat.

---

[1] gogor, bortitz
[2] kausitzeak, aurkikuntzak
[3] ezdeuskeriak, espantuak
[4] hasperen
[5] bitez, batuaz
[6] ≈ emaguzu
[7] ≈ galdua / bihurri
[8] haatik/ alta bada
[9] haatik
[10] neurri
[11] garbitasunari
[12] beharrezkoa
[13] apaltasuna, xumetasuna, *pudeur*
[14] miresten
[15] Hitzematea Jainkoari
[16] zuhurtziagabea, antsiagabea bizi molde berezi bat
[17] *Dominum Jesum Christum*
[18] atseginaren aurkakoa...
[19] salatzen
[20] alta (bada)
[21] ezarriak
[22] higuindu, gorrotatu
[23] zanpakoa, jipoia
[24] lotuz
[25] ahalbidea
[26] idorrez
[27] ≈ horrela
[28] gezurrean atzemanak
[29] zaitezten ala daitezen (?)

[1]

[2]

[3]

[4]

[5]

[6]

[7]

[8]

[9]

[10]

[11]

[12]

[13]

[14]

[15]

[16]

[JONDONI EZTEBE]

Stephanus plenus gratia et fortitudine faciebat prodigia et signa magna in populo.
Jainkozko dohainez eta indarrez betea Extebek mirakuilu handiak zituen obratzen jendeen artean.
(Apostoluen egintzen liburutik, seigarren kapitulutik)

Girixtinoak,

Zein miragarri den Jainkoa saindueri emaiten dituen dohainetan ! Zein miragarri diren sainduak, bertuteak emaiten diozkaten indarretan ! Dohain, bertute eta indar handienez dohaturikako saindu hetarik bat huna Jondoni Extebe, herri hunen patroin loriosa, zoinaren ohoratzerat egun, guziak etorriak baikare hunat.... Jondoni Extebe Elizaren lehen mendeko lehenbiziko diakre eta martira. Ez daukute eiki guti aipatzen eta guti laudatzen apostoluen beren liburuek, nun iduri baitu Izpiritu Saindua loriatzen dela liburu saindu hetan hartaz mintzatzen... Mintza gaitezen gu ere gure maneran. Egungo egunari badohako[1], zerk hoin handi, zerk hoin bozkariotsu egin daukun erraitea. Dugun[2] beraz ikus nolakoak ziren Jondoni Exteberi Jainkoak eman ziozkan dohainak eta saindu hori nola zen hetaz baliatu. *Stephanus plenus gratia et fortitudine faciebat prodigia et signa magna in populo.*

Espantagarri zaizko munduari behialako gizon famatu eta gerlari handi batzuen balentriak. Heien entzuteak gure izpiritua jostatzen du, bainan gure mundu huntarik eternitaterako urratsak guti gidatzen. Heien aipua, espantu eta harramantza[3] puska bat ; handik goiti guretzat amets baten probetxua. Bertzerik da sainduez egiten den aipamena. Heien bizia eta heriotzea, gutarik bat bakotxarentzat etsenplu batzu dire. Hetaz orhoitzeak berak gaixtoari emaiten dio sendimendu on zerbait eta, ona du beti hobetzen. Gutartean nornahik arrazoin du erraitea : ez naiteke izan Alexandre, Zesar edo Napoleon bat bezala gerletan munduaren inarrosle. Bai ordean nornahik erran dezake : izan naiteke saindu, Jondoni Extebe bezala ; salba naiteke hura

bezala ; gehiago dena hartako preseski egin nau ene Jainkoak. Kuraie beraz, girixtinoak, Jondoni Extebe gutartekoetarik zen. Jankoak egin zion grazia frango ; guri ere egiten dauku eta ez du gure salbatzen laguntzeko harentzat baino borondatu gutiago. Dugun har etsenplu Jondoni Exteberen baitan ; hari behatuz ikus dezagun zertan garen eta zertan [izan] behar gintezkeen.

Izpiritu Saindua eta saindutzailea, oi zu, zure gaindiduraz Jondoni Extebe bete zinuena, haren Jainkoa bezala gurea ere zare. Bete zatzu gure bihotzak, argi zazu otoi gure adimendua. Bainan zu nahi zaitugu, Maria Saindua, gure ararteko.

Ave Maria

Salbatzailea zerurat iganik, Izpiritu Saindua jautsi berria zen Apostoluen gainerat. Apostolu horiek bazabiltzan Ebanjelioaren predikatzen, paganoa zen mundu hartarik behar zutela egin mundu bat girixtinoa. Zer lana ! Oro partida[4] zituzten : denbora hartan indar zuten lege guziak, jendeen arteko sineste, usaia, pentsatzeko manera, naturalezaren plegu eta intres guziak. Zer lanak eta zer trabak ! Eta halarik ere, mehatxu, presondegi, debeku, eta tratamendu gaixto guzien artetik, Apostoluak beren obran eta beren bidean beti aintzina eta girixtinoen nonbrea[5] beti emendatuz joaki.

Ikustekoa zen lehen denboretako girixtino heien fede suharra, heien elagarrekilako batasun eta amodioa. Zerbaiten jabe zenak bere hura ekartzen zuen Apostoluen eskuetarat eta heien eskuz partitua izaiten zen, beharretan ziren guzieri. Bainan girixtinoak bazter guzietan laster emendatzearekin, hori bera lan bat bilakatu zen Apostoluek burutziarik egin ez zirotena[6]. Bereziki denbora hetan emazte alargunen zortea baitzen guziz urrikalgarri, heieri buruz Elizaren karitateak bazuen asko egiteko.

Hamabi apostoluak biltzen dire eta erraiten diote fededunezko populuari : « Ez da zuzen guk Jainkoaren hitzaren predikatzea utz dezagun, horrenbertze zerbitzuri buru egiteko ; ikusazue anaia maiteak, zoin dituzketzuen zuen artean zazpi gizon hobekienik ikusiak eta Izpiritu Sainduaren dohainez bai eta ere zuhurtziaz beteak : halakoen eskuetarat utz dezagun aldaretako zerbitzua eta pobreen eta emazte alargunen kargua.»

Baietz, hori guzieri ontsa zaiotela, hautatzen dituzte zazpi gizon prestuen hek, orotarik lehena Extebe fede bizi batez eta izpiritu jainkozko batez betea. Eremaiten diote Apostolueri aintzinerat. Apostoluek eskuak pausatzen diozkate buruaren gainerat eta emaiten diote diakretasunaren ordena.

Miretsazue, girixtinoak, gauza hau : Jondoni Extebe, saindurik baizik ez zen populu baten artean guzietarik sainduena bezala berexia, zeren zen bere fedean hain kartsu eta Izpiritu Sainduaz hala betea, nehor ez zen hura bezain ontsa ikusirik. Joan dire denbora hek... Orduan, girixtinoek arrazoinatzen zuten girixtino gisa ; orai girixtinoek mundutar pentsatzeko manerak dituzte.

Gutartean, orai ere, badire gizon prestuak eta jendeez ontsa ikusiak bainan zenbat ez ote litezke hobeki ikusiak eta jendeen gogorakoago, balute erlisione gutixago eta ez balire hain Jainkotiar eta hain kartsu beren girixtinotasunean. Nundik heldu ote da gutartean hainbertze loriatzen baitire halako heieri huts edo itzal zerbaiten atzemaiteaz ? Munduaren izpirituak gure baitan gaina hartzetik, arren[7], munduaren izpirituak ez du maite Jainkotiarrik, bere gogorakoago ditu beren fedean hotz eta erlisionean lazo direnak. Nehor ez hil, deus ez ebatsi, horra munduaren gogorako prestutasuna ; ez da gaitz[8], bainan girixtino batentzat ez da aski. Jondoni Extebe bezala suhar izaitea fedean, kartsu erlisionean, Jainkoaren Izpirituz betea, munduko goiti-beheiti guzietan, horra gutartean zeri behar giniokeen eratxiki estimurik eta ohorerik gehiena.

Nork erran dezake zer artarekin Jondoni Estebek zituen begiratzen eta probetxarazten Jainkoak eman ziozkan dohain hek ? Liburu Sainduek, zenbait lerrorik barnean, espresuki bezala hiruretan egiten daukute haren bertutearen aipamena. *Viros boni testimonii,* jendeen begieten gizon prestu... *Plenos Spiritu Sancto,* dohain guzien emaileaz, Izpiritu Sainduaz betea. Beraz, jendeen estimua bezain ontsa Jainkoaren konplesentziak merezi zituena... *Et sapientia,* zuhurtziarik handienaz dohatua. Zer nahi duzue gehiagokorik, ederragokorik, gizon batek dituzkeen dohainetan ? Preseski ez zaio bada aski oraino erran duela[9] hartaz mintzo zaikun izpiritu jainkozkoari. Berriz oraino dio, behin erraitea eskas balitzaio bezala, Extebe hautatu zuten hori zela, *virum*, gizon bat arras gizon, adinez gazte izanagatik, bertze zernahi gisaz gizon bat egina, gizon bat konplia, *virum plenum fide,* fedez eta fedearen sendimenduz betea, ezen ote da egiazko gizontasunik fedea gabe ? *Plenum fide et Spiritu Sancto,* ez xoilki fedez bainan Izpiritu Sainduaz beraz betea.

O saindu handia, horra beraz nolakoa zinen jada diakretasunaren ordena sakratua errezebitu baino lehenago ere. Eta gero zure kargu delikatuaren urrats eta harat hunatetan, hainbertze enbarazu[10], hainbertze neke, eta buru-hausteren erdian ez ote ziren kordokatzen[11] edo higatzen bederen hasi zure bertuteak ? Ez, girixtinoak ez ! Huna galde horri zer errepusta emaiten dion Izpiritu Sainduak... *Stephanus autem plenus gratia et fortitudine.* Extebe sainduaren baitan Jainkoak eman grazia hek beti gaindizka zauden ; ikustekoa zen haren bertuteen azkartasuna ; hala hala mirakulu handiak egiten zituen jendeen artean, *faciebat prodigia et signa magna in populo.*

Zer etsenplua gutarik bakotxarentzat, girixtino maiteak ! Guri ere bertze orduz eman izan zitzaikun fede hura, Jainkoaren grazia hura, Izpiritu Saindu hura. Orhoit gaitezen bataioak zer estatu ederrean ezarri gintuen ; orhoit gaitezen lehen komunione hartan nola bat egin ginuen Jesukristorekin ; orhoit konfirmazionearen dohain miragarri hetaz ; orhoit gu, Jainkoaren minixtroak,

gure ordena saindua errezebitu ginuen egun hartaz. Oi geroztik hunat, girixtinoak, zerk haizatu ote ditu gure baitarik dohain eta sendimendu eder hek ? Zertako ez ditugu hobeki begiratu eta, artatzearen medioz, gure baitan emendarazi grazia hek guziak Jondoni Extebek egin zuen bezala ? Oi zein ahul eta herbail garen hainbertze urte huntan girixtino izanki eta ! Hainbertze sakramendu errezebitu eta ! Oi zein indar guti aski duten gure etsaiek gure garhaitzeko ! Zenbatek gutartean ez dute ja aspaldi etsai heiekin adixkidantzazko paktu bat egin ? Edo bederen noiznahi amor emaiteko usaia hartua ? Eta Jondoni Extebek ote zuen etsairik ? Salbatzaileak berak izan zuen hainbertze, hetarik gehienak oraino bizi ziren, hek berak eta bertze asko heiekilako, zituen Jondoni Extebek, bere etsaiak, hala behar ere bai... Bertzenaz ere mundu huntan usaia da, usaia baino gehiago, lege bat da Ebanjelioan berean ekarria Jesukristroren dizipulu arima bertutedun eta justu aski dela izaitea etsai ausarki[12] ukaiteko.

Nola zitekeen beraz etsai ainitzik gabe Extebe justua ? Haren bertuteen etsenplua ezin pairatuz, haren mirakuiluen fama ezin iretsiz, haren hitzak zer indarra zuen ikusiz Jesukristoren legearen hedatzeko, errabian zauden judu zahar eta herratsu hek. Bere hitzetan, bere arrazoinetan nahasarazi beharrez, Jondoni Extebe ixilarazi eta ahalkarazi beharrez, asko lekutarik elgarganat bildurik, sinagogetako gizonik abilenak eta sabantenak[13] abiatzen zaizko handik eta hemendik hizka eta arrazoinka. Bai bainan uste baino partida[14] azkarragoari buruz hasi baitziren, nehundik ez ziroten ihardok Exteberen zuhurtziari eta haren mihiz mintzo zen Izpiritu Sainduari. *Et non poterant resistere sapientiæ et Spiritui qui loquebatur...* Emazu hor, Saindu maitea, zu bezalako bat da eder ikustea erlisionearen etsaieri ihardokitzen ; zu zare zu, Jesukristoren egiazko soldadua ! Ezagun da jadanik ; ez duzu amor emanen hiltzerainokoan, ez hiltzean ere. Oxala baginauka guk ere zure alimua[15], zure sua, zure odola, zure bihotza, asko konpainia suertetan gure erlisionearen alde altxatzeko ! Oxala, ez bagine askotan garen bezain herabe eta beldurti gure erlisioneaz gaizki edo makur mintzo diren heien bixtan, bertutea edo karitatea kolpatzen duten heien bixtan !

Ezen, girixtinoak, huna oraiko denboretan guziz gutartean gertatzen den gauza desohoragarri bat. Zohazte hulako[16] konpainiarat : nor da han gehienik, ausarkienik[17] mintzo dena ? Hulako edo halako, orok dakizkagun arrazoin batzuengatik, erlisionea eta bertutea begietan hartua duena. Zer derasa[18] ote ? Erlisionea edo bertutea maite duenak aditu nahi ez lituzkeen arrazoin suerte batzu. Eta zu, girixtinoa, zer ari zare hor ? Haren aho xilorat beha, ixil-ixila ? Haren laudatzen ? Irriz, gostuz eta kontentik ? Deus ez dakien eta deus konprenitzen ez duen xoro batek zauzka lilluratua ? Trufatzen zaitzu, bekoz beko, zure errespetua eta amodioa gehienik merezi duten

gauzez, zure fedeaz, zure Jainkoaz, zure girixtinotasunaz eta aski flako izanen zare trufa horien jasaiteko, aski burugabe, ergel, elhe horieri zer ihardets ez jakiteko, menturaz aski flako zure girixtinotasunaz ahalke izaiteko ? Beraz, ez duzu zuk ez bihotzik, ez zentzurik ! Ez zare zu gizona !

Judu bekaiztiak laster ohartu ziren Jondoni Exteberen arrazoinamenduak eta haren fedea, hek ezin kordokatuzkoak zirela, doi-doia hura bere hitzetan xerkatuz beren desohorea baizik ez zutela irabazten. Arrazoinez ezin garhait eta, bertze nolazpait nahi dire mendekatu.

Hilarazi behar dutela, biltzen dituzte lekuko faltsu batzu eta beren alde altxarazten jende xehearen parte bat ere ; ezen odukotz jadanik Lege Zaharreko bai apez bai kargudunekin elgar adituak ziren. Tribunaleko kontseilua bildurik, agerrarazten dute Extebe beren aintzinerat. Han akusatua da, aditu izan diotela zernahi izigarrikeria erraiten, Moises profetaren eta Jainkoaren berarentzat ; mintzatu ere izan dela Jerusalemeko hiriaren funditzeaz. Apezen printzeak galdegiten dio egiak direnetz horiek. Extebe saindua orduan mintzatzerat doha ; guziak beha paratzen zaizko ; haren begitarteak iduri du osoki aingeru batena. *Et intuentes eum omnes qui sedebant in consilio viderunt faciem ejus tanquam faciem angeli.*

Abiatzen da eta, bere mintzo miragarriaz, denak harrituak dauzka. Emaiten diozkate begien bixtan guziak ; orhoitarazten ditu nola izan den egundainotik juduen jenerazionea Jainkoaren alderat gogor eta esker gabe ; nola hilarazi izan dituzten Jainkoak igorririkako profeta hek. Azkenekotz, heien ezaxolatasunaz asaldaturik, hau erraiten diote : « Ez zazuela uste izan zuek lehenagoko judu hek baino hobeak zareztela. Profetak balin bazituzten hek hilarazten, zuek hil duzue Jainkoaren Semea bera ; eta zuen gogortasunean, zuen bihotz sorhaioarekin[19], oraino ere Izpiritu Sainduak ezin hez, ezin mugiaraz zaitzazkete. *Dura cervice et incircumcisis cordibus, vos semper Spiritui Sancto resistitis.* Zer erreportxu[20] saminak !

Erreportxu horiek berak zenbatek gure artean, zenbatek ez lituzkete merezi ! Juduek baino are hobeki... *Dura cervice et incircumcisis cordibus, vos semper Spiritui Sancto resistitis.* Bai, girixtinoak, badu hainbertze denbora Jainkoaren minixtroak adiarazten dautzuela hainbertze egia salbagarri, esplikatzen hainbertze mixterio hunkigarri ; badu hainbertze denbora tribunal sakratu horietan zuen bekatuen barkamenduarekin batean ukaiten ditutzuela abisurik zuhurrenak. Bataioan, konfirmazionean, hainbertze komunionetan, meza sainduko sakrifizioan, Sakramendu Sainduaren benedizione hetan, Jainkoak zernahi egin du zuek aldebat[21] beretu nahiz ; halarik ere zuek hain hotz oraino Jainkoarentzat ! Hain bero munduarentzat ! Hain nagi zuen salbamenduaren egiteko eta bizkitartean hain erne jarraikiak lurreko aferentzat ! Beti bekatu berak, beti bizio berak, beti berdin eskergabe

Jainkoarentzat, beti berdin sorhaio ! Jondoni Extebek konfonditzen[22] zituen judu hek ez ziren gu bezain hobendun beren gogortasunean ; ez zuten guk bezainbat arrazoin, judu zirelakotz, girixtinoki pentsatzeko. Gu, ordean, girixtinotasunean haziak eta haur haurretik hala altxatuak, izan gaitezen funski noizbait girixtino eta guardia eman dezagun Izpiritu Sainduari gehiago gogorrarena egitetik. Balia gaitezen izaiten ditugun graziez, Jondoni Extebe baliatu zen bezala, halarik ere lanik aski izanen dugu, ifernuari eskapatzeko.

Bazakien Extebe sainduak zer xedetan ekarrarazia zuten tribunalerat. Beldurrik gabe agertu zen, beldurrik gabe mintzatu zen, eta nehor ez zitzaion menturatu ixilarazterat erran gogo zituen guziak erran arteraino. Haren azken[ik] aipatu ditugun hitz horiek izan ziren ihurtzuri[23] kolpe baten pare. Bera ixildu zenean juduek hitz bat ez ziezoketen ihardets ; despitez eta errabiaz bihotza porroskatzen ari zitzaioten : *dissecabantur cordibus suis.* Errabia hura ezin gordez hortzez karraskaka zauden : *et stridebant dentibus in eum.* Holatsu dire gutartean ere frango : egia suerte batzuen aditzeaz pena hartzen, eta errailearen kontra maiz bihotzari errabia lotzen.

Tribunaleko jujeak mutu bainan hortz karraskaz eta errabian... Zer ikusi behar du gure saindu amultsuak ? Begiak zerurat altxatzen ditu eta zerua hor idekirik zaio agertzen eta han Jainkoa bere loriaren tronuan eta Jesus bere Aitaren eskuinetik xutiturik beha dagokola bere soldaduari, Jondoni Exteberi. *Jesum stantem.* Hauxe da ikusgarria ! Jainkoaren Semea, zeru lurren erregea, xutik paratua, bere zerbitzariaren guduari hobeki behatzeko, xutik, beharrik balu ere hari kuraia emaiteko, xutik, lehenbailehen Extebe bitorios bere besoetan besarkatu beharrez. Hala-hala gure saindu miragarria oihuz abiatzen da dioelarik : « Huna nun dudan ikusten zerua idekia eta Jainkoaren Semea xutiturik niri beha bere Aitaren eskuinean. *Ecce video cælos apertos et Filium hominis stantem dextris Dei.»* Orduan tribunal guzia oihuz eta orroaz haren bozaren estaltzeko, beharriak tapatuz haren ez aditzeko, guziak betan saltatzen zaizko gainerat, herrestan baderamate eta aurdikitzen dute hiritik kanporat, han behar dutela harrikatuz hilarazi gaixtagin handienetarik bat bezala. Lege Zaharrean ez bide zen suplizio izigarriagorik. Jondoni Extebe ez da lotsa ; beti zeruari beha dago eta jadanik berantetsia noiz burregoek aldebat kenduko dioten bizia... Hauxe da kuraia, hauxe da indarra ! *Stephanus plenus fortitudine.* Ote dugu guk holako indarrik mundu huntako nahigabeeri ihardokitzeko ? Ezdeus batek lotsatzen gaitu salbamenduko bidean. Hain ausarki eta errexki bekatu egin dugun ondoan, bihotzak eskas egiten dauku, barnea ttipitzen[24] zaiku, penitentziari gure hutsen erreparatzeari[25] lotu behar garenean. Oi zein nekez uko egiten dugun usaia zahar eta okasione heieri ! Munduari beti josiak, zeruari sekulan funski behatu gabe, hola hola deramagu gure denbora nehun deskantsu onik gabe eta gero heriotzeak aise eta arrazoinekin gaitu izitzen.

Burregoak prepara zaitezte. Extebe saindua zuen kolpeen beha dago. Oraikotik masakrea hasterat doha ; burregoen indarra, furia eta ukaldiak deusek ez bide ditu behar trabatu. Beren soineko arropak kendurik, atxikitzerat emaiten diozkate, bazterretik beha hantxe dagokoten[26] gizon gazte bati. Gizon gazte hura, askok diotenaz, Jondoni Exteberen ahaide zen, Saul zuen izena ; gizon gazte, zitekeen suharrena, Lege Zaharraren alde eta girixtinoen kontra biziki eta itsuski bere burua noiznahi erakusten zuena. Ez zen harentzat ez ahaiderik, ez bertzerik ! Exteberi preseski bide zen aiher[27] gehienik.

Burregoen kargua ezin izan eta bederen heien arropen atxikitzaile paratu zen. Burregoak berehala lotzen dire zoin lehenka beren harrieri, eta besoak eman ahala Jondoni Exteberi hasten dire harrika. Hain firrinda gaitzean dohazi harri hek Exteberen gainerat eta hain usu, nun airean elgar jorik frango puskatzen ere baitire. *Saxorum crepitantium turbine quatebatur.* Laster Extebek buru hezurra pusketan du, gorputz guzia hola hola behar diote umatu[28] eta xehatu. Huna nun harria harriaren gainerat etxatzen[29] diotelarik boz ezti bat entzuten duten ateratzen sainduaren ahotik : « Ene Jesus Jauna, orizu ene bizia » *Domine Jesu suscipe spiritum meum.* Hori erran eta belaunikatzen da eta harrien harrabotsaren artetik guziek aditzeko gisan huna oihuz zer dioen : « Ene Jainko Jauna ez zazula otoi jende hauen gain ezar ene gainean egiten duten bekatu hau ; otoi barka zozute, ni hilez zerua idekitzen dautate.» *Domine ne statuas illis hoc peccatum.* Otoitz hori akabatu eta gure martir loriosa lokartu zen Jainkoaren eskuetan.

Girixtinoak, zer zaitzue heriotze hori ? Ote daiteke miragarriagorik ? Zer diozue guziz Jondoni Exteberen azken otoitz hortaz ? Noiz ere beretzat baitzagoen otoitzean, oraino xutik zagoen. Bainan bere etsaientzat barkamendu galdegin behar du, bai ; xutik ez zaio aski otoitz egitea, emaiten da belauniko. Ahospez ez zaio aski, oihuka dago bere oihuez bortxatu nahi balu bezala Jainkoa gaixtagin heieri barkatzera. Ez da kasu ari[30] heien harri ukaldiez, heientzat duen amodioak oro ahantzarazten diozka. Bederen bederen, haren otoitzaren medioz, hetarik nor edo nor salbatzen balitz !

Zuk baino hobeki, nork daki hori, Jondoni Paulo Apostolua ! Zu, Eliza guzian hain handi, hain lorios aipatua zarena ! Zuk Ebanjelioaren hitza munduaren bazter guzietan predikatu zinuena, nun bertze apostolu guziek baino gehiago inarrosi baitzinuen zeronek[31] mundu hau. Ez zinen ez beti apostolu izana ; ez zinen ez sortzetik Jondoni Paulo deitzen. Aintzinean otso, gero bildots. Extebe saindua harrikatu zutenean, Saul zen zure izena ! Zu, bai, zu eta bera zinen burregoen arropen atxikitzaile ! Zu eta bera zinen, geroxago oraino girixtino atzemaiten ahal zintuen guzien preso hartzaile eta hilarazle. Azkenekotz, ordean, Jondoni Exteberen azken otoitzak egin zuen bere indarra

eta zu, Saul, Jesukristoren etsairik errabiatuena, bilakatu zinen Jondoni Paulo, Jesukristoren apostolurik suharrena eta Elizan gertatu den gizonik mirakuiluzkoena.

Hortan berean, girixtinoak, seinalerik aski badugu ezagutzeko zenbatetarainoko amodioa zuen Jondoni Extebek bere etsaientzat, hain indar handiko otoitza hiltzerakoan egin zuenean Jainkoari. Nahitez bezala Jainkoak entzun behar izan zuen karitaterik kartsuenaren oihu handi hura.

Eta guk etsai bat edo bertze dugunean, norbaitenganikako gaixtakeria zerbaitez hunkituak izan garenean, oi zein garen minbera, herratsu eta mendekio gose ! Iduritzen zaiku barkatzea, bainan xoilki barkatzea, mirakulu bat egiten dugula : « Hobenik ez nuelarik holakoak zernahi egin daut, barkatzen diot ; ez diot gaizkirik desiratzen, ez dut deusetan xerkatuko[32]; akort eta apart uzten du[t] bere gisa.»

Horra asko girixtinoren karitatea zertaraino dohan. Hola frango zaiote eta debalde[33] hartarik deus gehiago galdegitea. Ebanjelioak berriz dio hori ez dela aski. Etsaiari barkatzea bat da, behar da oraino etsai hura maitatu, eta maite dela gogotik frogatu, eta amodio haren frogak agertu. Barkatzea manamenduaren konplitzearen erdia baizik ez da. Barkatzean eta maitatzean da osoa.

Jondoni Extebek ikusten zuen bere etsaien tratamendu gaixto eta harri ukaldi heieri esker zuela zerua irabazten ; heien krudelitateak ziola zeru eder hura zabal-zabala idekitzen. Guk ere berdin behar ginuke arrazoinatu, miretsiz gure etsaien egitate gaixtoek merezimendu ainitz gehiago daukutela irabazarazten gure adixkideen pereka, konplimendu eta maina guziek baino. Beraz, girixtinoki pentsatzen balin badakigu, ezagutuko dugu zor diotegula gure etsaieri ez xoilki barkamendua, bainan zerbitzurik handienaren saritzat bezala, gure amodioa. Ez baginitu maite gure adixkideak baizik, zertan gintezke paganoetarik diferent ? Holako amodio baten izaiteko ez ginukeen Ebanjelioaren beharrik. Bainan etsaien beren amodioa da egiazko girixtinoaren seinalea. Hala hala Jainkoak ez du deus errefusatzekorik amodio hori duenari ; hori duenak Jainkoaren amodioa segura du eta haren konplesentziarik[34] handienak bere ditu zeren eta amodio horrek emaiten baitio Jainko Semearen iduria.

Cum hæk dixisset obdormivit in Domino. Jondoni Extebek bere etsaientzat otoitz hori egin zuen bai[35], lokartu zen Jainkoaren baitan. Hil zela erraitea beltzegi, tristeegi zaio Izpiritu Sainduari. Bizkitartean, ez du bada iduri harrikatuz hiltzea hain ezti ere badaitekeela[36]. Jondoni Exteberentzat ordean Jainkoak herioaren kolpeari kendu zion bere garraztasun guzia ; haren karitateak hori bederen merezi zuen.

Etsaiak berak hain maite zituenari, ez zen sekulan herioa menturatuko min egiterat. Beraz Jondoni Exteberen azken hatsa izan zen amodiozko

hasgorapen eta suspira gozo bat ; Jesus zitzaion lotu besarka, sekulakotz bere lorian gozarazteko...

Agian guk ere, girixtinoak, merezituko dugu amodiozko heriotze hura, Jesusen besoetan.

Halabiz.

---

[1] badoakio, batuaz. « Joan » aditzarekin baino nahiago dute gaur askok « egon » aditzarekin jokatu : (ba)dagokio... Baina kasu huntan segurik « joan » aditzetik datorrena hobeki doakio...
[2] dezagun
[3] harrabots
[4] etsai/ arerio
[5] kopurua
[6] zezaketena, batuaz ; ezin kudeatua lan gehiegiz
[7] zeren-eta (?)
[8] neke, zail
[9] duena (?)
[10] oztopo, eragozpen
[11] zalantzan, dudan jartzen, ahultzen, hausten
[12] ugari
[13] jakintsuenak
[14] arerio
[15] animua, kemena
[16] holako, gisa hortako
[17] gehienik
[18] ≈ Zer dio ote (gaiztakeriaz ari den) horrek ?
[19] sentiberatasunik gabearekin
[20] erasia, aurpegira botatze...
[21] betiko(tz)
[22] gezurrean harrapatzen
[23] ortzi, trumoi
[24] ≈ gogoa iluntzen, lotsa batek hartzen
[25] erreparatzea : ebatsiak ordaintzea, gaizki eginak xuxentzea...
[26] dagokien, batuaz
[27] etsai
[28] xehatu, zafratu
[29] botatzen
[30] ≈ ez du kasu egiten, ez da kexu
[31] zuhaurk (zuk-en indargarria)
[32] liskarrik bilatuko
[33] aferrik, alferretan
[34] ≈ egitate on
[35] bai : berehalakotasunaren adierazlea da hemen.
[36] izan daitekeela.

GEHIGARRIA / SUPPLÉMENT (2020)

Gratien Adema-Zaldubi :

oroitgarriaren agertzea

eta

“SAINDU BATZUEN BIZIAZ”
7 liburukietarik lehenaren aurkeztea

Senperen 2007-12-20

Adema-Zaldubiren oroitgarriaren estreinatzea Senperen

2007-12-20. Gratien Adema-Zaldubiren ohoretan Senpereko Herriko Etxeak eraiki oroitgarria, Euskaltzaleen Biltzarrak estreinatu zuen Senperen.
"Zaldubi" ikastolako haurrak ere hor ziren kantatzeko prest : "Zazpi Euskal-herriek bat egin dezagun". Eskuinean Piarres Ainciart Euskaltzaleen Biltzarreko elkarteburua. © D.R.

(Jakes adiskidea. Argazki hau "Hortzak izerdi" liburuaren "Gehigarrian" dago jadanik eta beraz handik kendu beharko duzu bere komentarioarekin eta hemen ezarri. Milesker eta barkatu lan hori emateagatik. Henri.)

“Saindu batzuen biziaz” Adema-Zaldubiren
7 liburukietarik lehenaren aurkeztea Senperen.

2007-12-20. Arratsalde horretan berean Euskaltzaindiarekin Adema-Zaldubiren lehen liburukia aurkeztu zen (zazpi izanen dira orotarat). Ezkerretik eskuinerat: Henri Duhau, Andres Urrutia euskaltzainburua, Christine Bessonart Senpereko auzapeza, Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohia.
Hortxetan daude ere urte hartan berean preparatu nituen bertze lau liburuki gaiak ; laurak ondoko urteetan agertuko direnak. Ez da harritzeko Piarres Ainciartek, oroigarriaren aurrean, “beneditano laikoa” izendatu baninduen ! Eskuineko erhiek eta ukondoak tendinitisagatik eta bizkar hezurrak sobera jarririk egoteagatik, beren partea sentitu zuten…

2007-12-20. Publikoa entzule kartsu.

Gratien Adema «Zaldubi»ri omenaldia
(eta 1/7 liburukiaren aurkezpena)
Senperen (2007-12-20)
(Henri Duhau)

Andere Auzapeza, Jaun eta Andere hautetsiak,
Euskaltzainburu Jauna,
Euskaltzain eta Euskaltzale Jaun eta Andere guzieri bihotzetik agur!

Lotsa izigarri batek hartu nau hitzaldi hunen idazten hasi naizenean : zer, holako hizlari jakintsunen ondotik, ni baino askoz ere gehiago dakiten hoinbertze ikerle begi zorrotzen erdian, zer behar dut atera ?

Jo aitzina halere, galdatua zaiguna bete behar dut nolabait! Jadanik erran izan zaizuen bezala Adema-Zaldubiren lanik gehienak argitaratuak izanak dira bizi zelarik andana bat eta hil ondoko urteetan berriz, 1908tik goiti, *RIEB* edo *Revue Internationale des Études Basques* agerkari famatuan bai eta *Eskualdun Ona* deitu kazetan. Baina lan horiek guziak ez daude gehiago eskumenean, aspaldian agortuak dira.

Hortakotzat Euskaltzaindiak erabaki du denen edo gehienen berriz publikatzea, eskuizkribuak barne, zinez merezi baitute. Euskaltzaleen Biltzarrak eta Euskararen Erakunde Publikoak ere beren laguntza ekartzen dutela.

Lehen liburuki hau "**Saindu batzuen biziaz"** deitu dugu baina nola eta zertarik jalgia den erran aitzin behako labur bat bederen eman behar diogu obra osoari, eta lehenik nola erori zaizkigun Adema-Zadubiren eskuizkribu hauek guziak altzorat...

Elena Touyarou-Phagaburu-k deitu ninduen behin, baizik-eta Xipri Arbelbidek galdaturik ari zela, "**Bidegileak"** sailarentzat, lan baten egiten Adema-Zaldubi-z, eta ea lagunduko nuenez xehetasun zenbaiten biltzen eta artxiborik baldin bazen, haien bilatzen. Baietz bai, ihardetsi nion eta gogotik gainerat : Ademaren ondorengoak ezagunak baititut, eta ezagunak baino gehiago ere, berrogei urte huntan.

Holaxe joan ginen 2006ko azaroaren 22an, Elena eta biak, artxibo horien ondotik "Ademarenerat" eta han gure harritzea, mahai gainean ikusi genuelarik halako liburu eta paper meta, Pierrette Dourisboure adiskideak guretzat artoski bilduak ! Hasten gara doi bat miatzen eta huna nun zer altxorra dugun begien bistan : eskuizkribu miresgarriak, hainbertze eta halako estatu onean ! Denak baliagarriak, izkirione xehea bezain bikainaz idatziak !

Elena eta biak, elkarri beha geunden, zozotuak bezala, ez genekien zer pentsa ! Elenari erraten diot: zu literario alorrean trebe baitzara, har itzazu ! Ez, zuk behar dituzu hartu, ihardesten dit, eta holaxe, eskuak ikaran bezala, besazpian eraman nituen etxerat delako artxiboak, menturaz XIX. mendeko euskal eskuizkriburik ederrenak eta baliosenak.

Laster ikusi nuen, ordea, zer lan ikaragarria hartu nuen bizkarrean. Zerrenda bat egin nuen eta 80 dokumentutan banatu zen guzia. Orotarat 2.200 bat orrialdeko lana osatzen dukete gaur.

Nork edo nork begiztatu nahi izanez gero, hortxe duzue lan hori, azpimarratuz eskuizkribuetarik abiatzen dela ene sail guzia.

Errana dugu bortz, sei edo zazpi liburukiren gaia badela. Nola egin dugu bada lehenbiziko huntan argitaratu behar zenaren hautaketa ? Gogoeta sinple bat egin dugu : zertako ez publikatu, lehenik, behin ere argitaratuak izan ez diren lan batzuk ? Gainerat, Adema-Zaldubiren neurtitzak eta kantikak ezagutuak dira, adituen artean bederen, baina Ademaren euskarazko idazki laxoez nehork ez daki deus. Eta prediku hauek parada ederra emanen digute preseski Ademaren prosarako jeinua ezagutarazteko.

Huna nola sortu dituen Ademak, hemen argitaratzen ditugun prediku horiek. Herrietako bestak zirenean usaia zen predikari handi bat gomitatzea egunari ospe, dirdira gehiago emateagatik. Eta Ademak hortarako zaletasun handia izanki, gonbidatu zuten zenbait herritarat beren patroin sainduaren goresten laguntzeko. Gisa hortako hamar bat mintzaldi aurkitu ditugu haren lanetan eta haiek ditugu sartu lehenbiziko liburu huntan, erran dena, Ademaren prosa ezagutarazteko asmoz, hots, euskararekin, hitz laxoz nola jokatzen zuen erakusteagatik. Hori da hautu hunen zergati guzia.

Ikusiko duzue hor zer artarekin preparatzen zituen bere mintzaldiak ! Funtsa eta errateko manera, biak errotik lantzen zituen. Hots, azala eta mamia biak maitasun kartsuenaz artatzen zituen. Hor ditugu beraz bata bertzearen ondotik urteko egutegian agertzen zaizkigun bezala :

—Jondoni Bixintxo (Beskoitze? Hendaia? Uztaritze? Ziburu?);

—Jondoni Joanes Batista (Hazparnen);

—Jondoni Petri (Senperen);

—Jondoni Juliano (Ortzaizen);

—Andredena Maria (Ainhoa? Aldude? Ahurti?, Armendaritze? Arnegi? Azkaine? Bardoze? Baiona [Katedrala]? Bidarte? Heleta? Urepele?);

—Jondoni Zipriano (Lekornen);

—Jondoni Martine (Ahetze? Arrosa? Biriatu? Domartiri? Miarritze [St-Martin, bistan da]? Sara? Bada Akamarre ere baina han, gaskoieraz hitzegiten da) ;

—*Que soy era Immaculada Counceptiou* ;

—Santa Luzia (Atharratzen) ;

—Jondoni Extebe (Baigorri? Donoztiri? Ezpeleta? Makea? Urketa? Zalgize?).

Aitzin solas gisa ezarri ditugun lerroekin ere, alta bada, ez zarete aspertuko : beha otoi zeinenak diren:

—Andres Urrutia Euskaltzainburuak lehenik bere aurkezpenean salatzen digu *Euskaltzainak* liburu sail berri bat hasi dutela eta hain xuxen Adema-Zaldubiren liburu hau izanen dela lehen zenbakia.

Gero datoz lau lekukotasun, hobeagorik nekez asma baitzitekeen :

—Jean Hiriart-Urruty “zaharra“, bere begiz Adema-Zaldubi ikusi duena predikatzen, kantatzen bai eta beilak edo erromesaldiak animatzen ere...

—Jean Etchepare, gure idazle nagusia, Alduden zelarik mediku gazte, ezagutu baitzuen, hark ere, Adema-Zaldubi hango ur onetan ibilki zelarik osasun bila.

—Piarres Lafitte-k, 1933an egin hitzaldi bat, erdaraz hau, horrela begi keinu ttiki bat egiten dugu, bidenabar, euskararik batere ez dakiten zenbaiti, haiek ere jasta bat bederen izan dezaten gure herritar handienarentzat daukagun gizonaren biziaz eta lanez.

—Laugarren lekukotasuna, Piarres Charrittonena dugu, 1985ekoa, euskaltzain sartu zen urtekoa naski, bertze hirurek erranak osatzen ditu xehetasun anitzekin euskara bizi batean miresten dituela Adema-Zaldubiren lanak.

Zer nahi duzue gehiago entzule onak : Euskaltzainburuaren aurkezpena batetik eta bertzetik lau lekukotasun : iragan mende horrek, Iparralde huntan eman ote du lau jakintsu horiek baino handiagorik ?

Horra beraz gertakari handiak burrustan datozkigula gainerat, Senperen, eta Euskal Herri guzirat zabaltzea merezi duten mailakoak ! Jadanik "**Dufau bi anaiak"** liburuarekin loriatuak gelditu ginen dokumentu arras bereziak, eta adituek historikotzat jotzen dituztenak, eman baikenituen argitarat, hau da, notariozko kontratu ofizialak *République Française* zigiludun paperetan ! Bi hizkuntzetan paratuak baitzituen, frantsesez eta euskaraz, hizkuntza bakoitzari leku ber-bera emanik.

Denak harriturik gelditu dira gure notario eta auzapez ohiaren balentria jakitearekin...

Bai, horra beraz, Dufautarrak azaldu zaizkigun urte berean Adematarrak !!! Zeren-eta, artetik errateko, baita bertze Adema bat ere, Gratien-en iloba, Monseigneur Blaise Adema (1861-1936), ez zena nor-nahi hura ere, *Eskualduna* astekariaren buru izan baitzen lehen gerla mundialetik lekora, 1918tik 1925erat.

Baina egun Gratien-ekin egon behar dugu.

"Saindu batzuen biziaz" liburu hunen ondokoa zein izanen den ez dakigu oraino. Biziki ontsa litzateke naski gaiak aldizkatzea, batean gai erlijiosoak, bertzean profanoak ; honelaxe letozkiguke orduan:

—Bigarren liburukia : **"Zaldubi Artzain Beltxaren neurtitzak"** (gai profanoak) ; hau bide da Zaldubiren eskuizkriburik miresgarriena : hor daude 32 kantu, orotarat 324 neurtitz edo bertsotan. Ohargarrienak : *Pilotariak,* 33 bertsu ; *(Biba) Errepublika,* 62 bertsu !!! *Eskualdunak* eta *Gauden gu Eskualdun,* 25 bertsu. Gai profano horiek badute beti zuhur gogoeta bat gibelean.

—Hirugarren argitalpena litzateke : **"Kantikak"** (gai erlijiosoak) : hor badira 26 kantu, 260 bertsorekin. Arrakastatsuenak, *Oi Gurutzea, Adora dezagun, Amodio Ohore* eta *Uholde baten pare*. Azpimarratu behar da horietan *Santa Engrazi* edo *Santagrazi* sainduari Ademak bota zizkion 31 bertsuak !!!

—Laugarrena : **"Alegiak eta bertze neurtitzak"** (gai profanoak) ; alegiak 7 dira eta kantuak 36, 358 neurtitz edo bertsutan zabalduak.

—Bosgarren eta seigarrena : **Predikuak** lirateke, 25bat orotarat eta hor bada bertze bi libururen gaia.

—Zazpigarrena : **"Gaineratikoak...".** Hor sartuko genituzke Ademaren lanetan dauden bertsio desberdinak, aurten eginen diren hitzaldiak, gaurkoak barne, eta holako.

Dena den, lehen liburu huntan berean uste dut bakoitzak aurkituko duela Adema-Zaldubiren obran alhapide: batzuek haren literatura gisari behatuz eta hura arakatuz; bertzeek erlijio eta fede begiz gogoetatuz ; eta nik dakita bertze zenbatek oraino, zenbat begi motaz, behatuko dioten, alde guzietarik, jorra eta jorra, ariko zaizkiolarik ?

Orain, egia da, ez dakigula beti nola izendatu gizon handi hau. Jadanik errana izan zaizue, berak idatzirik baitago, obra erlijiosoak 'Adema' izenpetzen zituela eta bertze gaietan 'Zaldubi' izenordea erabiltzen zuela. Gizon hunen berezitasunetarik bat da, hain xuxen, bi alorretan berdin trebe eta suhar jokatu izana. Beraz, gizon osoaz ari bagara, Adema-Zaldubi

deitu behar genuke, ene ustez, bertzela makur ibil gintezke eta ez genezake errespeta berak Azkue handiari idatzi ziona.

Alabaina Zaldubi-k ez du gizon osoa besarkatzen eta apeztasuna zerbait zitzaiola diosku, Jean Hiriart-Urruty zaharrak liburu huntan berean irakurriko duzuenez, euskalduntasunarekin batean biak gorenean baitzeuzkan! Apeztasuna biziki gora ezartzen bazuen, ez zuen haatik giristinoen eginkizun-maila apaltzen, ez ala fede!

Huna beharbada, haren obra guzian, ni gehienik harritu nauen ateraldi bat, Zipriano apezpikua goresten duen kapituluan da; huna, hitzez hitz :

"Aitamak, etxeetako aitzindariak, zuek ere zuen haurreri edo azpikoeri buruz apezpikutasun batez bezala beztituak zarezte!"

Harritu naiz hori irakurtzean ! Ez dut uste larderia galdez ari dela; iduritzen zait, izatekotz, biziki gora ezartzen dituela aita eta amatasuna. Iduritzen zait, izatekotz, 'artzainaren' erantzukizun arduratsuaz ari dela. Berak, bere buruarentzat ere, ez ote du erabiltzen, lehenik **"Mendiko Artzain beltxaren neurtitzak"** eta geroxeago, lan berarentzat, **"Zaldubi Artzain beltxaren neurtitzak"?** Ez da dudarik 'artzaingoa', gisa guzietarat, gora zeukala. **Beltxa,** izenlagun horrekin berriz, zer erran nahi izan duen ez dugu argitu, baina, badirudi, hor ere, apez-artzainaren sotana beltza orhoitarazi nahi duela. Ohartu zarete, bistan dena, **beltxa** ezarri duela eta ez *beltza*, Iparralde huntan segurik baita bien artean alde handia.

Adema-Zaldubik bere lanetan ez du nehoiz aipatzen Senpere-rik: iduri du ahalke dela bere sorterriaz. Jakin behar da haren denboran, gure herrian, apezen etsai ziren "gorri" batzuk gaitzeko indarrean zirela. Senpere, 1789an, frantses Iraultza Handiaren alde jarri zen bere inguruko herriak, Sara, Azkaine, Ainhoa eta bertze, Lege Zaharrari leial zegozkiolarik. Eta ez zen epelki jarri gero ! Notableak aitzindari Duronea notarioa, Loustau Senpereko jaunaren lurren kudeiatzailea (hau, itxura guzien arabera, bere nagusiaren kontra...), Marithurri, herriko erretora bera, bikarioak halaber ! Iraultza horrek piztu suak iraun du Ademaren denboraldi guzia, eta geroago ere, bertze urte andana baten buruan itxindi eta pindar batzuk bizirik zeudela daukagu...

Badakigu karrika nagusiaren zabaltzeko, Adema-Zaldubiren sort-etxea ere aurdiki ziotela. Zer gatazkak "xurien" eta "gorrien" artean! Duela hiruretan hogei urte oraino, alde batetik Bernard Elissetche irakasle handia eta bertzetik Dominique Dufau notario eta auzapez ohia, zeingehiagokoa ari ziren; lehena Senperek Errepublikaren alde egin zuen bidea laudatzen eta bertzea bide horren gehiegikeriak salatzen! Eztabaida horien lekukoak badira oraino gaur egun... Eta, ikusten duzuenez, ez gara hor merkatu ondoko bi basoren arteko ahapaldietan, Senpereko bi jakintsu handienen arteko eztabaidarekin baizik!!!

Dufauren iritzi, doi bat leunduak, egia erran, **"Dufau bi anaiak"** liburuan dituzue. Bernard Elissetche-ren artikulu bikain bat ere irakur dezakezue 1954an "**Gure Herria"-**n agertu zuena eta deitua : ***"Le gouvernement des etxeko jaun à Saint-Pée-sur-Nivelle."***

Orain eskerren bihurtzea gelditzen zait. Lehen-lehenik Dourisboure familiari. Aspaldikoa da horiekin dudan harreman ezin hobea. Ikastola, horien etxe batean sortu genuen 1971n. Zirikolatz, Senpereko Dantzari taldeak ere badu hogeita hamar urte pasa horien borda batean kokaturik dagoela, leku egokiagorik ez baitzezakeen aurki. Milesker handi bat artxiboak prestatu baitizkigute, deplauki, konfidentzia osoz. Biziki hunkitu gaitu egitate horrek.

Milesker Senpereko kirol batasunari boz goragailua prestaturik.

Milesker Christine Bessonart andere auzapezari eta Dominique Idiart kultura arduradunari, haste-hastetik sail huni buruz erakutsi duten begirunearentzat.

Zorionak eta milesker Edouard Solorzano Jaunari Adema-Zaldubiren orhoit-irudiaren egileari Herriko Etxeak galdaturik.

Euskaltzaleen Biltzarrari ere eskerrak beti errotik laguntzaile izan baita, diruztatzean parte hartuz gainerat.

Milesker oraino Andiazabal Jaun Kalonjeari: egun Adema-Zaldubiren obra literarioa goresten badugu, igandean, etzidamu, haren kristau ekarpena goretsiko baitugu Piarres gure kalonje langile kartsuaren laguntzarekin.

Azkenik Euskaltzaindiari eskerrak, ohore handia egiten baitigu egun Senpererat etorriz biltzar ideki baten ospatzerat eta bihar bere hilabeteroko bilkura eginen baitu Herriko Etxean. Milesker zuri bihotzez, Andres Urrutia Euskaltzainburu Jauna, zazpi eginahalak egin baititutzu egun huntako lehenbiziko liburu hau atera zedin, epeak arrunt laburtuak genituelarik, besoen puntan eraman duzu, kemen handiz, eta eskerrak dizkizugu bietan, jadanik indar ber-bera egina baitzinuen **"Dufau bi anaiak"** liburuaren alde eta hori ere ez baitugu ahanztekoa Senperen.

Eta egun Adema-Zaldubiren lehen liburukia zurekin ekarri duzu ; ez zara Olentzeroren jantzitan jarri baina haren eginkizuna betetzerat zatoz Euskaltzaindiak, urririk, eskainiko baitigu hemen gauden bakoitzari, bilkura ondoan liburu berri bedera!

Eta ez hori bakarrik: **"Bidegileak",** hau ere Adema Zaldubiren biziaz eta lanez ari den liburuxka dohainik izanen dugu, zure bitartez, Eusko Jaurlaritzak eskainirik...

Gora Euskaltzaindia eta gora Adema-Zaldubi !
Eta oraindanik Eguberri zoriontsuak guzieri.
Henri Duhau